



Malerreka solasean *ahozko tradizioaren bilduma*



**Nafarroako
Gobernua**



**MALERREKAKO
MANKOMUNITATEA**

Izenburua:

Malerreka solasean. Ahozko tradizioaren bilduma.

© Nafarroako Gobernua

Hezkuntza Departamentua

© Malerrekako Mankomunitatea**Edizioaren koordinazioa**

Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia

Edizioa, diseinua eta maketazioa

Elea 21, S.L.

Moldiztegia:

Linegrafic, S.A.

ISBN:

84-235-2790-5

Lege gordailua:

NA-1.795/2005

Sustatzailea eta banatzailea:

Nafarroako Gobernuko Argitalpen Fondoa

Navas de Tolosa k., 21

31002 Iruña

Tf.: 848 427 121 – Fax: 848 427 123

Posta elektronikoa: fondo.publicaciones@navarra.es

www.cfnavarra.es/publicaciones



Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak euskara eta euskal kulturaren inguruko gaiak zabaltze-eremuan garatzen dituen programetan toki nabarmena hartu dute Nafarroako euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak ikertzen dituzten lanek.

Honi dagokionez, lan egiteko bi ildo nagusi ari dira finkatzen. Batetik Nafarroako Euskararen Fonoteka eta, bestetik, lanen argitalpena, dibulgazio mailakoak (Bortzirietan aditutakoak, 2004. urtean) zein aplikazio didaktikoa dutenak (Basogintza Sakanan).

Bilduma honen xedea da, modu didaktiko eta ludikoan, gure lurreko kulturaren aberastasuna aurkeztea, aski ahantziak diren lanbideetan aritu diren pertsonen zuzenean emaniko testigantzen bitartez. Testigantzak bildu ezean, izugarrizko galera itzulezina gertatuko zen gure hizkuntza ondarean, desagertuko bailirateke. Aldi berean, haien bitartez ohiturak, eguneroko bizimodua eta jaiekin lotutako kultura alderdiak ere ezagutu daitezke.

Nafarroako Gobernuak eta Malerreka Mankomunitateak lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zuten argitalpen bat egiteko. Maite Lakar eta Amaia Apalauza filologoek egindako ikerketa lana du oinarri. Hauek ahozko testigantza asko bildu zituzten Beintza-Labaien, Donamaria, Doneztebe, Elgorriaga, Eratsun, Ezkurra, Ituren, Legasa, Narbarte, Oieregi, Oitz, Saldias, Sunbilla, Urrotz eta Zubieta herrietako euskaldunei eginiko elkarrizketen bitartez.

Malerreka solasean. Ahozko tradizioaren bilduma argitalpenean agertzen diren gaiek badute lotura herri horietako eguneroko bizimoduarekin, ekonomia eta historiarekin, kulturarekin, mitologia eta sinismenekin.

Liburuarekin batera DVD bat ere aurkezten da. Grabazioetako bi ordu biltzen ditu elkarrizketatutako pertsonen lekukotasunak entzun ahal izateko. Halaber, zenbait produkturen egite artesanala kontatzen dituzten hiru bideo ikusi ahalko dira.

Gure kultura ondarearen ikerketan sakontzeko eta zabaltzeko konpromisotik, pilatu dugun hizkuntza aberastasunez jabetu gaitezen, espero dugu argitalpen honek laguntza emanen duela gure euskara ahalik eta hobekien ezagutzeko.

Pedro Pegenaute Garde
Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako
zuzendari nagusia



Hemen aurkezten dizuegun liburu eta DVD hau Malerrekako Mankomunitateak 2001an urtean ahozko tradizioa jasotzeko emandako bekaren emaitza duzue.

Maite Lakar Iraizoz eta Amaia Apalauza Ollo izan dira lan hau aitzinera eramateko ardura hartu dutenak, horretarako gure eskualdeko herri guziak bisitatu zituzten eta bertan informazioa bildu. Malerreka eskualde zabala izanik ez da lan erraza izan, horregatik hemendik eskerrak eman nahi dizkiegu. Malerrekako herritarrei eskerrak eman nahi dizkiegu ere, bere laguntzarekin egitasmo hau ahalbideratu baitute.

Bertan aurkezten dizuegun informazioa lan mardul honen zati bat bakarrik biltzen du, jasotako informazioa anitz izan baitzen. Lanaren helburua Malerrekako ahozko tradizioaren lekukotza jaso eta gure arbasoengandik jasotako aberastasun hau Malerrekako herritarrei hurbiltzea izan da. Neurri batean gutxienez helburu hau bete dugulakoan gaude.

Lan hau guztion gustukoa izatea espero dugu.

Miguel Angel Petrirena Azpiazu
Malerrekako Mankomunitateburua



ESKER MILA

Malerrekako Mankomunitateak emandako beka baten emaitza da honako hau. 2001. urte bukaeran ekin genion Malerrekako ahozko tradizioa biltzeko lanari, eta, urte bat eta erdi herriz herri, baserriz baserri eta etxez etxe ibili ondoren, 2003ko apirilean, Malerrekako Mankomunitatean utzi genuen bildutako informazio guztia.

Lan hau, baina, bildutako guztiaren zati bat bertzerik ez da. Aunitz dira 15 herrietan aditu ditugun kontuak, baina ez ditugu denak orriotara ekarri. Lan zabalago baten atal gisa ulertu behar da, hortaz, liburu hau. Azken batean, arrunt zabala da belaunaldiz belaunaldi transmititu den jakintza, eta kontakizun politenak aukeratu ditugu gai guztien artean, helduenek gogoratu eta gazteenek ikas ditzaten, eta, era horretan, ahoz ahoko transmisio hori eten ez dadin.

Lehenagotik ere ezaguna genuen ahozko tradizioaren mundua, baina, hala ere, zinez harritu gintuen urte eta erdi eskas hartan Malerrekako adinekoengandik –batez ere– jasotako altxorrak. Izan ere, Malerrekako hiztunik zaharrenei esker ondutako lana da honako hau, nahiz eta, zenbaitetan, hiztun gazteagoengana ere jo genuen. Horiei guztiei eskaintzen diegu orain aurkezten ari garen liburu hau: esker mila emandako laguntza paregabearengatik.

Baina, nola atzendu, laguntzaileak ere izan ditugu herri guztietan hiztun horiengana iristeko, eta haiena ere bada bilduma-lan honen zati handi bat. Gure eskerrik beroenak haiei ere, eta, bereziki, behar izan dugun guztietan gurekin lanean aritzeko prest egon den Txema Aldabe urroztarrari.

Ttipi-ttapako eta Xaloa telebistako lagunak ere eskertu nahi ditugu, bideo-irudiak jasotzen eta antolatzen laguntzeagatik. Baita Iñaki Sagasetari ere, zeregin informatikoetan bidea errazteagatik.

Bertze jende aunitzekin gelditzen gara zorretan; ez genituzke aipatu gabe utzi nahi isilean gurekin batera lanean aritu diren Malerrekako herri guztietako lagunak, Iñaki Camino irakaslea, familia, lagunak, lankideak, Malerrekako Mankomunitateko kideak, eta bertze hainbat jende.

Amaia Apalauza Ollo

Maite Lakar Iraizoz



AURKEZPENAK	3
EGILEAK ETA LEKUKOAK	11
GURE ESKUALDEA	17
AHOZKO TESTUAK TRANSKRIBATZEKO IRIZPIDEAK	23
AUKERATUTAKO GAIAK	25
1. ETXEA-FAMILIA: EGUNEROKO BIZITZA	29
1.1. Etxeko sua	29
1.2. Sutopilak	32
1.3. Gizon batzuen agintea	32
1.4. Ordu zaharra	33
2. HERRIKO BIZITZA: HARREMANAK, LEGEAK... ..	35
2.1. Elkarri laguntzea	35
2.2. Harremana Doneztebekoekin	35
2.3. Herri-izenak nondik heldu diren	37
2.4. Epistolak	38
2.5. Klase sozialak	40
2.6. Agotak	43
2.7. Ijitoa eskean	46
2.8. Xaldix	47
3. SORTZEA ETA HAURDUNALDIA	49
3.1. Sortzea eta bataioa	49
3.2. Teila buruan	50
3.3. Ezkongabeak eta ezkonduak haurdun	51
3.4. Ama ezkongabeak	53
3.5. Kristina emagina	54
4. HAURTZAROA	55
4.1. Hainbat josteta	55
4.2. Zotz egiteko moduak	57
4.3. Haur kantak	60
4.4. Formulak	64
4.5. Asmakizunak	68
5. EZKONTZA KONTUAK	69
5.1. Arreoa eta dotea	69
5.2. Ezkontza tratuak	69
5.3. Bertzelakoak	71
6. ERITASUNAK ETA ERREMEDIOAK	73
6.1. Kolpe handiendako	73
6.2. Pixa egiteko	73
6.3. Kalitxak kentzeko	74
6.4. Mospelarendako	76
6.5. Zingiria zinatzea	76
6.6. Gangarabilak sendatzeko	76
6.7. Belarriko mina sendatzeko	77
6.8. Odola gelditzeko	77
6.9. Astanarra sendatzeko	78

6.10.	Sugearen ausikia sendatzeko	78
6.11.	Zakurrari errabia kentzeko	78
6.12.	Mingaineko pikorrak kentzeko	78
7.	HERIOTZA KONTUAK	79
7.1.	Hainbat ohitura	79
7.2.	Lutu seinaleak	80
8.	EKONOMIA	83
8.1.	Nekazaritza	83
8.2.	Abeltzantza	84
8.3.	Erleak	85
8.4.	Errotan ehotzearen alde zenbat kendu. Neurriak	89
8.5.	Onddoak, zizak eta perretxikoak	90
8.6.	Ehiza: azeri masa	92
8.7.	Ikatz eta ikazkinak	93
8.8.	Morroi lana	98
8.9.	Neskato lana	102
8.10.	Kontrabandoa	106
9.	HISTORIA	117
9.1.	1936ko gerra: gerra garaia	117
9.2.	Gerra ondoko ogi gosea	119
9.3.	Soldadu garaia	120
10.	KULTURA	121
10.1.	Eliza	121
10.2.	Eskola	123
10.3.	Besta egunak	124
10.4.	Apustuak	129
10.5.	Bertso eta kantak	131
10.6.	Euskara eta erdara	134
11.	MITOLOGIA ETA SINESMENAK	139
11.1.	Sorginak	139
11.2.	Lamiak	143
11.3.	Jentilak	146
11.4.	Sanson eta Errolan	147
11.5.	Animak	147
11.6.	Animismoa	148
11.7.	Eguraldia igartzeko moduak	150
11.8.	Bertzelakoak	152
12.	IPUINAK ETA ISTORIOAK	155
12.1.	Ipuinak	155
12.2.	Istori harrigarri-barregarriak, txisteak, bromak, sustoak... ..	156
12.3.	Zirtoak, burlak eta bertze	159
12.4.	Ezkurarren kontuak	160
12.5.	Erranerak	163
	ERANSKINA: LIBURUA ETA DVDA	165
	ERABILITAKO ARGAZKIAK	167
	BIBLIOGRAFIA	171



Bi zutabe nagusi izan dira Malerrekako Ahozko Tradizioa biltzeko lan honetan: egileak eta lekukoak. Egileen lan bikainari esker alde batetik, eta lekukoen harrera eta laguntzarekin bertzetik, emaitza ezin hobea lortu da.

Egileak

Maite Lakar Iraizoz

Maite Lakar Iraizoz Elizondon jaio zen 1978. urtean eta euskal filologian lizentziatua da. Malerrekako ahozko tradizioa jasotzeko beka hartu zuen, Malerrekako Euskara Mankomunitateak emana. Gainera, Bortzirietako ahozko tradizioa jasotzeko beka eta Baztango ahozko tradizioa jasotzeko “Mariano Izeta” beka ere hartu ditu. Pello Salabururen laguntzailea izan da *Baztango Gramatika* izeneko proiektuan.

Amaia Apalauza Ollo

Amaia Apalauza Ollo Iruñean jaio zen 1979. urtean eta euskal filologian lizentziatua da. Malerrekako ahozko tradizioa jasotzeko beka hartu zuen, Malerrekako Euskara Mankomunitateak emana. Orain Araitz-Beteluko ahozko tradizioa jasotzeko beka hartu du, Araizko eta Beteluko udalek emana. Gainera, Imozko euskarari buruzko tesia egiten ari da.

Lekukoak

BEINTZA-LABAIEN

Begoña Urroz izan da gure laguntzailea.

Lekukoak, berri:

- Tomas Otxandorena Telletxea
- Florentino Ibarra Goñi
- Pedro Erasun Saldias
- Tomas Telletxea Elizalde
- Agustina Albiztur
Mindegia
- Maria Petrikorena
Jaunarena
- Anastasia Ibarrola
Telletxea



Pedro Erasun eta emaztea. Beintza-Labaien.

DONAMARIA

Kleofe Goñi izan da gure laguntzailea.

Lekukoak hauek dira:

- Hipolito Etxegarai Bertiz eta Maria Otxandorena Elizalde senar-emazteak
- Inaxio Inda Arregi
- Florentino Mariñelarena Legazkue
- Jose Maria Arrastio Agerralde eta Carmen Larraburu Gaztanbide senar-emazteak
- Bittori Arrastio Agerralde



Bittori Arrastio. Donamaria.

DONEZTEBE

Txema Aldaberen laguntza izan dugu herri honetan.

Lekuko hauekin egon ginen:

- Mattin Telletxea Sarratea
- Domi Zugarramurdi Zozia
- Salvador Apeztegia Petite
- Fernando Sarratea Arrupea
- Domingo Mindegia Garro eta Ramonita Mindegia Garro anai-arrebak
- Patxiku Arregi Elorga eta Julia Arregi Elorga anai-arrebak

ELGORRIAGA

Herri honetan, Ane Otxandorenaren laguntza izan dugu.

Lekukoak:

- Migel Telletxea Gorosterrazu
- Severiano Urroz Saldias
- Jose Javier Telletxea Ibarrola
- Maria Teresa Ibarra Mariezkurrena eta Lupe Ibarra Mariezkurrena ahizpak




Pakito Telletxea. Eratsun.

ERATSUN

Bittorio Lizarraga izan dugu laguntzaile.

Lekukoak:

- Julito Retegi Petrikorena
- Julian Retegi Petrikorena
- Pakitto Telletxea Bazterrika
- Migel Deskarga Bengotxea eta Jesus Deskarga Bengotxea anaiak
- Migel Ramon Deskarga Elizalde



EZKURRA

Gure laguntzailea Fernando Etxeberria izan da.

Lekukoak, berriz, honako hauek:

- Fermin Apeztegia Telletxea
- Martin Noble Zabaleta
- Migel Joakin Noble Telletxea
- Lazaro Gastearena Telletxea
- Pantxito Gorostiaga Eskala
- Rosario Gorostiaga Eskala
- Jaime Rodriguez Lopez eta Maritxu Lasarte Noain senar-emazteak



Pantxito Gorostiaga. Ezkurra.



Manuel Bazterrika. Ituren.

ITUREN

Mattane Lakarrek, Joxe Inazio Etxepeteleku Ariztegik eta oro har herriko jendeak lagundu gaituzte.

Lekukoak:

- Mikela Etxeberria Hernandorena
- Cesareo Irigoien Hualde
- Periko Altxu Fagoaga
- Manuel Bazterrika Elizalde
- Migel Erasun Mindegia
- Maribi Elizalde Amigorena

LEGASA

Antonio Hernandorena eta Aurora Arretxea izan ditugu laguntzaile lanetan.

Lekukoei dagokienez:

- Migel Hernandorena Etxepare
- Txentxa Hernandorena Etxepare
- Joxe Hualde Iriarte
- Pakita Mikelarena Sarratea

NARBARTE

Jesus Goldaraz izan da gure laguntzailea.

Hona hemen lekukoen zerrenda:

- Pakito Ibargarai Pescador
- Mari Carmen Iriarte Gamio
- Maria Agirre Gamio
- Klarita Arretxea Ibarra
- Manuel Ziganda Goñi eta Anttoni Ziganda Goñi anai-arrebak

OIEREGI

Andres Etxenike Bertizaranako alkatea izan da gure laguntzailea.

Lekukoak, berriz, honako hauek:

- Joxe Mindegia Arregi
- Juan Andresena Etxeberria
- Patxiku Telletxea Arregi
- Migel Zamora Arruti



Karmen Iriarte. NARBARTE.

OITZ

Mari Jose Larraiozek lagundu gaitu.

Lekukoak:

- | | |
|-----------------------------|----------------------------|
| –Juan Jose Ziganda Ariztegi | –Juan Pedro Goñi Telletxea |
| –Patziku Lizasoain Ezpeleta | –Migel Urroz Arrastio |
| –Juanito San Miguel Urroz | |



SALDIAS

Txema Aldabek lagundu gaitu.

Lekukoak honako hauek dira:

- | | |
|-------------------------------|----------------------------------|
| –Martin Mutuberria Erasun | –Periko Urrutia Grajirena |
| –Celestino Mutuberria Mitxeko | –Mercedes Juanenea Lasarte |
| –Basilio Erasun Elizalde | –Martin Joxe Telletxea Baleztena |
| –Jose Urrutia Grajirena | –Martin Mitxeko Baleztena |



SUNBILLA

Juanjo Ibarra aritu da laguntzaile.

Lekukoak hauek dira:

- Alejandro Juankorena Agesta eta Carmen Sedano Ibarra senar-emazteak
- Jose Mari Jorajuria Arretxea
- Euxtakio Mutuberria Jorajuria
- Frantxiska Iriarte Nabaz eta Jesus Ibarra Bertiz senar-emazteak

Euxtakio Mutuberria bideokameraz hartu genuen, eultza bat egiten. Ttipi-Ttapa Telebistako langileek egin zuten bideo-muntaketa.

URROTZ

Mari Jose Larraioz eta Josune Lazkano izan ditugu laguntzaile.

Lekukoak:

- Bittoriano Arzuaga Saldias
- Rosa Telletxea Arozena
- Nati Telletxea Juanena
- Serapi Aldabe Mitxeo
- Lucio Juanena Telletxea

Bittoriano Arzuaga bideokameraz grabatu genuen lezka belarrekin aulki baten ipurdia egiten zuen bitartean. Bideoaren muntaketa Bihotz Unanuak egin du.

ZUBIETA

Txema Aldabek eta Fausti eta Filo Juanikorena ahizpek eman digute laguntza herri honetan.

Honako lekuko hauekin egon gara:

- Patxiku Juanikorena Mutuberria
- Juanita Ibarra Indakoetxea
- Frantxixka Etxeberria Gastearena
- Joxepa Loiarte Elizalde
- Rufina Elizalde Sansiñena
- Santiago Hualde Indakotxea
- Manuel Elizalde Elizalde

Gainera, Joxepa Loiarte bideokameraz grabatu genuen, ukendu bat egiten. Bideoaren muntaketa lana Bihotz Unanua Xaloe Telebistako langileak egin du.



Nati Telletxea. Urrotz.




MALERREKA

Malerreka, liburu honetan, 13 udalerri osatutako eskualdea da. Ezkurako goieneko lurraldetik, aspaldiko Basaburu Txikian, Bidasoa ugalderaino, Baztan eta Bortzirietako mugen artean. Baina, historikoki, Malerreka izena ez da erabilia izan. Gure eskualdea bi ibar handitan banatua zegoen: Basaburu Txikia (Ezkurra, Eratsun, Saldias, Beintza-Labaien) eta Santesteban de Lerin izenekoa (Bertizarana, Elgorriaga, Ituren, Oitz, Urrotz, Doneztebe, Sunbilla, Zubieta eta Ibargoiara). Ibargoiaran, berriz, Donamaria, Artze, Askarraga, Gaztelu eta Igurin herriak sartzen ziren.

Eskualde homogenea da, Iruñeko merinerriko atlantiar isurialdean kokatua. Hirigune ez oso handiak, eta baserriak edo bordak han eta hemen barreiatuak daude.

Klima atlantiarra, euri ugariak eta gorabehera termiko samurrekoa. Pagoak, haritzak, gaztainondoak, lizarrak eta urritzak dira eskualde honetako ohiko arbolak. Oihan berrietan, aldiz, pinuak eta haritzak dira.

Jarraian, udalerri bakoitzaren berri laburra emanen da, *Nafarroa Toponimia eta Mapagintza* liburu bilduman oinarrituta.



BERTIZARANA

Bertiz, Legasa, Narbarte (herriburua) eta Oieregi herriek osatzen dute, eta Erreparatzea, Santa Leokadia, Tipulatze eta Zeberia auzoek. Udal mugapeak 38,9 kilometro koadro ditu. Bidasoa ugaldeak ekialdetik mendebaldera zeharkatzen du, eta bi zatitan banatzen du. Herriak haren inguruan daude eraikiak. Industria etorri baino lehen, abeltzantzari emana zen arras, eta lurzoruko produktioa ere horretara bideratua zen.

1860ko erroldan 1.056 biztanle ageri dira, baina gero beheiti egin du (869, 1900ean; 754, 1940an; 557, 1970ean), industria etorri arte (585, 1981ean; 659, 1992an, eta 689, 2004an).

DONAMARIA

Udalerrri hau Donamariako karrikak (Usarrea deitua) eta Gaztelu, Artze, Iguin eta Askarraga auzoek osatua dago. Udal mugapeak 23,6 kilometro koadro ditu. Herriaren izena “Dona Maria” gisa agertzen da agirietan, izan ere, euskal bertsioa gailendu zaio erdarazkoari, hau ere noizean agertzen bada ere: “Sancta Maria” (1366. urtean). XVI eta XVII. Mendeetan, “Ibargoia” eskualdean sarturik ageri da.

1860an 733 biztanle eta 1900ean 623 izanda, bizilagun kopuru aski egonkorra izan zuen XX. mendearen lehen erdialdean. Gainbehera 1960an hasi zen (567 lagun), 1992ko erroldan 355 egiteraino. 2004an, berriz, 414 zituen.

DONEZTEBE

Udal mugapeak 9,1 kilometro koadro ditu. Hirigunea zelai batean kokaturik dago, Ezkurra ugaldearen eskuinaldean, ugalde hori Bidasoara isurtzen den tokitik hurbil.

Haren kokalekua dela eta, Erdi Aroan ibarreko herriburua zen bezala, eskualdeko merkataritza eta josteta gunea da gaur egun. XIX. mendera etorritik, honelako industria zuen: “bi buztinola, herri guztia baxeraz hornitzen dutenak”, irin-erota bat, maiatzeko eta azaroko feriak eta bi merkatu, behi eta ardi aziendak bereziki. 1860ko Nomenklatoreak hauek dakartza: “Batanekea” etxe-pilategia, teileria bat eta baita kisu-ola bat ere.

Mende honetako garapen ekonomiko eta demografikoa hirigintzan ere islatu da. XX. mendeari 646 bizilagun zituela eman zion hasiera; 1.061 zituen 1981ean, 1.125 1992an, eta 1.479, berriz, 2004an.

ELGORRIAGA

3,9 kilometro koadroko udal mugapea du. Ezkurra ugaldeak mendebaldetik ekialdera zeharkatzen, eta bi zatitan banatu. Herria 144 metroko garaieran dago, ugaldearen ezkerrean.

Erdi Aroan, erregeren eskupeko laborari petxeroen bizileku gisa ageri da. 1860ko Nomenklatoreak Landabereko irin-erota aipatzen du. Julio Altadillek, XX. mendearen hasieran, industri jardueren berri eman zuen, honela: “gatza lurrinketa bidez eskuratzea; eraikuntzarako zura, egurra, egurrikatza, argindarra, harrobi batzuk, eta lur hotzak ongarrizko gisu-labeak”. Halaber, ostatu eta errota aipatu zituen, eta bainuetxea goretsi. Hango egoitzak eta tratu bikaina deskribatzen dira, eta uren biziberritzeko ahalmena goraipatzen da.


1860ko erroldak 264 biztanle zekartzan; 1900koak, berriz, 209; 1950ekoak 173, eta 1992koak 182. 2004koak, azkenik, 225.

ERATSUN

Basaburu Txikia deitzen den ibarreko ekialdean zegoen, entitate horretatik Udal burujabea izateko bereizi zen arte (1845), Urrutiña “herrixkarekin” batera. Udal mugapeak 25,3 kilometro koadro ditu. Ezkurra ugaldeak mugapea zeharkatzen du hego-mendebaldetik ipar-ekialdera.

“Eratsun Igoa” trikuharria dago herrian, harrespil batzuk ere badira, eta zutarri bat. Burdingintza antzina-koa da. XVII. mendearen hasieran, Juan de Loiarte zen burdinolen jabeetako bat. Berrehun urte geroago, Iturbietako burdinola nabarmentzen zen. Urtean mila eta bostehun kintale burdina baino gehiago lantzen zituen, baita erregeren itsas-armadarako iltzeria ere. 1860ko Nomenklatoreak San Martingo meatzea, Zumarrista burdinola, irin-errotak eta Santa Barbara ermita aipatzen ditu.

1350ean 17 sutondo zituen. 1860an, 576 biztanle zituen. XX. mendearen lehen zatian 464 (1930) eta 507 (1950) inguruan egonkortu ondotik, beheiti egin zuen gero. 1992ko erroldak 195 zekar-tzan eta 2004koak 174.



EZKURRA

Tradizioz Basaburu Txikia deitu izan den ibarreko hiribildua. Mugapeak 24,2 kilometro koadro ditu. Herria sakonune batean kokaturik dago; Ezkurra ugaldeak mendebaldetik ekialdera ireki duen bi aldeetako mendien artean.

Iruñarri izeneko zutarria eta Ezkaingo Lepoko harrespila daude Eratsungo mugapetik hurbil. XVIII. mendearen hondarrean, marragako ehundegiak eta bi irin-errotak zeuden. 1860an Astoitza eta Sagardiko errotak ari ziren. Bost sutondoko biztanleria -bostak laborari- zuela agertzen da 1366an. 1860ko Nomenklatoreak 641 biztanle ekartzen ditu. XX. mendeari 443 biztanlerekin eman zion hasiera, eta 552ra ailegatu zen 1950ean, 267 1992an. Gaur egun, erroldan 200 ageri dira (2004).





Ituren.

ITUREN

Hiribildu hau Malerrekan dago, lehengo “Valle de Sant Esteban”, “Valle de Lerín” edo “Cinco Villas de Sant Esteban de Lerín” deitu izan den horretan.

Udal mugapeak 15,4 kilometro koadro ditu eta lau auzunetan banatua dago: Ituren, Aurtitz, Latsaga eta Ameztia. Iturenen dago mendirik ezagunena, Mendaur (1.135 m), gainean Trinitatearen ermita duena. XVII. mendearen hasieran “Bazarrelecuá” izeneko larrainean biltzen ziren, bertzeak bertze, parrokiako erretorea hautatzeko. Herria Ezkurra ugalde ertzean dago, 225 metroko garaieran.

Nafarroan oso ezagunak dira hemengo inauteriak. Joaldunak (joare-dunak) dituzte protagonista: landen gaineko arao erritua antzetzuz, eliza jantzien hista egiten dute beren janzkeraz: “alba” soine-ratzen dute, eliz-kapa (“narrua”) eta mitra (kono itxurako “tunturroa”, kolorezko xingolez apaindua) jantzen dituzte, eta eskuan “isopua” eramaten.

Ituren 1350ean agertzen da, 25 sutondo dituela, eta 14 Aurtitzek. Biztanle kopurua urrituz joan zaio XX. mendean: 638 zituen hastapenean; 553, 1950ean; 444, 1981ean, eta 485, 1992an. 2004an, berriz, 472.

BEINTZA-LABAIEN

Basaburu Txikiko udalerri honek 17,2 kilometro koadro ditu eta bi herrik osaturik dago, Ezkurra erreka banandurik: Beintza eta Labaien.

XIX. mendean bi irin-erota zeuden (berria eta zaharra), teileria bat, Salvatore ermita eta 17 borda. Urte hartan, Beintza Labaien erraten zitzaion oraindik udalerriari.

Erdi Aroan Beintza eta Labaien banandurik zeuden. 1350ean Beintzak 20 sutondo zituen eta Labaienek 24. 1366an gutxiago ziren: Beintzan 8 eta Labaienen 9. XX. mendean biztanle kopuruak erdira egin zuen: 669, 1900ean; 537, 1960an; 281, 1981ean, eta 318, 1992an. 2004an, berriz, 264.

OITZ

Santesteban de Lerin ibarretik bereizi zen 1845ean, udal burujabea izateko. Mugapeak 8,3 kilometro koadro ditu Ezpelura ugaldearen inguruan.

Jaurgopean egona da Erdi Aroaz geroztik. 1427an bi familia noble bizi ziren han eta hainbat laborari familia. Jaurgo egoera horrek XIX. mendera arte iraun zuen.

1860ko bi irin-errotetarik bat Agirreko jauregiarena zen. Orduan 190 bizilagun zituen. XX. mendearen hasieran biztanle kopuruak beheiti egin zuen, eta gero goiti, 1940an 218 egiteraino. 1992an, berriz, 160 ziren eta 2004an 151.

SALDIAS

Lehengo Basaburu Txikiko hiribildu eta udalerria, 9 kilometro koadro dituena. Ezkurra ugaldeak hego-mendebaldetik ipar-ekialdera zeharkatzen du.

Azango Mehakan trikuharria dago, tumulu zirkularra duena.

1800 urte inguruan 320 lagun bizi ziren orduko 30 etxeetan. Irin-erota bat zuen eta Andre Maria Doloretakoen ermita. Julio Altadillek San Antonio Abadearen ermita ere aipatzen du. XX. mende hasieran, “Carrara Español” elkarteak harrobietan marmolez egiten zuen ustiapena zen industri jarduera nagusia.



Iturengo udaletxea.

1860an 652 biztanle zituen, eta 1.034, berriz, 1900ean. Mila ingurutan egon zen 1950a arte. Gero beheiti joan da: 657, 1980an, 171, 1992an eta 126 2004an.

SUNBILLA

Malerrekako hiribildua, 1280an “Husumbil” idatzita agertzen da. Udal mugapeak 46,6 kilometro koadro ditu, eta Bidasoa ugaldeak hegaldetik iparraldera zeharkatzen du, mendi arteko mehargu-neen artean beheiti.

XIII. mendean laborariak zituen biztanle, Koroari petxak dirutan ordaintzen zizkietenak. 1350ean, 23 sutondo zergapean zeuden.

1860ko Nomenklatoreak 102 bordaren izen zerrenda zekarren, bertzeak bertze, “Palacio de Subizar” delakoarena. Orduan, 1.160 biztanle zituen, eta milatik goiti egon zen 1960 arte (951 bizilagun). 1981eko erroldan 657 ageri ziren, 1992an, berriz, 703 eta 2004an, azkenik, 660.

URROTZ

Herri hau Malerreka edo “Santesteban de Lerín” ibarraren barnean dago. Udal mugapea (12,3 kilometro koadro) hegaldetik iparraldera luzatzen da.

Erdi Aroan laborari petxeroak zituen biztanle. 1366an 5 familia baizik ez ziren bizi. Nafarroako 1860ko Nomenklatorean eraikin hauek agertzen dira: irin-erota, teileria, benta, ermita -San Antonio, gaur egungo San Kristobal nonbait- eta borda batzuk. XX. mendean biztanle kopurua 330 lagun inguruan egon da. Azken hamarkadetan, berriz, beheiti egin du (198, 1981ean, 207, 1992an eta 187, 2004an).



ZUBIETA

Udal mugapeak 18 kilometro koadro ditu, eta Ezkurra ugaldeak ipar-mendebaldetik hego-ekialdera gurutzatzen du. Herriak bost auzo ditu gaur egun: Amezitia, Aurkidi, Azkota, Mendrasa eta Sarekota.

Erregeren eskupekoa izan zen; herritar laborariek urteko petxa ordaintzen zioten Koroari. XVII. mendean bada hemen olagizonen berri.

Nafarroako folkloreaken barnean, ospetsuak dira Zubieta eta Iturengo inauteriak. Protagonista nagusiak joaldunak dira; arropa bitxiez jantzita, eta kolore anitzetako xingolez apainduriko txano konikoak buruan daramatzatela (ttuntturroak), karrikaz karrika eta bidez bide joaten dira bi ilaratan, beren bizkarrei lotutako joareak jotzen dituztela denek batean.

Biztanleriak beheitira egiten du etengabe: 527 lagun (1900), 606 (1920), 576 (1950), 407 (1970), 324 (1980), 326 (1992) eta 292 (2004).



Ahozko testuak transkribatzeko irizpideak



Ahozko testuak idatziz eman ditugu lan honetan, eta, horretarako, behar-beharrezkoa da aldeztu aurretik testuak transkribatzeko irizpideak finkatzea.

Ez dago ahozko testuak transkribatzeko arau orokorrik; euskalki eta hizkera bakoitzak bere ezaugarriak ditu, eta zaila izanzen litzateke horientzat guztientzat irizpide bateratuak erabakitzeko. Beraz, lan honetarako egokien iruditu zaizkigun irizpideak aukeratu ditugu guk gerok, testuak erarik ulergarrienean eta Malerrekako euskararekiko nahiz hiztunak erraten duenarekiko ahalik eta modurik fidagarrienean adieraziz betiere.

Erran bezala, transkribatu beharrekoa hizkuntza mintzatua da, eta hori anitz urruntzen da idatzizkotik. Hizkuntza mintzatuak berezko ezaugarriak ditu, eta gehientsuenak lastertasunari loturik daude. Nolabaiteko kaotikotasuna dakar horrek, errate baterako: inkestariak eta lekukoak batera solas egitea, ahoskera okerrak sartzea, gauza bat pentsatu eta gogora bertze bat etortzean bi ideiak nahastea, zenbait hots galtzea, kontakizun bat irriz kontatzea, eta abar. Horiek guztiak oztopo dira zenbaitetan erraten dena ulertzeko, eta, horrenbertzez, transkribatzeko ere zailtasunak dakartzate.

Zailtasunak zailtasun, honako hauek dira Malerrekako ahozko testuak paperera ekartzeko kontuan izan ditugun irizpideak:

• Letra mota

Letra arrunta erabili dugu lekukoaren testua emateko.

Letra etzana, berriz, alde batetik, inkestari(ar)en galderak adierazteko erabili dugu; bertzetik, hiztunak erdaraz tartekatzen dituen hitzak eta esaldiak ere letra etzanean eman ditugu. Dena den, letra arruntaz agertuko dira hiztunak erabat barneraturik eta bere hizkeran nolabait lexiskalizaturik dituen hitzak edo egiturak, bertzeak bertze: *pues, eske, este, esto, bastante, osea(ke), klaro, yasta, asike, aparte, segun, igual, bueno, porejemplo...*

Bertzalde, euskararen sisteman arrunt sartuak dauden erdal hitz eta egiturak letra arruntean eman ditugu: *setienbren, otubren, kuarentaizinkon, trentaiseisin...*

Letra lodia, aldiz, lekukoa ez den bertzeren bat elkarriketara sartzen delarik, hari dagokion laburdura edo izendapena emateko erabili dugu:

Ink. (inkestaria)

Emaztea

Senarra

Ahizpa

(...)

Inkestariarena izan ezik, bertze guztiek errandakoak letra arruntean idatzi ditugu.

• Ikurrak eta ortografia

Parentesiak erabat gauzatu ez den hotsa adierazten du; hotsa aditu bai, baina ez guztiz: *auts(e)kin, Doneztu(k)o, erreg(o)lo...*

Claudatorra erabili dugu hitz baten barnean hotsa aditu ez, baina hitzaren erranahia ulertzeko beharrezkoa denean: *maixterrak* [g]iñen, *sartu* [be]arra, *e[z]xakin*, *kontesten genun gu[k]*... Horretaz gain, egoerari buruzko zenbait azalpen eman dugularik ere, claudator artean eman dugu hori, testuaren lagungarri izateko asmoz: [irriz], [indarrez], [apal]...

Komaxo bakuna ageri da bi hitzen mugan nahiz hitz baten barnean bokal edo silabaren bat erortzen denean: *berot'suna* 'berotasuna', *lagunduk'izula* 'lagunduko dizula', *kartz'zo* 'ekar eza-zu', *tz'zuten* 'zizuten'... Baita "baldin ba-", "behar" eta "bait" partikulekin eraturiko egitura hauetan ere: *bali'mazu* 'baldin baduzu', *bali'maziñun* 'baldin bazenuen', *izamer* 'izan behar', *i'-mar* 'egin behar', *artzemaito* 'hartzen baitu', *ibiltz'emaitzen* 'ibiltzen baitzen'... "Bat" zenbatzailerak eragindako aldaketetan ere komatxoa erabili dugu: *gizomat* 'gizon bat', *mandomateri* 'mandoren bati', *bakarre'mat* 'bakarren bat'...

Gure belarriak lekukoak errandakoa ulertu ezean, ____ marra agertzen da transkribapenetan.

Ez dugu [h]-rik idatzi, Malerrekako euskararen ez baita ahoskatzen. Ez dugu ahaztu behar bertze hizkera batzuetan ahoskatu egiten dutela hots hori.

/y/ ahoskatzen da Malerrekan [j] hotsa; beraz, [y] grafia erabili dugu gehienetan: *yoan*, *yan*, *yakin*... Baina, gaztelaniazko hotsa adierazteko, [j] jo dugu egokientzat: *bajatu*, *sarjento*, *reljio*, *trajia*...

[ll], [ñ], [tt] eta [dd] erabili ditugu bustidura adierazteko: *puntillikin*, *alletu*, *mallukin*, *gañin*, *aitziñin*, *oñazik*, *baittugu*, *ttiki*, *geldittu*, *bilddu*, *onddua*...

Aditz nagusia eta aditz-laguntzailea bereiz eman ditugu. Baina, batzuetan, biek osagai bakarra eratzen dute; horrelakoetan, elkarrekin idatzi ditugu: *erraunte* 'erraten dute', *zateunte* 'izaten dute', *kobratzeunte* 'kobratzen dute'...

Aditzari "ez" partikula eranstean sortzen diren egitura hauek ere elkarrekin idatzi ditugu: *etzen* 'ez zen', *etzun* 'ez zuen', *enakin* 'ez nekien', *eztakit* 'ez dakit', *ezpazuten* 'ez bazuten', *ezpaitzen* 'ez baitzen'...

Izenak berezko artikulua galtzea da Malerrekako euskararen ezaugarrietarik bat. Horrenbertzez, honela adierazi ditugu horiek: *gauz ori*, *sepultur ori*, *paet ura*... Baina, berezko artikulua ez den bertze bokalen bat erortzen denean, hura claudator artean ematea erabaki dugu: *olk[o]* *kazul bat*, *kuadr[o]* *ura*...



LIBURU HONETAN AGERTZEN DIREN GAIEI BURUZ

Liburu honetan aintzat hartu diren gaiak ez datoz beti bat Maite Lakarrek eta Amaia Apalauzak jatorrizko bilketan egindako gai sailkapenarekin.

Ez da ahaztu behar bi egileek, Malerrekan hamasei hilabetetan lan egin ondoren, ikerketa sakona burutu dutela. Argitalpen honetan, berriz, bi ordu aukeratu dira bakarrik eta, beraz, gaien sailkapena berrantolatu behar izan da hautatuko testuak koherentziaz ager daitezen. Hau da, argitalpenean agertzen diren grabazioak ahalik eta modurik egokienean sailkatu dira testuen irakurketa eta entzuketa errazteko asmoarekin, beti ere jatorrizko sailkapena oinarritzat hartuz.

Ondorengo lerroetan Amaia Apalauzak eta Maite Lakarrek erabilitako sailkapena erakusten da garbi gera dadin bi egile hauek aitzinera eraman duten lanaren handia.

Egileek erabilitako sailkapena ez da hutsetik abiatu. Materialak biltzea lan gaitza bada ere, ez da samurragoa izaten bildutakoa ongi antolatzea. Erran beharra dago berriki Maite Lakarrek eta Nora Iriartek burutu duten Bortzirietako Ahozko Tradizioa biltzeko saioa izan dutela oinarrian. Zenbait ideia lan horretatik hartu dira (gaien sailkapena nola egin, kodeak...), baina Malerrekako lana egin ahala berrikuntzak eta aldaketak eginez beti ere, lanaren beharren arabera. Horrela, alde batetik, elkarrizketa guztiak etiketatu egin dira, eta bertzetik, pasarte interesgarri anitz transkribaturik gelditu dira. Ondorioz, egileek datu base orokor eta txukun bat osatu dute. Bertan, egindako elkarrizketa guztien inguruko informazioa aurki daiteke, eta errate baterako edozein grabaziotan jorratzen diren gaiak minutuz minutu zein diren zehazki azal daitezke.

Azkenik, hurrengo lerroetan azalduko ditugu egileek jatorrizko lanean erabilitako zazpi atal nagusiak:



1. Etxea-familia: eguneroko bizitza

Etxeari loturiko gaiak (egitura, sukaldea, ura eta argia, ohiturak...); bertan sortzen diren harremanak; gorputza, arropa (lixiba) nahiz etxearen garbiketa; janzkera eta orrazkera (lihoa eta artilea barne); elikadura (eguneroko zein besta egunetako otorduak, ogia, zerri hiltzea eta mondongoak, esnekiak, errezetak...) eta denborari buruzko jakingai guztiak (ordu zaharra...) biltzen dira atal honetan.

2. Herriko bizitza: harremanak, legeak...

Hemen, Malerrekako biztanleek inguruko herriein duten harremana (haserrealdiak, hizkeren arteko ezberdintasunak edota xixeroak barne); gizarte barneko ezberdintasunak (maizterrak, agotak...); bizilagunen arteko jarduerak (auzolana, gisua, teilak...); Herriko Etxea eta bertze erakunde batzuk; pertsonaia bereziak; toki berezi zenbait (Bertiz, Asura, Erreparatzea...) eta euskararen eta erdararen arteko harremana nolakoa zen jasotzen dituzten gaiak aurkituko ditugu.

3. Bizitzaren faseak

Edozein pertsonaren bizitzan dauden faseak biltzen dira atal honetan: sortzea eta bataioa (ama ezkongabeak, teila buruan eraman beharra, elizan sartzeta, atso bisita...); haurtzaroa (jostetak, zotz egiteko moduak, hizkuntza formulak, asmakizunak, burlak...) eta gaztaroa; ezkongaiak, ezkontza, senar-emazteak eta ezkongabeak (pregoia, arreo eta dotea, ezkontza tratuak, ezkontza eguna...) eta heriotza (ohiturak, lutoa...).



Bandera-dantza Doneztebeko eliz atarian.

4. Ekonomia

Laugarren atal honetan, alde batetik, lana, lanbideak eta zaletasunak ditugu (nekazaritzari loturik daudenak, onddoak etab., ehiza eta arrantza, artisauak, ikazkinak, bertzelako lanbideak...). Bertzetik, industria (fabrikak, zentralak eta trena); kontrabandoa, feriak eta merkatuak hizpide dira.

5. Historia eta politika

Gerrak (1936koa, haren ondokoak, karlistak, bertzelakoak...); soldadu garaia eta herriko istorio politiko zaharrak bilduak daude.

6. Kultura

Erljioaren barnean sailka daitezkeen gaiak (apezak eta mojak, serorak, monagilloak eta sakristauak, ezkilak, ohiturak...); eskola; urte guztiko besta egunak (eguberriak, inauteak eta bertze batzuk); aisialdia (ostatuak, musika, kirolak eta apustuak, dantzak...); musika (mota guztietako bertsoak eta kantak...); sinesmenak (sorgin, lami eta jentilen istorioak, animenak, animalienak, eguraldia asmatzeko moduak, ilargiaren eragina, bertzelako sinesmenak...); ipuinak eta legendak; irri egiteko kontakizunak; eritasunak eta erremedioak... eta baita erran zaharrak ere aurki daitezke kulturaren barnean.

7. Kontu berriagoak

Malerrekako jendearen bizitza osatzen duten arlo guztiak biltzen ahalegindu gara eta erran beharra dago neurri handi batean lortu dugun arren, zenbaitetan lan zaila izan dela. Errate baterako, oikonimia eta toponimiaren bilketa garrantzitsua bada ere, guk nahiko bazterturik utzi dugu. Oikonimoak biltzen hasi ginen, izan ere, Oieregin, Narbarten, Legasan eta Sunbillan bildu genituen. Dena den, Doneztebetik aitzinera lan hori bertan behera uztea erabaki genuen, jendeak ez baitzituen etxe guztien izenak ezagutzen. Gainera, adineko jendeari aunitz kostatzen zaio izen guztiekin oroitzea eta guretzako ere lan neketsua da. Baina lan hori egin beharra dago, toponimian eta oikonimian izugarritzko altxorra baitago eta gure proposamena bilketa hau egiteko taldetxo bat sortzea da. Bertzalde, literaturaren arloan, bilduma polita osatu dugula erranen genuke, baina nolanahi ere, biltzea gehien kostatzen den atala da gure ustetan. Hitzun batzuk kantatzera animatu zaizkigu, eta kanta sail polita dago bildurik, baina gehiago ere izan zitezkeen. Ipuinekin, sorginen istorioekin, lamiekin, erran zaharrekin... gauza bera gertatu zaigu. Lotsagatik batzuetan, momentuko memoria faltagatik bertzeetan, zaila izaten da horiek jasotzea. Dena den, pozik gaude emaitzarekin. Gainerako atalak ongi osaturik gelditu direlakoan gaude.

EGUNEROKO BIZITZA

Eguneroko bizitzari buruzko lau gai aukeratu ditugu liburu honetan: etxeko suaren garrantzia, sotopilak, ordu zaharra, eta gizonezkoek emakumezkoek emandako tratu txarra.

1.1. Etxeko sua

Sua etxearen funtsa izan da beti. Orain, elektrizitate eta bertze energia iturriak direla eta, sua apaingarri hutsa bilakatu zaigu etxe anitzetan. Hala ere, gure herrietan suak izandako garrantziak bizirik dirau eta horri buruzko leku-kotasun ugari bildu dira.

Sua nola piztu



Tximinia apaintzeko "alasa" papera. Urrotz.

GURE HITZAK

Kardua: Ardagaia. Zuhaitz batzuen azalean bizi den onddo bizkarroia, sua pizteko erabilia (*Fomes fomentarius*).

Illupa: Ilupa. Ile txikien multzoa. Hondarrak izaten dira, haizeak mugitzen dituen.

Xordoki: Surdoki (Azkue). Su-karriarekin jotzerakoan txinpartak ateratzen dituen burdinazko tresna.

Eruk tzun: eduki zuen

Karduakin sua bixtu, ori baguk zuten du kardu ori, eta kardu ori itten zun atautxik... autsikien egosten zun, bueno... eltze batin paatu ta autsa. Eta gero, bi egunez **eruk tzun** irakitten, eta... geo paatu zun sabarin, atin ondun, bai iruzkin da aize korrientin idortzen. Ta idortzen zeliken tzun mallukin xanpa-xanpa egiñ ure, ta aren **illupa** ure da, barrengo illupa ori artu, guata bezala izaten du... artu, ta arri koxkor batin gañin paratu, ta **xordoki** erraten zion burni bati, aekin yo ta xixpa atetzen tzuliken, xingiruen itxektzn zen kardu artan. Ta arekin bistutze zun zigarrua.

(Urrotz)

Ettxeko sua berritzea

Pazko bezperan goizin zatn tzen meza. Meza orretan itten giñun, atarin sua itten giñun eta su bedeinkatu, eta gero barrene sarto elizara ta elizan ura bedeinkatu. Bueno, oaiñ ere bedeingatzen duu ura, e! ta bedeinkatzen giñun. Eta gero, meza ori **manta**, itten zuten eskolako umi[k] tenak, monagillukin, itxes itxe ibiltzen tziren, eramtten tzuten... batek eramtten tzun gurutzia, beste batek eramtten tzun ura (...), eta bestik eramtten tzun zaria. Eta, itten tzuten, itxe bakotxin sartzen tzeren, kua... ori, gela guzietan ura botzen tzun monagilluk. Iru monagillo sartzen tzeren, ta ura botn tzuten **isopo** orrekin, eta gurutzi ari musu matten tzaion. Eta gero main tzoten... batzuk man zoten entxaurre, beste batzuk sagarrak, beste batzuk naranjak, edo dirua, dena ola... ta ordun zare artan sartzen tzuten aiek. Ta akitzen zuten denboran... itten tzen, da yuaten ziren mingo elizan ez takitt oiñ alletu baz... ez, gaizki esan dut gañera, itten tzuten emen ostatun bazen lenogo, kontseju satn tzioten, ara yuan, ta an partitn tzuten bilddu zittozten guziak, an zanttu zerenak... denari partittu, arrautzik ere ematten tzeren, urdai puskak ere bai... [irriak] eta kantatn zuten (...) “egun ttun-ttun”:



Lurreko sua. Goikoetxea, Eratsun.

“Egun ttun-ttun
biar ttun-ttun
etzi aren
ondar aren
izateko ku... ttunttuna.
*Vamos, vamos todos
entraremos tres,
una limosnica
por amor de Dios.*
Pizarrak egitteko

zingarra puska bat
arekin jateko
ogi bazterki bat.
Aingeruak [g]era,
Zerutik eldu gera.
Boltsa badegu
dirurik ez,
nai badezu eman ta
nai ezipazu ez”.

Orixe kantatn tzuten itxez itxe (...).

Sua ta ura eramtten ginttun itxera, bai. Eta klaro, gero, paratzen tziñunin gurutzi ta erramua, ur orreta botn tziñun alorrin. Emen nola... [irriz]

Ink.: *Eta su ori sartzeko itxera, sartu bar tzen leiotikan, o...?*

Ez, su uri... itten tzen sotora alletzekin i'mar ziñun deitt... “Ai Maria”, ordun “Ai Mari(a)” itten tzen, gaur ezta itten miño...

Ink.: *Zer da “Ai Maria”?*

Deia (...). Eta “Ai Mari(a)” itten tzen, eta, ordun atetzen tzen itxekandrea normalki, klaro, teko zen eta... sukin tortzn tzen. Ordun itten tzun, tor tzenin itxekoandrik artuko zun... itxin dagon autsetikan... o brasa igual suetun bazagon, brasa, normalki ur... su **zann tzen**. Ordun itn tzun zu artik artu puska bat, burtziña saten giñion guk pala... san tzagun guain, orrekin... eta itten tzun leiua ideki sukaldekua ta leiotik kanpora bota ora. Ta ura bota ta gero yuaten tzen ta kartzen tzun, karri zu... bestik karri zun su ura, ta ura bota sura (...). Ta ori zen sua berritzia, urteko su be... berritzia.

(Zubieta)

GURUTZIAK

Isopo: Isipua, ihiztailua. Elizetan ur bedeinkatua jaurtizteko erabiltzen den tresna.

Pizarrak: Apurrak. Hondarrak (haragi pizarrak, arto pizarrak...).

Manta: emanda.

Zann tzen: izanen zen.



Pagadia.

Sua estaltzea

Sua autzarekin estali eta Sunbillan erraten tzuten:

“Santi Laurenti
Nik sua itzali
Gu guatzera
Aingeruak sukaldera”

(Beintza-Labaien)



Migel Urroz. Oitz.

GURE HITZAK

Santi Laurenti: San Lorenzo. Laurenti da euskarazko izen zaharra.

Burtziya: Burtzina, bertzuna, bertzoina. Lurreko sutik errautsak kentzeko pala.

Guatzera: Ohatzera, ohera.

Pala, pala zaten tzen eta... pala kider luzikin tzaten tzen jeneralin, eta... brasa biltzen tzen, tapatzen tzen autsakin, eta gañin paatzen tzen pala ura, tala... o... **burtziya** zun izena. Eta... itten tzen gurutze bat.

(Urrotz)



Labea.

1.2. Sutopilak

Sutopila nola egin azaltzen zaigu hurrengo lerroetan. Sutan (errautsen artean) egindako opila da sutopila.

Sutopilla, bai! Sutopilla... Orrek lana franko izaten tzun. Sutopilla itten tzen emen, lurrego sua nola izatn tzen txe guzitan, ta txapa re bai, sua itten tzen lekuan txapa bat azpin, lodia. Ta uri itten tzen betik berotu, gaiñen su (i)zatekin bero(a) izaten tzen. Ta sutopilla in bear zen, ue dena garbittu txapan gaiñeko bras ore, ta an patu sutopilla ta gero gaiñen bota braxa batzu(k), garbittu, pixkot gorritzeko sotopill ore, axala itt(e)ko. Ta gero, tapatzen tzen autskin dena ore. Ta go, auts(e)kin tapatu braxa aiek, ta bat o bestea xaalt pixtu itn tzazion. Gutxi itten baziñun autsa asko ateatzen tzazion sotopilleri; oañ, pixkot tostutzen baziñun axala braxakin ta istorio, ta gero naiz autsekin tapatu, garbixoo ateatzen tzen. Mño ark ere biar tzun bere denbora (b)at azpiko berot'-sunak, erre... beñ etzenun gerret... sotopilla erreta gelditze zen beti tapia sutopilla.

(Saldias)

1.3. Gizon batzuen agintea

Emakumezkoek jasaten dituzten tratu txarrak ez dira kontu berria, eta, zori-txarrez gure eskualdean ere horrelakoak gertatu izan dira.

Andri bat zen, or Lasagan, e! (...) ta zagon ya enbraz, bete-betian tzagon. Ta gu errotan giñen, eta yuan tziren (...) bei aitziniñ tzabillen nere aizpa bat, eta erran ten etxian ura... gure itxera bialdu mandautura... ogia esto... zaku eske, eta pat tzun bere andria (...).

—Ezta posible ya... —Ma... Maurizio zun gizonak izena— ezta posible Maurizio zerti nik oñazik battut.

—Ez, ez, inxtan batin iñen dugu.

Aizu, bei aintziñera, eziñ aguantuz emakumia aizuz, ta zabal-tzabal eroi zen. Andik eraman zuten, e! ta andik eraman ta ordu kuarton burun aurra zandu zun.

Ta oi... ema... gizon orre[k] perak in tzion, iratz pattera yuan, Pepitto, Alfontso ta Santiago zittun. (...) Ta ama yuan bazkarikin, yarri zin denak bazkaltzeko, aizuz, ta platerak partit xun, ta artu plater, gizonak, ta dixt! bota zun, aizuz. Ta “zoazi eske” andriai erran tzion. Ta nere anaia gaztena an tzen arekin ordun ta erran tzion:

—Ez, nik karko [du]t.

—Ez, zuk ez, erran dut orrek kartzko.

Bi begitik malkuk arraka yuan, ta platera kar zun.

(Ituren)

GURE HITZAK

Sutopilla: Sutopila. Errauts azpian erretzen den gari iri-nezko opila.

Lurrego sua: Beheko sua. Lurrean dagoen sutegia.

Bi begitik malkuk arraka: Negar eta negar. Negar egiteari utzi gabe.



Kriseilua.

1.4. Ordu zaharra

Gero eta gutxiago dira ordu zaharraz, eguzkiarekin batera zebilen orduaz hain zuzen ere, gogoratzen direnak. Urrozko hiztun batek horren berri ematen digu.

Ink.: *Eta ordu zarrana? Ori zer da? Nola da... ordu zarrana?*

Ordu ba... bueno **eguzkiko ordua**, osea, oaingo labak lengo bi ordutan. Ordun bi ordu... bi ordu ta kuar... ta laurden, ola... ollarrak lemizko tokik matten zittun, ta andik laurdenetik laurdenera.

Ink.: *Biño noiz kanbiatu zen ordua? Zuk ezautu duzu...*

A, bai, nik ezaut ut *el año... el año treint... cua... ori...* gerra asi zen treintaiseisin, zagon zerin, **Santiago illautin**, eño... orduan amaitu zun Republikak, osea... martxuk, apillan lemizko egunekeo, bai. Bittarte...

Ink.: *Eta orduan kanbiatu zen ordu bat, ez?*

Ordu zarra leno bai, ordu bat tzaten tzen. Oain bi ordu bezala, oaiñ ordu bat_duzun bezala amekak. Ta egun batez erran tzitten batek, demandan asi zittent ai eburnaz ta...

—**Zozi** Elgorri... —oain kendu ute noski— zozi Elgorriko elizara... ta begi zaz erloju nola dagon... bi ordutan amabik egon die an.

Ta ala zin, bai, ta noski, oi duk lengua: bertikal dago iduzkia, amabi... amabitan dao bertikal.

(Urrotz)



Doneztebeko eliza.

GURE HITZAK

Eguzkiko ordua: Ordu zaharra. Gaurko neguko ordutegiarekin alderatuz ordu bat gutxiago, eta udakoarekiko, berriz, bi ordu gutxiago.

Santiago illautin: Uztaila hila betean.

Zozi: zoaz.

HARREMANAK, LEGEAK...

Atal honetan honako gai hauek aukeratu ditugu: **elkarri laguntzea gure herrietan ezbehar bat gertatzen zenean; Donezteberen garrantzia Malerrekan; herri izenek zer erran nahi duten; herri eta herritarren goitizenak; klase sozialen arteko gorabeherak; agote eta ijitoei buruzko kontu batzuk; eta azkenik Xaldix izeneko pertsonaia baten pasadizo bat.**

2.1. Elkarri laguntzea

Elkarri laguntza ematea da bizitzaren erasoei aurre egiteko modurik hobere-na. Hona hemen adibide bat.

Baldi'mazien suak erreta do zera, ta ordun ya denek zera zu... zuten, maten zuten bakotxak orren-berzeko bat dañundako. Bai, laguzen zen, erri guzia yuntazen zen itxe bat erretzen bazen, erri guzi yuntatzen zen *ayuda* itteko, bai...(..)

Ta, *azinda* porejenplo, azinda bat *erroiztu ta desgrazen* baldin bazen, pues itten zen ura karnizerua karri, garbittu, ta, errin bertan, itxe... baldin bazen tokia modun benpiñen *itxin* bertan partitzen tzun karnizeruk kiloka-kiloka. Eta gero itxez itxe saltzen ibilli, bai. Ta baita, errin ezipazen aski, kan-pura yuaten zen aragia saltzera.

(Elgorriaga)



Ardi muturbeltza.

2.2. Harremana Doneztebekoekin

Doneztebe Malerreka hiriburua dela erran liteke, eta eragina izan du horrek Malerreka bizimoduan.

Doneztebe zen e... *capital*, gu giñen berrizen *caseros*.

Ink.: *Eta burla ta ola iten zizueten?*

Bai, bai, ek erdaraz zakiten da gu ezkiñakin... ek erdaraz. Biño ukerragu zen, uskaraz ez zuten kasi ta erdaraz ere gaizki, gu biño ukerruo... Ta, Doneztu ola eon da beti... gero bizittu dire beti, goiko erri auen kontura, bai. Or lengo zarrak zien famosuk... etxe batin igual mediku zela... bertzin ezta-kit nor ta ya Madrillera bizitzera yuana ta, ek eiñeko *sosa* urrengo jenerazionik, yan in tzun. (...)

GURE HITZAK

Azinda: Azienda. Aberea; haragitako, esnetako... hazten diren abereen multzoa. Azien-da zuriak ardiak dira; bel-tzak, zerriak; gorriak, be-hiak...

Sosa: Dirua. Diru xehea.

Erroiztu eta desgrazen: Amil-du eta "desgraziatzen".

Itxin: Etxean.



Txokolaterak.

Ink.: *Ze arremana ziñuten Doneztebekukin?*

Ink.: *Bestetan ta ola aritzen ziñeten dantzan elkarrekin, adibidez?*

A... Donezte(be)ko neskakin? Ez, ez, ez, ez. Ba, etzien aiko, doneztuarrak a... ya kategori geixigo zuten. Elizondon gauz bera pasatzn zen, e! Bai. Nai zuten *como capital* iñ oiek... Elizondora yuaten giñen dantzan ari pues Arizkungo neskak o Errazukuak o... kanpokukin (...). Ta emen igual, e! emen ere **Doneztu(k)o** neskak an egoin tzien *a verlas venir*. Irun aldetik do nunbaitt kanpoku torri baldima zen pues arekin **yuan tzien**, dantzera, bai.

(Oitz)

Doneztebe “Madrid txikito”

Ta guri irri itten tzigu... guk “adios”erraten deneri, Sunbillin kostunbri ginun “adios”, “adios”. Doneztebera yoan ta guk:

—Adios.

—Adios.

Ta, beñ erran tziun batek:

—Oye, *aquí no se acostumbra a dezir “adios”. Esto es... consideramos Madrid txikito.*

(Sunbilla)



Doneztebeko feriak. Merkatua karrikan.

GUR-ITZAK

Doneztu. Doneztebe. Male-rrekako herri askotan erabiltako aldaera.

Yuan tzien: joanen ziren.



Suan janaria prestatzeko oilarra.

Doneztebe, herri erdalduna

Bueno, nere denboran... uskaldu... erdaldunak, bño guk uskaraz itten gunun dena emen amakin ta attakin ta... yuan giñen eskolara yuxtu-yuxtun ikasi gunun erdaraz, eta itten ziguten irri eskolan... ezkanakigunkoz erdaraz.

(Doneztebe)

2.3. Herri-izenak nondik heldu diren

Herri-izenak egunero ditugu ahoan, baina, anitzetan, ez dakigu zer dagoen haien giblean. Jarraian emanen diren azalpenek ongi erakusten dute jendeak nola ikusten dituen izen horiek.

Donamaria

Ink.: *Eta, Donamaria izena nondikan eldu da? (...) Bazun bertze izena, ez?*

Bai.

Ink.: *Ibargaien, do...*

Dona Mari omen tzen señora bat. Señora ori... orrek omen tzun erriyeri zorra ikaragarriya mana, diru aunditz. Eta, arek erran men tzion **Donamaria** zen **Ibarron**... Ibarro...buru, Donamaria... eta I... Ibarburu zen tokin Donamaria paatzen bazen, Doña Maria men zen ura... koño, aberats orik zaten baitute “Doña”. Eta, aren izena paratzen baldima zen, aren zorra dena debalde utziko tzula. Ta ala, ta du arriyak, mugarriyak an, siglotako mugarrik an daude, mu... Ultzamako ta Donamari-ko muga.

Ink.: *Ta ze patzen du? Ze patzen du?*

GURE HITZAK

Donamaria: Izenaren etimologia “Santa Maria” da, *dona* “san” edo “santa” izanik. Latinezko *domina* ‘andrea’ hitzetik dator.

Ibargoiara: Gaurko Donamaria izeneko udalerriaren izen zaharra.

Ezkanakigunkoz: Ez genekielako.



Donamaria.



Plantxa zaharra.

Ze patzen dun ?

Ink.: *Mugarritan I patzen du, ez ?*

Patzen du, paratzen du a(r)atiko aldetik U.

Ink.: *Ultzama.*

Ultzama. Ta unatiko aldetik I, paratzen du. Ta I Ibarra, ta yaus eziñ egin...

(Donamaria)

Elgorriaga

Guk erraten dugu dela... mendi orrengatik... gorria dela.

Biño Doneztebekuk erraten dute... au *Lazareto* bat bezala zela, miño eztakit (...). *Lazareto* do... e... min gorria... e... izandu zela ta onara bialdu zutela... yendia... ez e... eztakit, zela... leku bat... marjinatua do... ala erraten dute, ez dakit.

(Elgorriaga)

2.4. Epistolak

Ongi paratua ala ez, herri bakoitzak bere izengoitia izaten du. Malerreka herriak azaltzen zaizkigu epistola hauetan.

“Narbarte, demoniu guzin arte”

“Oieregi, zerritegi”

“Legasa, poca grasa”

“Oronoz, ankamotz”

“Sunbilla,

Ni es pueblo

Ni es villa

Y es más largo que Sevilla”

“Eatsundarrak xingurrik”

“Labaindarrak almote kolkuan”

“Ezkurriarrak eruak”

“Goizutarrak zapoak”

“Ittunguk **lixiburdiñak**”

“Zubitakuk sorgiñak”

“Zubitarrak jituk”

“Elgorrikuk zorrollo”

“Sunbilla mala villa, la gente un poco pillá”

“Leitzaundi, Iruñen pare, Madrillen eña giñuke parte!”

“Urroz, mutur zorrotz”

“Oiz, ipurdibeltz”.

GURE HITZAK

Elgorriaga: Izenaren erranahia honako hau da: elorriak dauden lekua. Inguruko herrietan *Elgorri* ahoskatzen da.

Lixiburdiñak: Lisaburdinak. Lisatzeko erabiltzen den burdinazko tresna, azpialdea oso leuna eta altzairatua duena, eta eskutokia gainaldean duena.

Zorrollo: Sabel handia duenari ematen zaion izena.



Doneztebe zaharra.



Zizeilua. Zurezko eserleku bizkarduna, erdian mahai mugikorra duena.

Ipurdibeltz ori (i)zanen da, Doneztoben bai emen tzen apez bat, Don Juan Altzuri do (...) Oizan, ipurdibeltzanak esaten tziotenak besten batzuk beste familin bat oa. Eta Oizko... Donamari... Doneztobeko apez orrek esan men tzion Oizku orri: “*Hola epurdibeltz! Zer zabiltze?*”, ta: “*Hola Don Juan Altzuri! Muturzuri, zer zaizo zuri?*”, kontest(a)tu ziola. [irriz]

(Saldias)

“Doneztebekuk **tripasaia**k”

“Aanaztarrak zingurrik”

“Goizutarrak apuk”

“Gaztelu zarrikapelu”

“Urrotz ipurdi zorrotz”

“Oitz etzin berandu, jeiki goiz”

“Baztandarrak tuku-tuku”

* * *

“Zubitan **puxal** txarra yo,

Ittunan or konpon,

ya Elgorrin atakak idekik”



Oitz.

Elgorrin atakak idektzen tziuzten Doneztutik eldu zirelik besta eginta... merkatutan do gizonak... pues itten zkiren atakak bota arrika. Gero, Ittunan, sarreran, gizon bat zatn tzen Lopetxen, Inazio aundia... nik ura... artaz pentsatzen dut, eztakit... “Or konpon! Or konpon!” erraten tzula... ta... etziola inportzen. Ta gero Zubitan (...) “Puxal txarra yo! Puxal txarra yo!”

Eztakitt ori errate batzu ziren, eztaki(t) ni(k)...

(Ituren)

GURE HITZAK

Tripasaiak: Tripazainak, oso jatunak, tripontziak.

Ittunan: Iturenen. Ondoko herrietan *Ittuna* ahoskatua, -a artikulua erantsiaz.

Puxal: “Pozala”, ontzia.

Ittunguk beltzaran

Itturen beltzaran *pero gracioso dizen*

Sunbilla mala villa pero buena gente

(Ituren)



Ferrak.

2.5. Klase sozialak

Aberats ala pobre, herrikoa ala baserrikoa, jabea ala maizterra..., klase sozialak gure bizimodua baldintzatzen dute.

Aberatsak eskuinetik

Ink.: *Ta gero zure amatxik ze kontatzen zuen aberatsei buruz?*

(...) Ezkertiken yuatn tzien abeatsak, do... eskuintiken (...). Ta konpazio batin eldu batzin gure a... gure amatxi ta eldu ba... eldu bazien oieken zertiken, beitzen zuten... *como diciendo ¿tú por aquí?* alde.

Ink.: *Ta pobrindako ezkerreko aldia?*

Bai... miño ola, e! karrikan, osea, karrikati(k) barna... bieurek bere zerekuk... bere kuadrillekuk, sea, bere... (aberats kontu oitik).

(Doneztebe)



Doneztebeko Xalbador Apeztegia. 1943. urtea.

GURE HITZAK

Gaztanbera: Mamia.

Xeroria: Serora. Elizaren ardua duen eta apezari laguntzen dion andrea.

Oieken: Horien.

Ofrendak nagusiendako

Ze, nausiri ta? ¡*Hombre, ya lo creo que sí!* Jo! Guk ameka gaztanbera... Goizeko zortzitako, igual zazpi t'ertiko yoaten giñ, ordun errat tzuten aldabela (?) baizen. Iru neskato ta txoferra bazeukiten, ta nolako... bua! Beti biaje ara(t) ta biaje onat eta... Zenbat gaztanbera nik goizeko, ze ordutako, itten ittun gaztanberak erreg(o)lo eramateko oiek bertzeai. (...) Gaztañak ere bai, eta bildotsa ere bai eta... bueno, *lo mejor*. Obenak (...) Bai, bola(d)a atin apeza, xeroria, sekretarioa eta... zaten tzien ola, erria...

(Narbarte)



Ogia egitean, mahaian gelditzen ziren hondarrak biltzeko tresna.

Lotea herriko boteredunentzat

Ink.: *Eta lotia nori eramaten zitzaion? Maistrari...*

Emen, maistrari, bi apezari eta maixuri. Ta serorari. Ta oi itten tzen, pues, beiak zutenak, itten zen **karretua**. Por ejemplo, igual, sei bei pare do ola zaten zen karretua, **lotia**. Sei bei pare, zazpi... Sei, zazpi balin bazen, aundia. Ta oi kartzen tzen errestaka andiken unara, plaza. Goizin lautan yiki ta eguerdiko yuxtu-yuxtun tortzen zen itxera. Ta, uzten tzen plazan, or itturria baita, or uzten tzen. Ta gero, bazeenak gu bezalakuk, ezkiñunak azindiken, kartze giñun ta itten giñun xatu debalde.

Ink.: *Eta aiek trukean ematen zuten zerbait ere, eskertzeko edo?*

Zuri? Jateko... afari... bueno, bazkaria maten tzuten. Eta afaria. Miño, etziñun kobratzen sosik ere, e!

(Narbarte)

Sekretarioaren basakeria

Ink.: *Sekretariuk maixuri zer erran tzion? Ez irakusteko ta...*

Ez erakusteko, zertaz “tonto-tonto aisa manejetzen tzirela, biño yakiñez kero ez”.

Ink.: *Ta ez irausteko ze, erdaraz o gauzak?*

Dena, eskolan, eskolan, ez tortzen eskolara, irakustera. Ta ori erran tzion: “Ez irakutsi aurrari, ongi daude, manejatzen dire aunitzez obekiago ola, tonto-tonto dauden denborian... ez... ikasten duten bezela”.

(Doneztebe)

Baserritarrak eta herritarrak

Ink.: *Eta gero baserritarrak errira yuatekin, edo Doneztebera jeistekin, do... ongi ikusiak do... ongi tratatuk ziñeten do...?*

Ez, ez. Ni eskolan enizen ibilli. E... ni ori... ni ate nizen, zazpi urte nittun, eta ate nizen bertze itxe bat(e)ra, oain Nati bizi baita, itxi ortan zazpi urte in nittun neskato aurrak z... kas itten, bai, zazpi urte in nittun. Matrimoniuk bat baziten bedetzi ume ekeri zaintzen. Ta ni eskolan enitzen ibilli.

Biño, baserritarrak errira torri eskolara ta arrika maten zuten, errikuk bai. (...) Ta gero... badakizu, ton-tuk, baserritarrak, badakizu, erderaz ez giñakin... ta erdun dena erdaraz eskolan... ta ni enitzen yuaten. Ni neskato.

Ta gero, Iruñeko maestra batzuk, Blanca ta Margari, beti oroitzen naiz tor zen Urrozara ta bat itxeko lanak eitten ta ni **artu zeraten** ne... ori... ate itxe ortik, ya



Esteban Telletxea. Doneztebe.

GURE HITZAK

Lotia: Lotea. Auzolanean egiten zuten apeza, serora, medikua eta abarrentzat.

Karretua: Baztanen eta Male-rrekan, egurra auzolanean moztu, eta apezari eta maisu-maistreï eramatea.

Artu zeraten: Hartu zidaten. Hartu ninduten.



Ohatzea berotzeko tresna.

ik... ikasgo nula eskola pixkot. Eta ate, eta urte batez ibil nizen ekin, maestra ekin eskolan. Nik urixe ikas(i) nun. Ta erdun ikas nun, atsaldetan, txaketak itten ta galtzerdik itten ikasi nun, bai, orixe ikas nun. Ta galtzerdik gero itten nittun niourrek, ori... dena, nee senidendako ta dendako itten nittun.

(Urrotz)

Herritarrak eta baserritarrak bereiz

Ink.: *Eta erran tzenuen ori, baserritarrak igual iñautetan bajatzen zirela errira, eta... batzuk ostatu batean ta... erritarrak bestean?*

Bai, bertzik... bai, bai. Erriko itxin itn tzuten erriku(k) beti, ta baserritarra(k) berriz an bertze ostatuan. Beti. Geo jaleua azkenin...

Ink.: *Bai? Biño ori segurua?*

Bai, bai, bai, orek etzun beñe fallatzen (...), batzuk atorri(k) gabe itxera ta bertze batzuk botonik gabe, ta...

(Sunbilla)

Maizterrak eta etxaldekoak

Ink.: *Eta gero, errian, maizterrak ta bezinuk ta... bereixten zen, ez?*

Bai...

Ink.: *Elkartzen ziñeten noizbatt ere... do nola zen?*

E... erriyan ba... itten bazen, bezpera(k) zaten tziren (...). Dena, eliza betia egoten zen, bezpetara yendi yuaten tzen... t'eo dena musin. Oi! Oi! Oi! Zemat mus itten zuten!

Ink.: *Eta, elkartzen zieten or maizterrak ta bezinuk, do ez?*

Zaude, zaude. Ta, gero, berentzera o afaltzera itten bauzu, zuk **bezinun** txera ez... o... txea bai, ezin tzu yuan **maixterra**. Berex, bertze maira. Ala zatn zen. Oloko etxia zatn tzen bezinundako.

Ink.: *A ze ostatur berin bezinundako alde bat eta maixterrando bertzia*

Bai, bai. Maixterrendako xerrik **korxelak** eta ola. Igual, e! Maxterrak beti berex

Ink.: *Eta gero, espoteko eta ola? Elkarrekin espoten al ziren maixterrak eta bezinuk, ta...?*



Donamariako etxea.

GURE HITZAK

Bezpetara: Bezperak ilunabarrereko otoitzak ziren. Jendea bezperak eta gero, elizatik atera eta lagunekin egoten zen.

Maixterra: Maizterra. Baserri edo etxe bat errentaren truke hartzen duen pertsona.

Bezinua: Auzokoa. Gure herrietan etxe baten jabea dena eta herriko erabakietan parte har dezakeena.

Korxelak: Kortxela. Lehorrik gabeko ukuilua edo lastoa gordetzeko lekua.



Platerak lehortzekoa.

Bai to re...! maixter etzuten nai zaten iñok ere... bezinua!

Ink.: *Bezinu(k) bezinun artin...*

Bai... Ta gu bet... dena maixterrak [g]liñen... maixterrak o... bai, bai (...).

Ta gure atta zena(k) beti nola erat tzun... yuan tziren, eun batin besta zen, ta ze bar tzen ta erriya dena betia yendez, besta zatekin. Ta, in tzuten berendua, zaten zuten an beti. Ta, gure... atsena zen ori... kauen dio! alkatia errikua. Ta an segittu, berentzera yuan biarra, ta bazen kuadrilla, ta :

–Bueno Patxiku, ato... al! –Patxiku zuen izena gure att- torri!

–E! Patxiku ta Patxaka! Dena raso fuera! -gure att zenak erran tzun- Fuera dena! Denak elkarrekin! Gu gaño gattuk oiek ere!

Ta akabo! Andik geotik ya... yarri zen dena.

(...)

Ink.: *Eta sepulturan egoten ziren maixterrak gibelko partin do...?*

Baterez, ez, ek etzuten sepulturik

Ink.: *Maixterrek etzuten sepulturik?*

Ez. Gero... gure... attak asi zielik, ordun asi zien denak sepultura.

(Donamaria)



Agotaren eskua?

GURE HITZAK

Sepultura: Hilobia. Etxe bakoitzak sepultura bana izaten zuen elizaren barrenean, eta etxearen zati bat zen.

Agotak: Nafarroa Garaiko iparraldean bizi den jatorri ezezaguneko arraza bateko kideak.

2.6. Agotak

Agotak, Baztanekin lotzen baditugu ere, ezagunak ziren Malerrekan eta Nafarroako bertze eskualde batzuetan ere.

Ink.: *Eta gero, agotak... nortzuk ziren? Zer dakizu agotari buruz?*



“Almireza”, baratxuriak xehatzeko.

Agotan buruz eztakitt, emen beti...

Senarra: Agotak omen tziren... au biarriko **bettiku plinp** au etzutenak. Au etzunak, ura agota.

Ta gero eskutan ere erran tzut, emen eme [M] dugu guk, eta ek A izaten men zuten bakarra: Agota.

Ink.: *Eta, baztertuk izaten tziren ta ola?*

Bai, bai, erriyin ere, bestetan ta, baztertuk arrunt... oik Arizkunera pertenezitzen men tzien... oiek ori...

Ink.: *Bozaten.*

Bozaten, eta diskriminatuk egoten omen tziren... bai, bai.

Ink.: (...)*Ama batek ze esan zion alabari?*

(...) A, bai, bai. Nik andri ura izautzen nun ta semia ere, ori bai, alaba ere bai. Alaba ura nere adi-ñin... in tzun nobiua eta itxera eraman, eta, amak erran men tzion:

–Neska! Neska! (...). Utzi zan nobiu ori, eztiz goartu orrek zer dun eskutan?

–Zer du ba?

–Guk emen eme [M] iñegun, ta orrek A. Agota dun! Agota dun! –erran tziola-.

Ta utzi zula.

Ink.: *Ta ori non izan zen? Donamarin?*

Donamarin, Donamarin, bai.

(Donamaria)

GURE HITZAK

Biarriko bettiku plinp: Belarriko beheitiko gingila. Belarri-gingila buruari itsatsia izatea norbait agota zelako seinalea zen.

Bozate: Baztan ibarrean da-goen Arizkungo auzoa. Agot gehienak hemen bizi ziren.

Ink.: *Gero, zuk amari aitu zenion Donezteben bazirela agotiak, ez?*

A, bai... agotiak (...). Emen baziren, bai, bai, ta bada lee... yendaji artiken andiken etorria, Bozate-tiken etorria... eta erraten tzuen, me... plazan paratzen ziotela silla, agotiari. Ya gero... ya nere den-borerako... eta oiek dire *los que viven en Nuevo Baztan*.

(...) Emen zuten... elizan ere bai, emen zuten errota.

Ink.: *Agoteek.*

Bai. Erro... emengo errota zen agotiak...

Ink.: *Esaten zuten errotzaiak agoterrikoak zirela...*

Bai, bai, bai, bai. Pues emen zuten agotiak.

Ink.: *Ta nolakoak ziren agotak?*



Malerrekako pilotari batzuk.

GURE HITZAK

Marqués de Goienetxe: Juan de Goyeneche baztandarra (1656-1735), Felipe V.aren emaztearen diruzaina izan zen, eta eragin handiko gizona Carlos II.aren denboran ere.

Nuevo Baztán: Madriletik 45 km hegoaldera dagoen herria, Alcalá de Henarestik hurbil. Juan de Goyenechek sortu zuen herria, eta bertan eraiki zuen jauregia Interes Nazionaleko Monumentua da gaur.

Dute biarria ola segidun.

Ink.: Pegatua.

Bai, sí, peo badire... nik ikusten dut noiznai bertze... uste dut eztirela agotiak ta... eztu... dutela o... igual tzin di... eztakit, eztakit. Benpin ori erraten zuten.

Ink.: Biño ze, gaizki ikusiak ziren... do...?

Bai, bai, *con desprecio, con desprecio*. Ta orrengatik *el marqués de Goienetxe* que era de Elizondo y que tenía allí un fuerte... un fuerte... un cuartel. Kuartela zuen en... en *Nuevo Baztan*... egi zun... eman zuen emendiken yendia, egin zioten itxiak, ta *hicieron el Nuevo Baztan*.

(Doneztebe)



Gazteak eskean.

2.7. Ijitoa eskean

Ijitoak aspaldidanik bizi izan dira Malerrekan. Jenio bizikoak izaki, pasadizo anitzen iturri izan dira.

Ordun bilzen tziren jituk eskian, at allet zen etxe batera ta tribuna an zun, itxi arek gotti, lemeziko pisura... ta, gizona zagon atian, ta torri jitu ura:

–O, ze?

–Unela ta unela...

Ta, koño! Zerbatt ere bueltaka zabillela ta “A, bai. Eskazu, or da andria barrenin”. Yuan tzen gotti tribunara ta:

–Non tzara etxeko andre zabala? Bizirik zaudelarik Zeruan sartua?

–Jangoikuk lagundik’izula!

–Jangoikuk? Ez yaiz ilta re ez yaiz sartuko, madarikatu ori! Zeruan... [irriz]

(Sunbilla)

GURE HITZAK

Jituk eskian: Ijitoak eskean, etxez etxe jateko eta bizitzeko gauzak eskatzen.

Tribuna: Azkueren hiztegian *trigun*, eskailera baten hasieran edo erdian dagoen zabala edo eskailburua.

Allet zen: Ailegatu zen.



Aziendak markatzeko burdina.

2.8. Xaldix

Garai bateko pertsonaia xelebreen izenak gure arbasoen ezpainetan entzun daitezke oraindik. Xaldix zen horietako bat.

Nere attak kontatzen zun, gerra denboran edorri zirelikin, ordun emen bazen bat ogia partitzen zuna, *pan de Bera*. Be(r)a zen gañera republikanua ta, **Xaldix** famoso. Eta, letrerua gañera zeuken, ordun zen zaldikin. Baakizu ogi partitzen oaiñ kotxia bezala, ordun eramiten tzen zaldikin karrotxua. Ta, *se vende pan de Bera*. Ta zen bera mutilla. Ta, bera “*Viva la República Española*” patua letrerua eskiñin. Eta itxin gañera itten tzuten ariya ordun. Eta nik ikusi ttut aren itxin denak, miño...maindirik, sukaldeko trapuk, toallak,... denak Republikan oraingo berdia, gorria ta xurikiñ, bai, bai. Ta emen (...) bazuten makina ari ittekua, guk ikusten giñun ari itten. Ta an baziuzten telak ere egiñak, beaurek. Dena(k) ziuutzen ola, dena nazionalistan ori. Ta berai etzaion inportzen erraten tzutena, “kartzela sartzen banute, sartua”. Miño... berak erraten tzun: “ni naiz republikanua, ta ¡*Viva la República Española!*” Areri in tzioten, ez, arek zun karrotxua eta nere atta ta gaztiak, emeretzi o ogei urte. Ta, iru-lau lagun ta: “jo, biarko eztugu **yaus ere** berentzeko, ta nori errain diogu?” Ta eztaki[t] zer ta badaki[t] nun ta ola, ta, in tzioten artu kotxia ta zintzilika patu ta **ugaldera** bota. Iru-lau lagunek. Ta gero, ura... urrengo egunin kotxia biar. Ta ogi partitzeko bear tzun kotxia. Ta etorri zien biauerek ta:

–“Nor demoniok...!”

Eta:

–“Bai, seguro zu sobera zabilta politikan ta orrengatik bota zain dizute kotxia ugaldera”

Ta emen, zubi ortiken, ta:

–“Guk ate(a)ko dizuu”.

Ta, berdiñik urin sartu ta kotxia **belayin barna** ate zioten, kotxia garbittu ta ederki eman ori. Ta andria zen oso kozinera ona, ta bai, bazakiten. Ta gero, urrengo egunin in tzien krixton berendua, ollua saltsan ta pres-tatu ta eerki an berendu, ta begira (...) Berendu bat nola kontsegitu, pues...

(Legasa)



Saldias.

GURE HITZAK

Xaldix: Legasako etxe batera eramán zuten inklusako haur bat. Denek Saldiaskoa zela uste zuten, eta horregatik “Xaldix” deitzen zioten.

Yaus ere: deus ere.

Ugaldera: Ibaira.

Belayin barna: Belagian barrrena.

SORTZEA ETA HAURDUNALDIA

Hiztun anitz mintzatu dira amatasunarekin lotutako gaiei buruz. Ikuspegi frankotatik, gainera: sortzea eta bataioa, hainbat ohitura zahar (teila bat buruan izanda etxetik atera beharra), ezkongabe eta ezkonduen haurdunaldiak, ama ezkongabeak, emaginen lana...

3.1. Sortzea eta bataioa

Sortu eta berehala egiten zen bataioa gure herrietan. Orain ohiturak aldatu dira.

Ink.: Leenagoko bataioak nolakoak izaten tziren?

Oso polittek!

Ink.: Noiz izaten zen bataioa? Jaio ta, umea jaio, ta...?

Jaio ta bi(a)ramunean. Oaiñ, berrez, iru illeten burua, igual. Ta urte beten burua iual!

Ink.: Ta nor joaten zen bataiora?

O! Atautxi-amatxi ta ume koxkor oik tenak. Denak! Botzen baitzioan diru! Ta, diru bota ezkio... [irriz]. An ibilli aztar(ri)ka, arropa guzik austen! Zimiterio alakoa da ori gañea, ta... bai, an aixe ibiltzen baitzen.



Elizan.

GURE HITZAK

Zimiterio: Hainbat lekutan elizako arkupeari ematen zaion izena (Iruñerria, Erroibar).

Purruxke: Purrustaka. Ugari.

Txurik: Zuriak, antzinako zenbait txanponen izena.

Ink.: Nola deitzen zitzaion orri? Botatze orri.

Purruxke, purruxke, purruxkean bota. Bai. Aman tzun... amatten tzun poltsan, da, purruxkean bota. Emen amaan tzittun beltzak, or amaan tzittun **txurik**, eta. Bitetek nasteko, bat emendek eta bestea orti(k) pota! Bai.

Ink.: Eta ori atautxik botatzen zun?

Bai, bai, (a)tautxik.

Ink.: Eta botatzen ez balin bazuen?

U! Atautxi puxkiñero, poco dinero! [irriz] Erdaaz beti! Atautxi puxkiñero, poco dinero! Ze gauze, e!

(Ezkurra)



Migel Hernandorena eta
Joxe Hualde. Legasa.

3.2. Teila buruan

Ohitura zaharren artean, batzuk benetan bitxiak ziren. Horietako bat, errate baterako, ama erditu berriak buru gainean paratu behar izaten zuen teilarena zen.

Emakumia elizin sartutzen tzen gero, aurrikin eliz yoten tzen. Zortzi-amar bat eunen buruen edo ola, yartzen tzenin ungi edo, ona, elizin sartzera, elizin sartu [be]arra izatn tzen. Eta atautxik galdetzen tzezion ia noiz nai dun yotea eta, onelako euntan, do denak arratsilin, do denak goizin do erraan zizuten. Ta ordun, bittartiño, tellatue... zera, telli patuta ibilli ar zaten emen tzin.

Ink.: *Eta? Buruan paratuta?*

Buruen tella... tella patuta, bai, billi [be]ar omen tzun. Biño gore denboatan, maten... yon tzen ori.


Ink.: *Biño ori zer tzen, itxetik atetzeko edo itxian ere bai?*

Txia re... etxiin ez! Txetik ateatzeko zate men tzen ori.

(Beintza-Labaien)

Ordun yoan bar zaten tzen... bataiu urren-go eunin zaten tzen. Ta klaro, nola egoten tzen gauza urren-go eunin, kasik iñor ere. Ta gero izaten tzen andik iru egunen burun, bortz egunen burun, zazpi egunen burun... elizan sartzia erraten dena, aurrikin yoaten tzen ama. Eta ordun, erraten tzuten tellapetik elizera yoan miño egun arte etzela ateri bear. Eta yoan bear balin baziñun baratzer do, porru bat eske, pues, artu tella burun eta yoaten omen tzi-ren baratzer do. E! Tella ola eskutan artu... Bazuten ola zineminiñez zerbatt e makurra pasatzeko beldurra edo zerbatt ere ola.

(Legasa)



Teila bat. Ezkurra.

GURE HITZAK

Buruen tella: Buruan teila. Erditu eta gero, emakumea ezin zen etxetik atera elizan sartu arte. Hori dela eta, kanpora atera nahi izanez gero teila bat paratzen zuen buruaren gainean eta horrela beti teilatupean zegoen.

Arbatzak: Arbazta. Abar xe-heak, egur xehea, bereziki zuhaitzetik erauziz gero. Sua pizteko egokiak.

Ink.: *Eta gero emakumek aurra izan eta elizan sartu arte, zer?*

E... itxetik etzateken ateri. Lemiziko... itxetatik atetzko zen elizara yuatko, bela bat artu ta aurra berriz eramten tzuten aurra re elizara...

Bai, nik ikusketu dut tellatua... burun patuta... atetzen... esto... su itteko arbatzak



Haria egiteko erroka.

atarin, ta iñor ez itxin, t'ura bakarrik... eta oañikan elizan sartzekua, pues tella bat artu, burun gañin patu, ate zen kanpora, artu zittun arbatxak ta sartu zen barrena.

Ink.: *Eta zertaz ezin zen kanpora ateri?*

E... zergatikan... nola zandu zun aurra... bekatua bazala... bekatua in tzula... ta ura kentzeko, *la purificación*...

(Sunbilla)

3.3. Ezkongabeak eta ezkonduak haurdun

Emakume batentzat gauza handia izaten da haurdun gelditzea, baina, garai batean arazo handiak sortzen ziren haurduna ezkongabea bazen.

Iruñin neskato (...) eta aurdun, da e[z]xakin itxin yaus e. Eta, in du aurra ta ez dai[t] bizi do illa, ta bota du basura(ra)... aurra. Ta... miño oartu dira ta, gero guar tzibillak o zertzuk keja bat arata. Ori... zepillun zu, danba! danba! bakizu ordun lurrin zepilluk pasatzen bai... ankakin yoka itten baizen brillu ate... ez oain bezala katxarrukin (...). Ta pentsazu zu, aurra in, zu, ta zepillun sei... aitzen, zu! Ze, ze osasuna, zu, e!

(Ituren)

GURE HITZAK

Erroka: Gorua. Iruteko erabiltzen zen tresna, goian, iruteko gaia paratzeko atal bat duen makila batez osatua.

La purificación: Erlujioaren ikuspuntutik, erditu eta gero emakumea ez zegoen garbia elizan sartu arte. Biblian agertzen den ohitura da.



Bikote gaztea.



Lababo zaharra. Zurgiñenea, Ezkurra.

Ori... lengo attunak aitzen tzien erraten, ori aittu ut aunitz aldiz, emakumik denak solteratik in bako likela aurra: “Ordun ez titek ez **enbraz** txarrik zaten, ta ez erditze txarrik zaten”. De... dena ongi, ez zin yeus sumatzen... dena ongi zatn tzutela.

(Ituren)

Ink.: *Sunbillan... ze pasatze zen... ezkontzen ziren emakumekin aurdun ez baldin baziren?*

(...) Pues kobratzen zuten milla pezetako.

Ink.: *Ta ori nork pagatzen zuen? Ta nola zen asuntua?*

Pues, *una señora* eztakit, enaiz oroitzen nor tzen biño... **zertaz or itzandu ziren yende abes batzuk**, eta... zain tziren etiken. Eta, nola esposatzen tziren auniz enbrazta, ta auniz aurra bazirela, espostu biño lenago egiñak, orrengatik paratu zuen ori. Ya animatzen tzen yendia... Eta, aunitzek kobratze zain zuten ta... erraten datzut. Ta orduen milla pezeta... ni esposatu nizen denborian bae... erosi nuen maindireak emeretzi pezetin! Ta bira... bizazu milla pezeta zenbat emanen zuen... orduen.

Ink.: *Eta, noiz pagatzen zen? Ezkondu ta...?*

Bedetzi illabuten burun, bedetzi illaubte pasatuta yuaten al tziren e... ziñen naski apezarengaña. Zain tzen apezta, aiuntamientua etzen tzann, apezta izen tzen eta kobratzen tzenuen milla pezetako ori.

(Doneztebe)

GURE HITZAK

Enbraz: Haurdunaldia. Gehienetan *haurdun* esateko erabilia.

Zertaz or itzandu ziren: Hor izan zirelako.

Yende abes batzuk: Jende aberats batzuk.



Malerrekako emakumeak.



Platerak edukitzekoa.

Nik, klaro, nik ez nakin ezkondu nitzelik, e! reglak ta orik gelditzen baziren ere... eta, nik ez nakin ta nere koñatak, ori... erran tzitten ori...

–Battuzu reglak?

Eta:

–Ez... yuan den as... lengo illautin etziren torri...

Ta:

–Ai! Geoztik aurdun tzaude...

Ta:

–Keba! Ez... ongi nago... ongi nago.

Ta ori bai, beti oroitzen naiz, biño ni ze tonta nitzen... ezkondu nitzen deus [indarrez] yakin gabe, inozentia... (...). Ta gero aurdun eoki. Gero asi nitzen. Ya zanen nittun iru bat illaute edo urbill eda erdun ya gottika botatzen, ta erdun bai. Erdun sumatu nun banula zerbatt ere. Biño ni[k] bittarte ez bainun yaus ere...

(Urrotz)

Haurrak nondik etorri

Aurak Paristik karze zutela...

Ink.: *Eta menditik?*

Ta menditik, ni... or bada mendi bat **Makillipurdi**, ta, nii erran tziten Makillipurditik karria... (...) erran ziten bai, elurra men tzaon, ta andi Makillipurditik karria, ni, beti ala errat tzuten, gure amaxik ta...

(Ituren)

3.4. Ama ezkongabeak

Ama ezkongabea izatea ez da kontu xamurra, ez baita erraza bakar-bakarrik haurra aitzinera ateratzea. Duela ez anitz, are zailagoa zen.

Ori tokatu zen, ori nere denborako gauza da oaiñ erratn dena. Tokatu zen, ein zun emengo... mutil batek neska bat paat tzun aurra itteko. Eta, aurra in tzun, (...) zarian sartu, paper bat edo dela eskribittuta paatu aurra bataitzeku zela, ta utzi zun Oizko **Aldaiko** gañeko atian. Ta karo, ango itxeko alabak, pues, etzela ure ta mediku karri ta... (...) plazan erdian, antxen... yende guzin aitzin **bee burua errebisatu** men zun medikuk. Eta ordun... etzela arena. Ta au paratze omen tzun etzela bataitu ta bataitzeko, batattu... men tzuten aur ori, Oizko... alkatia atautxi, denbora artakua **Karakotxeko** ura zen, eta... amaxi serora.

(Urrotz)

GURE HITZAK

Makillipurdi: Maquil ipurdi 1670. urtean. Andres Iñigo-ren ustez makila eta ipurdi hitzez osatua, agian mendiak duen itxuragatik.

Bee burua errebisatu: Birjina zen ala ez egiaztatu behar izan zuen medikuak.

Aldaia: Oizko etxe baten izena. 1703. urtean *la casa de Aldaia* agertzen da jada.

Karakotxeko: Garaikoetxeko. Oizko etxe baten izena, *cassa llamada Garaycoechea* 1651. urtean.



Kafea xehatzeko tresna.

3.5. Kristina emagina

Emaginarena emakumeek egindako lana izaten zen, eta, batzuetan, medikuak baino estimatuagoak izaten ziren emaginak.

Medikua gunun *espezialista en partos*, Sunbillan, miño iñork etzun ura deitzen, denek Kristina, Kristina.

A, ta bei(n) baserri batera yuan tzen, ta an pues a... emakumia ya *agurra itteko* ango itxekandria, ta (...) olo bat sartzen da kuartun. Ta Kristina orreri pues etzazion gustatu, eta:

–Uxa! uxa!

Ta, be... andria aika, eta ollua aintziña... ta [irriak] Kristina(k) “uxa!”. Ta ortan ollua *igaten da*, e... an zaten tziren ordun...

Senarra: Pertxak azpin iduktzeko tabla (...)

Ola bat... an tzapata(k) gañin...

Senarra: Zabal txamarra, aren azpiyin patzen zinttun arropak (...).

Ta ollua an *igaten da*, ta ordun [indarrez] Kristina asertu, ta:

–Ollua! Etakit zer...!

Ta bertzia:

–Ai! Ai! –aien tartin- utzi zu! utzi zu ollua! arroltzia patzera doaye! eta guk biar dugu arroltzi ori...

Ta antxen, ura aur itten ta bertzia... [irriak] arroltzia itten. Bai... biño egi-ya[k] tire oiek, e! egiyak, egiyak.

(...)

Baserri auniztan... baserri(k) ta pobri, yendia pobri zena... berak kontatua da ori gañera, bai. Nola... tokat tzaion are-ri yuan ta deus prestatzkua, oañik etzuten espero zanen igual... aurrikan, ezta- kit... ta bere gonari zerrenda bat kendu, ta zulo bat egiñ... burua sartzeko aurra, ta yasta, *yauntziya* aurra, etzen an ber- tzerikan... ola zen pobria yendia. Ez bat, e! ez... zen... denin igualtsu.

(Sunbilla)



Urrozko Danbolineko borda 1925. urtean.
Manuel Telletxea eta Juana Arozena, Antonio semearekin.

GUR-ITZAK

Agurra itteko: Haurra egite-ko, erditzeko.

Igaten da: Igotzen da.

Yauntziya: Jantzia.

HAURTZAROA

Atal honetan jokoak, eta batez ere jokoekin batera kantatzen ziren hainbat doinu aintzat hartu dira: hainbat jostetetan errandako hitzak, zotz egiteko moduak, haur kankak, formulak eta asmakizunak.

4.1. Hainbat josteta

Jostatzeke ohitura ere galtzen ari omen gara. Bistan da, hori bai, gaurko haurrak bertzelako jokoetan aritzen direla. Dena den, joko zaharrak eskura ditugu hurrengo orrialdeetan.

Altxaketan kurri

“Altxaketan biriketan
Iruñeko portaletan
Bizi zate? Kurri!”

Ink.: *A! Ori erran bear tzuen...*

Bai, bete bear tzunak, bete bear tzunak. Biño, altxatzen tzirinak... erantzuten...: “kurri!”, erantzuten zuten ori. Ori zen, e!

(Beintza-Labaien)

Kuku landan

Au re esaten giñun yostaketako aietan. Uiu itten giñun ya kontatu ogei edo... bat, bi, iru... ta gero in, au Saldiskoan adittu dut, Saldiskoa da; biño Labainen ere itten giñun:

“Kuku kuku landan
Erbia baratzan da
Kuku bazate? Kuku!”

Ink.: *Ori erraten zuen betetzen zuenak?*

Betetzen tzunak, bai.

(Beintza-Labaien)

GURE HITZAK

Altxaketan: Gordeketan. Haurren josteta. Haur guztiak ezkutatzen dira, betetzen duena izan ezik.



Malerrekako familia bat 1957. urtean.



Kaskabilak.

Kukuka

Pues gorde... ta... bat tapatzen tzen, ta, esto... “kuku zate?” ta “kuku!” erraten genun, kontesten genun gu[k], ta ordun are(k) bear giñun gu arraptu...

Ta, yuaten bazen toki batera ta bertze tokitikan arek ikus gabe yuaten bagiñen ura zagon paretara ta ura ukittu, libratzen tziñen zu. Ta arrautzen bazun bakarre'mat... pues ura gelditzen tzen kastig-tua, ta bertziak... libratzen tzen.

Senarra: Lemiziko atezn tzena... nola erraten tzen? “Txipitan, txopetan **ganbelapeko**. Gordetzen eztena bera beteko, bera beteko. Kuku zate?”... “Kuku! kuku!”.

(Sunbilla)



Dantxariak haur baten eskuetan.

“Dantxarik”

Dantxarik... zaten tu arbolak porejenplo... aritzak, ola pillota ttiki batzuk, ta zaten te xulua. Areri sartu ola... ar(d)axka ttiki bat, pollita iña, ta dantzatu, bueltan-bueltan.

Ink.: A... *peonzak bezala, e(z)?*

Bai, *exáctamente*, biño *vamos*, dantxarik.

(Sunbilla)

Pittini, pattana

“Pittini, pattana, sobera, barbara, betia”. Patu ola... arria, arri koxkorra da zerbatt ere eskuan ta “pittini, pittana, sobera, barbara, betia”. Ta, ze eskutan tzen...

(Elgorriaga)

GURE HITZAK

Ganbelapeko: Ganbela azpian. Ganbela da aziendei lastoa eta bazka ematen zaien aska.

Dantxarik: Dantzariak. Haritzetan ateratzen diren pilota moduko batzuk, haurrek jostatzeko erabiliak. Bi zulo txiki dituzte eta haietan makilatxoa sartuz peontza bezala jostatzen da.



Makilak. Zubieta.

4.2. Zotz egiteko moduak

Anitzetan, jostetan hasi baino lehen, zotz egin behar izaten zen nork bete behar zuen jakiteko.

Bueno, yostaketa kantak bai... oiek... biño, or baserritan eskola izaten tzen ta ara yoaten nitzen do-triña ematera. Eta an, pues, artueman geiago izaten nun aurtxo aiekin eta artu nittun oiek, oaiñ esanen dittuten oiek. Eztakit ongi esanen dittuten, barkatu eñ bearko didazue. Nik mantso-mantso...:

“Din dan galerako
Elizan zazpi gizon dantzan
Nun ttuk bere biorrak?

Bettiko buru go(o)rrak
Ik aizkora, nik aizkora
Martin epurtzuloz gora!”

Ta au, Mantxineko bordan entzundakoa da. Bueno, jostaketak egitten zittutenin, nork bete, nork bete, pues, ateratzeko egiten zuten ori.

(Beintza-Labaien)

“Tren trepetetren
Ateriko zinko
Zinko i kuarto
Txerri puxtan xuri

Mandoko plako
Terri terri tako!”
Ori Mantxeneko bordan artua da.

(Beintza-Labaien)

“Txirrixta mirrixta
Jauna ple
Olio xopa

Kikiri salda
Sun plin klik!”

Bertze bukaera bat ezagutzen zen: “Urrun plen klik!”

(...) “Urrun plen klik”au guk ttikitan Labainen egiten izanen giñun, or izanen dut nik artua. Oaiñ beste bat:

“Niki naka
Zerradura
Lebadura
Txin txin plata txin
Txin mini arka

Txin txipiton
Martin zapaton
Irrixkitin arraxkatan
Kri kon!”

(Beintza-Labaien)

GURE HITZAK

Mantxeneko Borda: Saldiasko Mantxeneko borda.

Labainen: Labaienen. Gaur egun Labaien da lehengo Beintza-Labaien udalaren izen bakarra. Udalerrria Beintza eta Labaien herriek osatzen dute.

Ateriko: Aterako.



Gazta egiteko tresneria. Abatza (ontzi handia), kartola (gainean), iragazkia, zimitza eta malatsa.

“Auntz putz, ietako, neretako, putz!”

“Donilla, donilla, kaskara billa, zintare perla, kajaren perla, an ixtufa, martxa, fuera!”

“Don, don, iten, saketi, fuera!”

“Eun tzulo, berreun tzulo, ie zakurran ipurtzolo!”

(Zubieta)

“Kañi kañi
Bete zillarra
Papirona
Bete zillarra
Benigon
Arriketan baionetan

Iterragon gona
Lagon lagona
Ziripiton
Erregaren gon
Irrixkitin lau
Kri kon!”

(Beintza-Labaien)

“Gaztaña gora bera
Txipitin txapatan fuera!”

(Beintza-Labaien; Ezkurra)

GURE HITZAK

Abatza: Kaikua baina handiagoa den zurezko ontzi handia. Ontzia pieza bakarrekoa zen, eta enbor baten tamaina eta itxura zuten. Usuenak 20 litrotakoak izaten ziren.

Kartola: Gazta egiterakoan abatzaren gainean eta zimitza-ren azpian paratzen zen ohol luzea.

Zimitza: Zurezko moldea. Zimitzek gaztari itxura biribila ematen diote.

Malatsa: Gazta egiterakoan esnea nahasteko zurezko tresna.



Malerrekako gazteak, Doneztebeko frontoian.



Lupe, Joakina eta Teresa Ibarra.
Elgorriaga.

“Don don
Saketen fuera!”

(Beintza-Labaien)

“Truxa, murruxa, rota, kabia, lorra, buena, kost!”

(Urrotz)

“Antz butz, iretako, neretako, butz!”

(...) Putz atetze duna, dena fuera.

(Ituren)

“Xirixti mirixti
Jauna plea
Olio xopa

Kikili salda
Run plen klin!”
Au Saldisko errikua da, errikua.

(Beintza-Labaien)

“Txirristi, mirristi, oriun plata, kikilin salda, erun, merun, klik!”

(Ituren)

GURE HITZAK

Saldis: Saldias. Malerrekan *Saldis* edo *Saldise* ahoskatua. Iruñerrian ere badago Saldise izeneko herria.

Antz butz: Beste herri batean *ahuntz putza*.

“Don don
Kiklikon
Salsa pika
Tortolika
Del buzon

Attuna marzelon
Krixkiti kraxkata
Melon melokoton
Manzana podrida
Uno, dos, tres y cuatro, salida! ”.

(Beintza-Labaien)



Olioa edukitzeko ontzia.

“Don don
Niki naka
Zerradura
Lebadura
Txintxili plata

Txminarka
Txintxipiton
Martin zapaton
Krixkitin klan
Klin klon!”.

(Beintza-Labaien)

“Zipirona zipirona
Lau tomate
Trutxa fresko
Fruta mudatzeko
Si va usted a Pamplona

Subilla buruan
Hacer volver a casa
Iru-lau orduan
Líbranos unos señor
Alako moduan”.

(Beintza-Labaien)

4.3. Haur kantak

Haurrak lokartzeko kantak ez dira falta Malerrekako ahozko tradizioan. Hona hemen bildu ditugun batzuk.

Bonbolo eztina

“Bonbolo eztina bonbolo
Otsuak yan du artzaia

Otsokumiak bildotsa
Ai! Nere biotza!”.

(Narbarte)



Malerrekako haurrak.

GURE HITZAK

Subilla: Enborra. Lurreko suan erretzen den enborra.



Kubiertekin egindako abarka zaharrak eta eskalapoak.

Arre arre mandoko

“Arre arre mandoko
Biar Iruñarako
Etzi Tolosarako

Andik zer ekarriko?
Zapata ta gerriko.
Gure **neskamotxarendako**”.

(Ezkurra)

“Arre-arre mandoko,
biar Iruñerako
etzi Tolosarako.
Andik zer ekarriko?

Mandua bete kukuso.
Aie[k] tenak norendako?
Aiek denak-denak-denak...”.

Pues zein aur den, aendako. Bada Maitetxu, Maitetxundako, do bada Josetxo, Josetxondako.

(Zubieta)

Ttalo, ttalo, txin

“Ttalo ttalo ttalo txin
Zure aurra po(s)totxin

Ona xua xu mattin
Opill aundi batekin!”.

(Ezkurra)

GURE HITZAK

Neskamotxa: Neskatila, neskatoa. Hitz adierazgarria.

Eskalapoak: Zurezko atal bat hustuz egiten den oinetakoa, hainbat lurraldetako baserritarrek eta erabiltzen dutena.



Lehenago haurrak.



Talaburnia.

“Talo talo txin!
Gure aurrak borz **otxin**.”

Amatxi, atautxi atozte
Opill aundi batekin”.

(Donamaria)

“Talo-talo txin!
Aurrak portotxin!
Talo ta gazta

Guatzin azpin utzi.
Atximarrau! Atximarrau!”.

[Lehen lau esaldiak txalo eginez, eta azkena katuaren gisara, atzamarka eginez].

(Ituren)

“Talo talo txin!
Gure aurrak portotxin.

Oaintxe eldu da Juan Martin,
Opill aundi-aundi batekin”.

(Zubieta)

Bilin bulun

“Bilin bulun yoaile
Beiak eldu dire

Mari zarraren baatzan
Bos aza landare!”.

(Ezkurra)

GURE HITZAK

Talaburnia: Talo-burdina, talo egiteko erabilitako tresna.

Otxin: Txanpon zaharra, baliogutxikoa. Zehatz-mehatz zortzi edo hamasei erreal baliogutxikoa.

Atximarrau: Atximurra, zimurra, imurtzia. Atximurrak eragiten duen zirrara. Katuak atzaparrekin egiten duen keina.

Guatzin azpin: Ohatze, ohearen azpian.

Bolon bat

“Bolon bat eta bolon bi
Bolon putzura erori

Erori bazan erori
Ezta geiago ageri”.

(Ezkurra)

Haurra egizu lo

“Aurra egizu lo
Emango dizkizut bi koltxo
Orain bat eta bestia gero”.

(Ezkurra)



Martin Noble eta Kontxita Garziarena.
Ezkurra.

Hiru txito

“Iru txito izan eta lau galdu,
Gure txituaren ama tzer[k] yan du?

Gure txituaren ama ollua,
Axiariak kendu dio lepua”.

(Sunbilla)

Euria egiten zuenerako kanta

“Euria!
Mendia!
Errotako zaldi xuria!”.

(Ezkurra)

Kattalin ttottolin

“Kattalin ttottolin zakuto
Piperrak paittugu saltzeko

Zenbana saltzen dituzu?
Badittut aiñe zureta!”

(Ezkurra)

Kattalin ttiki-ttiki

“Kattalin ttiki-ttiki,
Kattalin ariña,
Zemana daukazu
Dozena xardiña?

Amalau maraberi,
Prezio jakiña,
Ezpaduzu eman nai,
Segizu aintziña”.

(Urrotz)

An urri etxe poxpola

“An urrin etxe poxpola ola, ola.
Kaitzun (?) arbola
Zelai erdian,
Erreka poxpola etxe atarian.
Tria la la, tria la la.
Dana txiki txiki!
Txikia da yorra.

Joate txoko txiliña ola, ola.
Su ondun kozkurtzen
Lon oten itziña, ola, ola.
Sutan danboliña gaztaña erretzen.
Lapikua gal-gal babak egosten.
Tia la la, tia la la.
Dana txiki txiki!
Txikia da y'orra”.

(Zubieta)

Kattalin pirun parun

“Kattalin pirun parun,
Kattalin ariña,
Zenbana saltzen duzu
Dozena sardiña?

Amalau maraberi
Prezio jakiña,
Maldima uzu eros nai
Segizu antziña”.

(Ituren)

GURE HITZAK

Maraberi: Marabedi, Espainiako diru zaharra, hainbat balio zituen; batez ere, erre-al kuartoren hogeita hamalaurena balio zuen kobrezko dirua.

Zemana: Zenbana.



Pedro Erasunek egindako karrakak.

4.4. Formulak

Bertzelako kantak, ohiturak eta errepikak ere baziren. Formulak deitu dituguk.

Hortzak erortzean

Sura botatzen zen, “To zarra ta ekarrak berria!” erraten tzaion ordun, sura botatz(e)ko denboran. Bai artu ortza, ta bota sura ta “To zarra ta ekarrak berriya!”

(Elgorriaga)



“To zarra ta ekarrak berriya”.


GURE HITZAK

To zarra eta ekarrak berria:
To (hortz) zaharra eta ekar
ezak berria. Sagutxo Agirre
edo Lopezen ohitura sartu
berri da gurean. Aspaldiko
usadioa da, berriz, eroritako
hortzak sura botatzea.

“Kukurruku!
Nun da ollarra?
Goiko bordan.
Zer ari da?
Garia ebakitzen.
Garia zertako?
Olloen emateko.
Ollua zertako?

Arraultz egiteko
Arraultza zertako?
Apezi emateko.
Apeza zertako?
Meza emateko.
Meza zertako?
Gu ta mundu guzia salbatzeko!”.

(Beintza-Labaien)



Urrozko Bittoriano Arzuaga. Garrupa erakusten.

“Kukurruku!
Zer diozu? Zer duzu?
Buruan miña.
Nork egiña?
Axeri xarrak.
Axeri nun da?

Goiko bordan.
Ze ari da?
Ollu[k] pazkatzen.
Ollua zetako?
Arrautzia erruteko.
Arrautzik zetako?

Apezari matteko.
Apeza zetako?
Meza matteko.
Meza zetako?
Gu ta mundu guzia salbatzeko!”.

(Ituren)

“Kukurruku!
Zer duzu?
Buruan min.
Nork egin?
Axerkok.
Nun tziñen?
Goiko bordan.
Zer ari ziñen?
Garia ebakitzen.
Garia zertako?
Ollolari emateko.
Ollua zertako?
Arraultze erruteko.
Arraultze zertako?
Apez(a)ri emateko.
Apeza zertako?
Meza emateko.
Meza zertako?

Gu ta mundu guzia salbatzeko!”.



Kukurruku!

(Beintza-Labaien)

GURE HITZAK

Axerko: Azeriaren pertsonifikazioa, ipuin anitzen protagonista. Azeri eta –ko atzizki txikigarriaz osatutako izena da.

Landa: Malerrekan landak dira lurrik hoberenak eta emankorrenak, erreka ondoan gehienetan.

“Kukurruku!
Maria Andres
Pitxerra autsi
Ta negarrez
Buruan min
Nork egin?
Axeriak

Axeria nun?
Goiko landan
Ze ari da?
Ogi(a) ereitten
Ogia zerendako?
Ollundako
Olluk zendako?

Arraultz itteko
Arraultze zendako?
Apezandako
Apeza zendako?
Meza mateko
Meza zendako?
Mundu guzia salbatzeko!”.

(Narbarte)



Tresna zaharren bilduma. Zubieta.

“Ama,
Goseak nago!
Apezak dittu giltzek!
Yoan nitzen apezangana
Emateko giltze
Apezak esan tziren
Emateko esne
Yoan nintzen beiengana
Emateko esne
Beiek esan tziren
Emateko belar
Yoan nintzen soroangana
Emateko belar
Soroak esan tziren
Emateko igitte
Yoan nintzen errementanangoangana (?)
Emateko **igitte**
Errementanoak esan tziren
Emateko **lordo**
Yoan nintzen txerriengana
Emateko lordo
Txerriek esan tziren
Emateko ezkur

Yoan nintzen pagoangana
Emateko ezkur
Pagoak esan tziren
Emateko aize
Yoan nintzen itsasoangana
Emateko aize
Itsasoak niri aize
Nik pagoari aize
Pagoak niri ezkur
Nik txerriari ezkur
Txerriak niri lordo
Nik errementanoari lordo
Errementanoak niri igitte
Nik soloari igitte
Soloak niri belar
Nik beiari belar
Beiak niri esne
Nik apezari esne
Apezak niri giltzek
Nik amari giltzek
Amak niri ogi xerra bat eman
Eskutik eskapatu
Eta txakur txar batek yan!”.

(Beintza-Labaien)

GURE HITZAK

Soroa: Belardia, belar saila edo, bestela, lantzen den lur saila. Kanta honetan lehenengo adieran erabiltzen da.

Igitte: Igitai, uza biltzeko edo belarra eta iratzeta ebakitzeko lanabesa, altzairuzko xafla kakotu batez eta eskutoki labur batez osatua.

Lordo: Urdaia, zerriaren azal azpiko gantz trinkoa, berotuz edo frijituz urtzen ez dena.



Zubieta. Eskolako neskak.



Zelestino eta Martin Mutuberria.
Saldias.

“Ama,
Ekartzu **papa!**
Aurra,
Apezek du giltza!
Joan nintzen apezengana
Nai nuela giltza
Apezak esan tzidan
Nai zuela arraultza
Yoan nintzen olloarengana
Nai nuela arraultza
Oloak esan tzidan
Nai zuela gari
Yoan nintzan **alorrangana**
Nai nuela gari
Alorrak esan tzidan
Nai zuela ongarri
Joan nintzan beiarengana
Nai nuela ongarri
Beiak esan tzidan
Nai zuela belar

Yoan nintzan soloarengana
Nai nuela belar
Soroak esan tzidan
Nai zuela itai
Yoan nintzen erroarengana
Nai nuela itai
Erreroak esan tzidan
Nai zuela urdai
Yoan nintzen txerriarengana
Nai nuela urdai
Txerriak esan tzidan
Nai zuela izkur
Joan nintzan arbolarengana
Nai nuela izkur
Arbolak esan tzidan
Nai zuela aize
Yoan nintzan itsasoarengana
Nai nuela aize
Itsasuak niri aize
Nik arbolari aize

Arbolak niri izkur
Nik txerriari izkur
Txerriak niri urdai
Nik erroari urdai
Erreroak niri itai
Nik soruari itai
Soloak niri belar
Nik beiari belar
Beiak niri ongarri
Nik alorrari ongarri
Alorrak niri gari
Nik olloari gari
Oloak niri arraultza
Nik apezari arraultza
Apezak niri giltza
Nik amari giltza
Amak niri papa
Nik artu eta yan
Ondotxo irabazia da ta!”.

(Beintza-Labaien)

GURE HITZAK

Papa: Ogia, haur hizkeran.

Alorra: Lantzen den lur zati edo eremu mugatua gariz, garagarrez, patatez, babarrunez... ereiteko.



Haurra jostetan.



Gaztainak.

4.5. Asmakizunak

Asmakizun batzuk ere bildu dira. Hona hemen lau adibide.

“Atta aundia, ama latza ta umia beltza. Zer da?” (Gaztaina)

“Lau moja komentu baten barrenin. Zer da?” (Iltxaurra)

“Yaiotzez ukerra, gaztetan fanfarron ta zartuta zimur. Zer da?” (Iratzea)

(Urrotz)

“Periko yuan da, Periko tor da, Periko pareta gañin dago”. (Eguzkia)

(Ituren)

GURE HITZAK

Iltxaurra: Intxaurra. Asmakizun honetan fruitua da, baina Malerrekako hizkeran zuhaitza adierazteko ere erabiltzen da.

Periko: Eguzkiaren izen propioa. Euskal tradizio zaharrean eguzkia emakumezkoa bazen ere, gaur egun gizonetzotzat hartzen da leku gehienetan.



Bittoriano Arzuaga. Ardi ilearekin haria egiten.

EZKONTZA KONTUAK

Ezkontza kontuetan lehen baziren oso garrantzitsuak ziren elementuak, baina gaur egun desagertu direnak. Hala nola, arreo eta dotea. Gainera, amodioak ez zituen beti lotzen ezkontideak, tratu batek baizik.

5.1. Arreo eta dotea

Berriki arte eutsi zaie gurean arreo eta dotea ohiturei. Nolabait errateko, andre ezkongaiak ezkontzara zeramatzan ondasunak dira arreo eta dotea.

Kanpotik etortzen bazen etxeandria, por ejemplo, emendik yoaten tzena(k) igual yoan bear-ko zun, pentsatzen dut; biño karrua... gañin bere abitazionia: bere guatzia, koltxona, **xurimentak**, baulak... dena(k) kartzen omen tzien. Eta, ga..., aitziniñ aaria besta itteko. Bai, aaria do ardia do ori ekartzen omen tzuten lotuta aitziniñ karrun gañin. Nee amak erraten du, oroitzen omen da aurra zelikan beinpin, aarin adar aundi bat, nola Almandozko Indakua torri zela **itxalde onekua**. Ta, Perunera torri zela ta, unloko adar aundikin karrun gañin bizi(r)ik lotua nola karri zuten aaria, besta itteko.

(Legasa)



Aharia.

GURE HITZAK

Xurimentak: Emakumezkoak ezkontzean eramaten zuena: maindireak, eskuoihalak...

Itxalde onekua: Etxalde onekoa. Esapide honekin adierazten da norbait etxe aberats eta on batean bizi dela, lur franko duena.

Balangun: Balangoan. Balango hitza Bidasoan eta Baztanen erabiltzen da langa edo ataka adierarekin. Soroen arteko hesietan izaten diren atakak.

Nik battut: Nik baditut.

5.2. Ezkontza tratuak

Erran bezala, lehen, jendea ez zen beti maiteminez ezkontzen. Anitzetan, gehienetan ez bazen, gurasoek lotzen zituzten ezkontzak feria eta merkatuetan.

Oaiñ goorutzen naiz bat, kaso bat pasatu zena, ta nik ez nun ezautu, miño nere ana...mak bai, erraten tzun izautu zula. Mutil bat, emengo mutil bat ederra, ori, Ultzamara yoan bar tzula andria billara. Ta lenau itten z(u)ten attunak ostatun edo merkatun tratua: “Bai! **nik battut** iru alaba, ta bat zure semindako [d]a”, ta itxalde ederrekua omen, ta bueno, pues, yoateko. Ta, pues, eman... erran tzion ze erritan ta izena, nor tzen; aren itxera yoan bear tzun izautzera andregaia, etzakini ez nor zen bixabilik (?). Ta ogeita bortz urte, mutilla elegancia, pues, emendiken Ultzamara yoateko goiz guzia oñez yoan zain tzen, pentsatzen dut. Ta yoaten omen da ta **balangun** iru alaba bazittula ta eiti(k) bat zanen tzula. Ta, alango... atia eeki zun, neska gazte bat amasei-amazazpi urtekua, ta: “au, au izan bar tzenun nere... andregaia? Ze pollita!”. Ta ori, ta ia nola zun izena, ta: “bai, bai, badaki(t) nor tzeren. Goazen, goazen itxera”. Ta, atta ta ama



Matxunbria. "Matxo", zulorik zabale-
na; "enbra" zulorik estuena.

an omen tzien, sukaldin, ta ekin bazkaldu omen zun. Eta, ori, iru alaba. Ta, oi gustatu tzion, gaztin ura atia i(d)eki zion ura. (...) Elkarrekin bazkaldu ta eon omen tzien, gero, salara atta ta amakin, ura. Ta, bueno, ya zein alabakin espostu bar tzun arek. Ta bai, mutikua emen legik manatzen dun bezala, zaarnaz aintziña. Ta bera miño zazpi urte zarrugua andria. Ta, pues, "orrekin espostu barko zu, gaztinak gero re enpleatuko dire". Ta, oseake nola izaten zen! Eta izauteza andregaia, andik egun batzun bu(r)un esposteko. Etzun bein ere ikusi, eta... ari gus-
tatu tz(a)ion ttikiñ ura ta gero espostu zen zarnakin.

(Legasa)



Ezkontza.

Auniztan gañera, itxaldi oitan erditan edo lautatik irutan itten tziren, klaro, karo.

Ink.: Kasu aunitz izautu duzu ola...?

Bai, bai, izautu ut kasu franko nik, ez bat, ez bi t'iru, ta amar izautu ittut. (...)

Emen bazen ato... atso tratantia gizon bat... Ttunan... (...)

Ink.: Eta berak kobratuko zuen, ez? Ongi...

Erran tzut ba, bi zerri bargo man men zkion, orrek berak erran zitten niri... "Ni(k) bi zerri bargo man nittuken". Ta, koño, bertzik ola... e... erabi artara, batzuk geixio utzi, gutixio emain zioten, miño denak...

Ink.: Eta gero, gustatzen ez bazitzaion, zer? (...)

Keba! Orduen etzen... orduan etzen gustatzeri begitzen, ez guapa zen, ez itsusi zen, edo e... ez fla-
ku zen, do ez gizena zen, enteintzen tzu? in da tratu ya. Bai, or... ordun dena ona zen.

(Ituren)

GURE HITZAK

Atso tratantia: Berez, neskak ezkontzeaz arduratzen den pertsonari ematen zaion izena. Garai batean ezkontzak etxeetatik prestatzen ziren ezkontideen iritzia kontutan hartu gabe. Atso tratantea, diru edo beste zerbaiten truke, bi familien arteko harremanak bideratzen zituen. Normalean, tratuak ferietan-eta adosten ziren gizonen edo gurasoen artean.

Bi zerri bargo: Hazten ari diren txerri arrak.



Kamamila mota bat.

5.3. Bertzelakoak

Aipatu ohiturez gain, baziren bertze batzuk ere. Hemen, bertze hiru aukeratu ditugu.

Ezkontza: uztarria paratzea

Pues, ezkontzen ai zanin aldarin, andriri tapatua burua geiago. *¡Es un paño!* Arropa xuri bat. Ori zaten tzen. (...) Bai, buruko... bere bordatuk eta gauzak eta baaizue leenogo zer tzen gauza oitako. Orai biño pollitaguk itten tziren, e! Millaka gauza.

Ink.: *Eta ze, patzen zitzaion gizonari re bai o...?*

Gizonari ola, unaiño, biño andriri buruan, zert(a)z eta andrik egon bear du beti menin, gizonan menin. Erran ziozu gaurkuri!

(Narbarte)

Ezkontzako trajea

Baserriko andri orrek nik uste espostu zen trajikin entertu zuten. Beti, beti arekin mezara, ta etzen bertzetara yuaten... jost(e)ra.

(Sunbilla)



Jesusa Telletxea eta Santos Balda.

GURE HITZAK

Baaizue: Badakizue.

Zert(a)z eta andrik egon bear du: Andreak egon behar duelako.



Artxobia.

Pregoi eguneko koplak

“Iñoterien laugarrenean
sartzen tzaigu Garizuma
Agur, agur! Nobio jauna
Abemari Purisima.

Dios te salve, ongi etorri
Gabon Jainkoak digula
Gabon Jainkoak digularikan
Egun onen bat digula.

Saldias eta Ezkurra
Bion erdian Erasun
Nere lagunak *Dios te salve*
Gaur gogoarekin erantzun.

Dios te salve, ongi etorri
Gabon Jainkoak digula
Gabon Jainkoak digularikan
Egun onen bat digula.

Or goi orretan izarra
Errekaldean lizarra
Gaur koplatzen dan nobiyo jaunak
Urre gorrizko pizarra.

Dios te salve, ongi etorri
Gabon Jainkoak digula
Gabon Jainkoak digularikan
Egun onen bat digula.

Nobio jauna, barkatu
Etzaitut ongi koplatu
Koplari onak badira baiñan
Ez dirade allegatu.

Dios te salve, ongi etorri
Gabon Jainkoak digula
Gabon Jainkoak digularikan
Egun onen bat digula.

Nere lagunak asi dirade
Aldamenetik kejatzen
Oraintxen bada astera noa
Andre nobia koplatzen.

Dios te salve, ongi etorri
Gabon Jainkoak digula
Gabon Jainkoak digularikan
Egun onen bat digula.

Andre nobia zabala
Etxe oneko alaba
Informaturik etorri gera
Limosneroa zerala.

Dios te salve, ongi etorri
Gabon Jainkoak digula
Gabon Jainkoak digularikan
Egun onen bat digula.

Or goi orretan iturri
Ura tir-tir-tir etorri
Gaur koplatzen dan andre nobiak
Ama Birjiña diruri.

Dios te salve, ongi etorri
Gabon Jainkoak digula
Gabon Jainkoak digularikan
Egun onen bat digula.

Lekunberritik ununtzexio
Erri txiki bat Uitz
Nere lagunak, aski degu ta
Egin zazuten irrintzi:
aiaiaiaiaiiii!!!” [irrintzia]

(Eratsun)

GURE HITZAK

Artxobia: Mandoaren gainean paratuta, egurketara joateko lanabesa.



Lekunberritik ununtzexio erri txiki bat Uitz.

ERITASUNAK ETA ERREMEDIOAK

Malerrekan egindako grabazioetan eritasunak eta hauek sendatzeko erremedio anitz bildu dira: kolpe handiendako, pixa egiteko, kalitxak kentzeko, mospelarendako, zingiriak eta gangarabilak zinatzeko, belarriko mina sendatzeko, odola gelditzeko, astanarra sendatzeko, sugearen ausikia sendatzeko, errabia kentzeko, mingaineko pikorrak kentzeko...

GURE HITZAK

Erromalu: Erromeroa (*Rosmarinus officinalis*), sendabelar baten izena. Landare usaiduna, lore urdinak dituen.

Zaia: Zahia, eho ondoren irinarekin nahasirik gertatzen den ale azal xehatua.

Ollarpuztana: Oilar-buztana (*Equisetum* sp), sendabelar baten izena. Azeri-buztana eta eztainu-belarra ere deitzen da.

6.1. Kolpe handiendako

Bai, bai. Nee atta Saldisan, bolsa ori baziñun beltza, dena, e! Au, dena, estali ta itten da ori, eskalek beitti erori, eskallera beitti zen... erori, ta dena kolpatua. Ta, geo ta kus nun. Ta, **erromalu** au ez giñek... ez giñun ordun oaiñik, baserri batea yun ta ekarri nun. Ta, in giñun, geo, **zaiekin** ta lodittu, lodittu eerki. Gero, itten da... etzantu in bar dozo, beste aiñekun itten da korritu, karga asko artze'maito, ta kargatu. Patu zen xuri-xuria biarren euneako!

Ink.: A bai, e!

Bai. Kolpia, mño odoli ore, dana kanpora atea zen. Romerua, ardua, zaia ta xaon pixko atekin, ta olaxe pixkot zeatu, ta, espezial! Ongi gelditzen da. bai.

(Saldias)



Erromeroa.

6.2. Pixa egiteko

Ollarpuztana pixa itteko. Mundun den gauzik obena!

Ink.: Eta noiz biltzen da?

Nai duzulik.

Ink.: Eta idortzen da ere bai, do...?

Idortz... idortuta eerki eoten da.

Ink.: Eta nola artzen da? Infusiun...

Uri... nai [ba]len baozo, baraurik goizin; ta nai bazo afal... afaldu ta goatzi(a) yutean arto.



Pantail-belarrak.

Ink.: *Denak infusiun artzen dire?*

Urikin! Urikin ta azukre pixkot, bado... kiaztasuna pixkot. Ta, emin emakume bat tor zatzen neri pix itzul[a] itten. Ta, bere *attayarruak* bazun, e!, belar uri itxi(i)n; ez man! Onara torri ta: “Zelestino, baduzo... ollarpuztana bauzu?” Ta: “bai, badut”; “kartz’zo pixkot”. Ta, yun ta, goitti ta, karri nun ta, man nion, ta: “kusi baiu ze errekek atea(ko) ttuzte!” [irriz]

(Saldias)

6.3. Kalitxak kentzeko

Apua entertuta ta... ta geo... (...) Gero izatn da (i)satsa erraten dena, or, mendiyin... du izena. Ta urari koopillo bat in, ariri izaten baite dena, adar me-mea izaten du, ta ari koopillo bat in batin ta oa etziñun geio ikusi b(e)ar. Ta yuaten tzela.

(Legasa)

Ordun esaten tzuun, guri esaten tziun pasta, zaarra, aberea(k) pizkarrean ailletako, lanean ibillitako arreri kendo, ille are pixko pasta... pasta ille pixko at eta arrekiñ iurtzi ongi. Eta, karetxak yoaten tzi(e)la.

(Ezkurra)

GURE HITZAK

Pantail-belarrak: Zain-belarra (*Plantago maior*), bildots-mihia (*Plantago media*) ezpata-plantain (*Plantago lanceolata*) deitutako belarrak. Hosto handi luzaranak ditu; haren egoskinak sendagintzan franko erabiliak.

Isatsa, lisatsa: *Cytisus scoparius* izeneko landarearen euskal izena. Zuhaixka lekadun lore-haria, abar mehe eta malgu ugari, eta hosto gutxi dituen. Leku anitzetan erratzak egiteko erabilia.

Attayarrua: Aitaginarreba.

(...) Gizon batek, *el Peraltés* erraten tzioten. Adiñekoa zen gizon ori, eta, erraten zuten, bu... egun batian pasatze zen gure itxetiken ta erran tzun:

–¡Ui! ¡Ui! ¡Esta chica! ¡Cuantas verrugas tiene! –
erran tzion gure amari-.

–Sí, desde luego. Ya hemos hecho con... no sé qué de
plata, nitrato de plata, y no se le quitan.

–Ya le quitaré yo, que venga conmigo.

Yan giñen Sunbil aldera, ta an baziren **lisatsa(k)**,
eztakizu zer den lisatsa?

Ink.: *Nolkua da? Landare bat, biño nolkua da?*

Landare bat, pues da, loria atetzen du (...) dena au bazala, dena ariya bezala. Ariya ez, ariya biño geiago, *como tallarines* edo ola, dena. Mendin bada kantidadia [indarrez] men, bada kantidadia. Ta atetzen du lore ori bat, olatxe, au atetzen dun bezala, atetzen du ona... dena. Ola ttiki-ttiki bat, loe... adar guzietan. (...) Eta, aek... arek... yuan giñen arek:



Doneztebeko botika bat.



Xabezuria.

–Eta izazu iru koropillo.


Onek, adar bateri bat, bida, iru. Errezaz...zu...tu zuen etakit ze... neri etziten egin ez ukitu re daus ere. (...) Andiken egun batzun burun, ui! garbiyak [indarrez], arras [indarrez] garbiyak eskuak! Bakarrakin ola xuri... pixkot, xuri bezala... erranez nun izandu ziren... Adios nere karitxak, denak. Eta baz... banituen igual berrogei biño geiago.

(Doneztebe)

Eltxorria esaten da... euria, borraska bat bota ta igual gelditzen da, ez? ta gero formatzen da or... “eltxaurria ura edaten” esaten da (...).

“Eltxorria ura edaten nere karetxa sendatzen. Eltxorria ura edaten nee karetx sendatzen” esaten da miño atsik artu gabe bedetzi aldiz. Eta eztakitt, e... siñetsi in bar da, e! biño... nik nauzkin en... pil [indarrez] bat karetxa (...) eta kusten nunin **giltxaurria** ura edaten, beti saten nun oi... “giltxaurri ura edaten, nere karetxa sendatzen. Giltxaurri ura edaten, nere kare...” xi-xilla... (...). Amatzik esaten tzitten: “Bai, kusten tzunin giltxorria ura edaten, esa zazu bedetzi aldiz ta yuan tzizkizu denak”. Ni(k) deus ez nun in erremediorik eta pasatu zen.

(Zubieta)



Zubieta.

GURE HITZAK

Xabezuria: Sendabelar baten izena.

Eltxaurria, eltxorria, giltxaurria...: Ostadarra edo ortzadarra.



Sagu-belarra.

6.4. Mospelarendako

Moxpelandako belarrak, pareta zaarratan atetzen diren belar gixen batzuk, guk **sagu belarra** erraten diogu, bertze batzuk igual errain dute bertze izen bat. Eta da, ola, ostu gixen-gixen bat eta itten duzu zanpatu, maten zu ta atetzen du berak gurin bat. Ta ordun axala kentzen tzu aixa. Zanpatu ta kentzen duzu ola pixkot ta patu **moxpela** daun tokin ura eta, *de momento*, asnaia kentzen dizu, eta moxpela sendatu re bai.

(Legasa)

6.5. Zingiria zinatzea

Ink.: *Zingiriak ziñatzen zituen?* [amak]

Bai.

Ink.: *Ta nola iten zuen ori?*

Pues ori (...) belaunatan ta beiari itten zizkioten belaunak aundittu... ta... errapin miña, ta... leno, errapeko miñandako zaten tzen ori: San Juan belarrak itten zittun beretzi puska. Eta... eitten dizun arekin Aitaren... puska bakotxakin Aitaren, eta... eztakit, erretzen zun zerbait ere eta erraten zun:

“Zingiru[k] tire bedetzi,
Bedetzitik zazpi,
Zazpitik sei...”

Bedetzitik eztai... zortzi,
Zortzitiken zazpi,
Zazpitik sei...”.

Yuaten tzen a... akittu arte. Eta gero, errezen zun zerbait ere, eta geo denak, puska aiek denakin itten zun denboran, ematen tzion... brasan paratu ta su. Ta egoten ziren eketan; ta maten tzion eki ura miña zun tokira. Ta tapatzen zun gaintik manta bat(kin).

(Urrotz)

6.6. Gangarabilak sendatzeko

Ink.: *Eta gangabillak... sendatzeko?*

Bai, ori gatz pikorra(k) patzen zeren.

Ink.: *Nola zen? Ori...*

Gangabillak bedetzi zaten tzeren... (...) eta bedetzi pikor patu. Eta... ziñatu gurutze bat iñez, ola beti gurutze bat iñez yoan...

Senarra: Gero sura bota...

Bai...



Aker beltza. Aker beltzak gaitzetatik babesten zituen aziendak.

GURE HITZAK

Sagu-belarra: Errabia-belarra ere deitua (*Hieracium pilosella*), elkartuen familiako belar landarea, aski arrunta, lore-urdina.

Mospela: Ospela, hotzak eraginda eskuetan edo oinetan gertatzen den handitu mingarria.

Zingiria: Artikulazioetako mina. Sendatzeko belar bedeinkatuekin zeinatzen zen.



Ebaki-belarra.

“Gangabillak bedetzi,
Bedetzi(k) zortzi,
Zortzik zazpi,
Zazpik sei,
Seie...
Bostek lau,

Lauk iru,
Iru[k] pi,
Bik bat,
Nere ganda... nere gangabillak sendatzeko
Zirt! zart!”.

Ta sura botzen tzen. Eta, pikor ekin denekin gauza bera itten zen, ziñatu. Bedetzi pikor aikin, bai. Ta yuaten zeren... bai... goizian barurik in bar zaten tzen (...). Bai, niri **ziñatu** zirazten.

(Zubieta)

6.7. Belarriko mina kentzeko

Aurrari porejenplo... edo... pixa eraiñazi, eta bi tanta pixa bota.

Ink.: *Belarrira?*

Ta txarra omen da, e! miño nik askotan bota diot nere umeri... (...) bi tanta bota biarrira. Ta uf! guri... gur amak eta, zemat aldiz botzen tziuten?

(Zubieta)

6.8. Odola gelditzeko

E... pues ebaki bat ittekin, poejenplo, ebaki bat in, ta odola ezpazen geldize irmiarma sari patu. (...) Bai, edozein tokitik artu ta patu, bai... ori ikagarri ona da. (...) Artu artiken ta odola gelditzen da, ta ebakia re... oso ongi itten dio ebakiri...


(Doneztebe)

GURE HITZAK

Ebaki-belarra: Baltsamu-belarra ere deitua (*Calendula officinalis*), elkartuen familiako belar landare apaingarria, loreak horiak edo laranja kolorekoak dituen.

Gangabillak: Gangarabilak, gingilak, gongoilak. Halako ahultasun egoera, gurintxoan (batez ere masailpekoen) hantitzean nabaritzen dena.

Ziñatu: Zeinatu, gurutzearen seinalea eginez sendatu.



Amarauna.



Menda edo kukuxu-belarra.

6.9. Astanarra sendatzeko

Lenago, izandu zen **astanarria**. (...) Ta ori yartzen da dena pikorrak (...), bueno, gorriak. Eta erran tziuten, pues, yoateko xerritei batera ta an iraulka (i)biltzeko. Bueno, arropa(k) kendu ta larrugorritan. An, txe batin an dena ta **iratzi**... po! Denak, neskak mutikukin, denak arropi(k) gabe! Eta gero beinpin... eztaikit bi orduz edo iru orduz, ze ibilli giñen, akabo!, ura yoan tzen.

(Urrotz)

6.10. Sugearen ausikia sendatzeko

(...) Bueno, leen-leen erraten tzuten atxikia segun nun zen, aixe kentzeko moduko bazen labanakin ideki. Bai, gurutzi in ta al balin... baloria baldin baziñun, txupatu eta bota segidun. Bertzenaz, ur zurruzuku bat bota, ere bai ateatzen tzen. Ur bizia, osea, itturri bazterrin do ola baldin bazen, pues, iduki. Ebaki aunitz eztuzu itten aal, biño pixkot ebaki ta baloria balin buzu, txupa ta bota! Txupa ta bota! Ta urekin garbittu oi. Normalin eztuzu ua iresten, ez? Ordun ezta yaus pasatzen.

(Legasa)



Sugea.

6.11. Zakurrari errabia kentzeko

Oi zaten tzen... bear tzen *una mujer embarazada*, ori. Eta artu bar tzun oliyo epela guanta alean urin eta bota, zeñi itten tzion atxiki, aren buru gañera; ero zakurran atxikin gañera... zakurra(r)en buru gañera, ura sendatzeko. (...) Auin iduki ta e[rd]un bota. (...) Zakurrari errabia kentzen tzaiola erraten tzuten. Bueno, ori errangunia, errangunia pensatzen dut.

(Legasa)

6.12. Mingaineko pikorrak kentzeko

Geo pikor at atetzen bazu mingañin, laratzikin igortzi. Yuatn a segidun...

(Ituren)

GURU-HITZAK

Astanarria: Astanafarrerria, astanabarrerria. Nafarrerriaren antzeko pikor batzuk ateratzen diren eritasun arina, baztanga eroa.

Iratzi: Erantzi.

HERIOTZA KONTUAK

Heriotza gure eskualdeko ohitura anitzen iturri izan da. Horietako batzuk hautatu ditugu orrialde hauetan agertzeko, batez ere lutuarekin lotura dutenak.

7.1. Hainbat ohitura

Anitz izan dira heriotzaren inguruko kontuetan bildutako solasak. Orrialde hauetan, berriz, aukeraketa laburra egin da: bidegurutzetan hildakoaren ohatzeko puskak erretzeko ohitura, edo era ez naturalean hiltzen zirenei ematen zitzaaien tratua.

Hildakoaren ohatzeko puskak erretzea

Ink: Ta gero egiten zen bidegurutzetan baita re... erre, zerbat tere, ez? zer erre...?

An, an bai, guatzeko puskak. Lastaira ta ola erretzen tzeren an [irriak].

Ink.: Zer tzen lastaira?



Hilarrria.

GURE HITZAK

Lastaira: Koltxoi lana egiten zuen. Zaku moduko atal handia, lo egiteko, gehiengotan somierraren gainean jarriaz erabiltzen zena.

Xurikiña: Zurikina, artoa edo zuritzen denean gertatzen den hondakina.

Asto erdi bat: Astoa deitzen da zerbaiti azpitik eusteko zernahi egitura, bereziki zurrezkoa. Ikus 166. orrialdeko argazkia.

Lastaira? Ora zen telakin iña, bi zolokin, dena xurikiñez betea. Ta guatzeta in bar tzenin itten tzen bi zolo aitan sartu eskua... ra! ra! ra! ra! dena arrotu [irriz], ta guatzia itten tzen ordun.

Ink.: Ta xurikiña ze parte zen, e...?

Xurikiña zen artuan buruko... ez gañeko latza ora, eta ez barren-barrengo guri ora, tarteko ora, berexia.

Ura artua beie... xuritzen ari giñenin, beti **asto erdi bat** idukitze giñun, ara bota xurikiña, xurittu aalian beti. Gero ezkiñen aritzen, ordun itten giñun lana dena batin.

(Zubieta)



Auzkurrumia edo ahuntz-kurrumia (*Euphorbia* spp).

Era naturalean hiltzen ez zirenen heriotza

Lenogo satn tzuten, bueno oain pasatzen derenak **intertzen** d(i)re beste[k] pezalaxen... itten d(e)re. Alletu dere... urte aunitzik gabe urkatu direnak ta ori. Biño... ni oroitzen naiz, nik ortxen... hamazazpi'mat urte nittun denboran, il zen **Mendaurko** presan bat (...). Ta esaten tzuten, klaro lenogo... etzen interrua olakuri re itten besteri bezala, oaiñ igual... berdin itten da, biño ordun ez. Eta, esatn tzuten in tzutela a... zortzigarren egunin do ateri zen ura urin gañera bera, ordun karri zuten, eta baldiko ze interrui in men tzioten? Kamionan atzin eraman men tzuten, kamiona batin... kanposantura, anka zintzilik antxe ez kaja bat ez deus ere, ba ola esaten tzuten.

Pues oloko despreziuk itten ziuutzen lenogo oloko gauza oriri... ori egia da.

(Zubieta)

7.2. Lutu seinaleak

Lehen, orain ez bezala, oso arautua zegoen hil ondorengo lutua, baita harrigarrak egiten zaizkigun puntuetan ere: armarria estaltzea...



Armarria Bertizaranako etxe etxe batean.

GURE HITZAK

Auzkurrumia: Ahuntz-kurrumia (*Euphorbia* spp). Odola mehetzeko eta haurrak egiteko erabilitako sendabelarra.

Mendaur: Malerrekako mendi nagusia, kaskoan Trinitateko ermita ezaguna duena.

Intertzen: Ehorzten.



Malmaxkua. Zubieta.

Ink.: *Eta gero, zein... iltzen zenean etxe batean norbait, ze lutu señale zegoen?*

Pues, lutua ordun (i)zaten tzen, bali'mazun **eskudua**, itxiak eskudua, baaikzu nola d(i)en eskuduk or, pues, patzen tzen trapo beltz bat. Bi urte egon bar tzun arek. Eta trajia do bertze txaketa do, ordun txaketa aunitz ibiltze'maitzen, etzen orai bezala jertsia, ordun txaketa izaten tzen, o gabardina bali'maziñun, xolapan eraam (b)ar tziñun franka beltz bat. Edo emen besuan lazo beltz bat. Bi urte(z). Ordun, gero, urtebetetzi egunin, osea, tortzen tzen... yoaten tzen... **funtz(i)onik atetzen** tzien ordun ere, e! Iltzen tzen egunin, ez oai bezala i(g)andetan, ordun astalegun(e)tan zaten tziren oik denak. Etzen igandetan zaten. (...)

Ink.: *Gero, luto señale geiago, alfonbra ...*

Alfonbra, osea, danak etzuten zaten, osea, itxaldik... Ta gu, konpaazione [ba]tea, maixterra(k) baiginiñen, nausiri eskatu bar tziñion, ori, sepultura... "baaikzu il tzaigula ori", ta zeditzen tzizuten sepultura. Ta zu yoaten tziñen arara. Bera re yoin tzen onduan yartzera biño preferentzia, zuk, itxekuk, osea, bukatu artio bere denbora.

Ink.: *Eta ori zenbat denbora?*

Bi urte. Bi urte. Bueno, bi! Urtia in ta ya etzen... galtzen tzen aunitz, e! Urte (b)at, mño, lutua izaten tzen bi urte.

Ink.: *Eta gero, ezin zen eskean yoan, ez? Lutu garaian.*

Ordun bestik etzen itten. Bi urtez, bueno, lenbizko urtian etzen itten, ya bigarren urterako ya galtzen tzen, bño lenbizko urtian, *nada*. Iltzen tzen urteko bestak eta urrengo urtikun bat ez, ez eske-
ra yoan ta ez yaus ere, etzen itten. Bi urte.

(Narbarte)

Lutuaren iraupena

Pues sei illaute... segun atautxi bazen sei illaute, ama ta... do atta do bazen geio... senide bazen ere bai, geio, atautxina biño, ta ola zeren. Osabana ere bai itten tzen, lengusuna ere bai, ola zeren leno-
go... gure denboran ori zen.

(Zubieta)

GURE HITZAK

Malmaxkua: Ziguina, malbazuria. Egoskinak egiteko erabiltzen diren lore handi moreak dituen landare belarkara (*Althaea officinalis*).

Eskudua: Armarria. Etxe baten kaparetasuna eta noble-
tasuna frogatzen zuen harrizko seinalea.

Funtzionik atetzen: (Hileta)-
elizkizunak ateratzen. Norbait
hiltzen denean elizan egiten
zaion ospakizuna.

EKONOMIA

Ekonomia gai zabala da, eta, azken batean, gure bizimoduaren ardatza da. Orrialde hauetan, adibide batzuk bildu ditugu: nekazaritza, abeltzantza, erleak, errota, onddoak, ehiza, ikatza, morroi eta neskato lana, eta baita kontrabandoa ere.

8.1. Nekazaritza

Gariz ereindako alorrik ez da gaur ikusten Malerrekan, baina erein izan da gure eskualdean. Horregatik, ez da harritzekoa gure grabazioetan gariarekin lotutako lanei buruzko solasaldiak entzutea.



Artoa.

Garia ogia egiteko prestatzea

Bai, kartze zen **zamatan** itxera, ta geo ganbaran (u)tzitzen tzen giro ona atera arte, euzkia o giro ona atera arte. Ta gero, aurretik eskatu bear tzen lekua, txanda artzeko. Ta ordun, giro ona zenin, zuk baaziñun txanda, zui ematen tz'utzen; miño, gero aurretik eskatu ba[r] tzen txanda, leku eo artu bar tzen ta zuk in bar tziñun espetu berez denbora ona ator arte. Ta ola itten tzen. Ta ordun itten tzen dena, san dugun bezala, aberikin bueltaka-bueltaka, montonin patu **gari buruk** goitti direla ta pikorra euzkik ta aberik zapatuz itten tzen zolera yoan.

Ink.: Ori ze, emen plazan?

Emen, plazan. Ta gero, lastoa kentzen tzen pixkan-pixkan. Ta geo, azk(e)nin gelditze zen zolan pikorra ta geo itten tzen... aize(i)k bazen, aizikin. Miño gero, kusten zen ya aizea izatea zalla zela re, ta ordun, klaro, zen katxarro bat eskuz pattiuka! Aize makina (b)at bota lastoa ta garia naasin ta aize makinan itten tzun berexi pikorra alde batera ta lastoa bestera. Ta orexe kartze tzen txera, pikor pixko ura.

Ink.: Eta aize makina ori ze izaten zen, errian bat, edo...?

Bai. Bat... soziedadén bezala, sea, emen... ze zaan [gi]ñen, ogei (i)txe do ogeita amar o ola **zaan** giñen, denan artean erosi zaten tzen ta **eo itten tzen** txandan-txandan, girua nola itten tzen, iru leku zaten tziren emen, giro ona zenin aproexteko egunean. (...) Ta an, karo, an patzen zen monton pilla bat gari, gari zamak; ta oi itten tzen giro ona zenin aproxtu dena. Nola giñen oeita amar edo zerbatt e ola, iru ta... irunaka-irunaka, seun denbora nola yartzen tzen batztan itten tzen laixter ta bes-te atzutan igual ionen tzen illaate bat edo geio igual, ezin berexiik pikorra. (...)

GURE HITZAK

Zamatan: Mukurutan. Zama, berez, abere batek eramaten ahal duen karga.

Gari buruk: Galburuak. Gariaren buru edo buruxkak.

Zaan: Izanen.

Eo itten tzen: Eho egiten zen.



Laiak.

Ink.: *Eta gero, gari ori ya bereixia zagonean, ze itten tzen? Nora altxatu, do...?*

Bai, batzuk paatzen tzuten kutxetan, parkak edo kutx(a) oietan ta zen... beste atzuk zakutan ta, ze kantidaden zen. Ta gero, ue ongi etortze(n) tzen, igual, gazta... ordun ittn zen txe geienetan gazta, ta gazta eoten tzen gari... **artakan** sartu ta aizegua... ori... zela ta aizegua eoten tzen garikin tapatuta. (...)

Ink.: *Eta, ori gariarekin. Ta artoarekin gauza bera itten tzen, emen plazan ta ola, do...?*

Ez, artoa ya bilddu ta bota sabaiara. Ta geo, andi[k] ya eramtten tzen errotara, orrek ya beste lan at tzun. Garik lan geigo zun. Ta, **maiz arek** eztu lastorik do brua berexteko, ta lastua bere-berex in, xuritzeko denbra, ta uri biltzen da ya garbia. Ta uri da, gero, pikorra berexten tzo ta errotara [er]ama[n] re bai. Ta ero, ya, talok itteko eder[ki] ya.

Ink.: *Eta errotan baziren bi arri, bat garindako...?*

Bai, bat gariintzat ta bestea maizentzat, bi arri bazeren.

(Saldias)

8.2. Abeltzantza

Abeltzantza da gaur egun nagusi gure eskualdean. Dena den, urruti gelditzen dira otsoak ziren garaia, edo behorak ikaratzeko eltzagorra erabiltzen zena.

Otsoak, Sunbillan

Emen gure atautxi zenak otsun errestua artukatu men tzun emen elur batkin, pasatu men tzen emen otsua. (...)

Ta emen baserri batin Alu... **Altxupero**, bai erran dun Xenpelar unen raza tire oiek, ta zuazi noizko kontu den, ob... ardi zarrak bordan zaki ta b... tellatutik sartu otsua, ta gero zerriyik ataktzen... ta kanpra ate nai berriz otsuk... kanpra ta zerriyak autxik'ka i... illa arrautu men zuten otsua bordan barnin.

(Sunbilla)

GURE HITZAK

Artaka: Lurreko harrien arteko zirriketua edo arteka.

Maiz: Artoa. Malerrekan, eta Euskal Herrian oro har, maiz eta arto hitzak erabiltzen dira.

Altxupero: Altsuperea, Sunbilla etxe baten izena. Leku-koaren arabera, Xenpelar bertsolaria etxe honekin lotua zegoen.



Otsoa.



Arrazteluak.

Behien kalitxa

Apoa, apoa yarri. Apoa yarri lepoan.

Ink.: *Lepoan zintzilika?*

Bai.

Ink.: *Pote baten barnean, edo...?*

Potea, potea ortxe (d)auket emen nik iñik, bere kuerdakin. Bai, bai, iru beiena ____ bai. Ta arretxe-koai krixton kaetxak, e! Da, apo yarri, ta.

Ink.: *Eta noiz kentzen dire karitxak, apua konsumitzen denean?*

Bai, **guk eukitzen** doo ortxe illeete atean eo, antxe apoa, antxe bere poteakin txintxilika.

(Ezkurra)



Eltzagorra.

Eltzagorra

Ori lenogo... zera men tzen, biorrak eta... itxe bazterrera do **belagitara** torzen zirenin aizkatzeko. Orrek atetzen do... ore da egur bat ustua, alderde batin bado... patua larrua, aunts larrua do... tanporrari ta bezala, ta barrenian do... lokarri bat, ta ori eskukin titu ta atetzen du olko... soño raro bat.

(Zubieta)

GURE HITZAK

Eltzagorra: Larru bat ezartzen zaion eltze modukoa, zarata ateratzeko eta abereak ikaratzeko erabiltzen dena.

Belagi: Belaia, belardia, belarra ematen duen soroa.

Guk eukitzen doo: Guk edukitzen dugu.

8.3. Erleak

Erlea janari eta bertze produktu batzuk emateaz gain, xomorro kuttuna izan da euskaldunentzat. Ezin ziren saldu, oihanean harrapatzeko modu eta hitz bereziak baziren, etxeko norbait hiltzen zenean, abisatu egiten zitzaien...

Ink.: *Eta gero, erleak ere kultibatzen zenituzten zuek...*

Bai.



Esnea biltzeko ontziak. Pitxarra, marmita, "ordeñadora" eta litroak neurtzeko bara.

Ink.: Zenbatean botatzen zituzten umeak? Eta nun? Eta zer egin bear zaie kontzeko?

An egoten tzien itxin goikaldin, ola, pareta (b)aten kontra, iuzki begin, iuzki begin. Ingurua sagardegia zen ta an botzen ziuutzen, adarretan, gutxiz goitti beitti.

Ink.: Eta umeak artzeko eta kutxetan sartzeko?

Pues, ori, paratu eskuan maindire bat, paratu or **kujoiña**, erraten giñiona kijoiña. Oi, **aienakin** iñak, t(a) gero forratu bei kakakin, ta geltzen tzen biño idortu ongi, eta beei etzaie urik sartzen, e! Ongi untatu bei kakakin. Eta **kujoiñ** artan sartzeko arraptzen ginttun **mentak**. Menta batzuk badi-re itxia garbitzeko. Biño menta xuriyak. Zaten die baratzetan ta usai bat ona izaten tenak, menta xuriak. Eta, ekin barna arraxkatu ongi. (...) Eta usai artara eztakit, sartzen tzien. Sartzen bazen erre-giña, denak sartuko zien! Mño ezpazen sartzen erregiña, *no hay nada que hazer*.

Ink.: Eta txistu egiñez edo ola?

Bai, xerobin-xerobin kix-kix-kix! (...) Itten giñun, ori, opor bateri patu, do zerbait ere untzi bat, makil luxe batekin ta artu emendik altua baldima zen, ola bazen, da. Ta an patu ondun: kix-kix-kix! Se(g)idun izautzen zun, itxekoandria sartu baldin baze bertzik denak brrrrr!, bigeltike (...) Izautzen giñun erregiña, bertzik biño aundigua da. (...)

Ink.: Eta ze klase daude? Erregiña, langilleak... eta gero badire geiago?

Zanganuk! Alferrak!

Ink.: Eta ze, nolakoak dire oiek?

Oiek? Eztakigu nolakuk diren. Bakizu ze itten ttuzten? An artu, ta il, ta kanpora ate. (...) Erraten te erregiñeri igitten diotela papilla bat espeziala. Biño nik eztut ikusi papill espezial ori. Nik eztut iku-si. (...) Nik eztakit nola itten ten, ankatan olexe eamaten te bazka. Kusi zu(e) beñi ere? Pues, olexe ankatan. Loria, lorin... polen. T(a) ori, ta gero nik eztakit nola arreglatzen diren ain gauza goxua iteko! (...) Ankatan eramaten te olaxe (e)mentxe. Ui, ui, primaderan leenago izaten tzen arbi lori

GURE HITZAK

Kujoiña: Kofoina, erlauntza, erle ontzia. Lehen aihenekin eginak.

Aienak: Aihenak, hazten diren tokian aurkitzen dituen gauze-tan kiribiltzen den zernahi lan-dare.

Mentak: Menda-belarrak (*Men-tha sativa*).

Zanganuk, alferrak: Erlaman-doak gehienetan deituak, erle arrak, erregina ernaldutako beste egitekorik ez dutenak.



Argizaria. Dendarinea, Zubieta.



Erlauntza berriak.

aunitz, arbiya, orai ezta kasi iritten ere. Orre(k) atetzen du lore bat ederra San Josek aldin o, izaten da. (...) Ori-oriya! Landa ta landa edozintan arbi ori-ori-oria. Bueno! Iruzki bero xamarra baldin baute ri-ru-ri-ru!, erle musika an eoten tzen!

Ink.: *Eta, bueno, ontzi oiek, kufoiñ oiek, edo oiek, nola egiten zenituzten? Nork?*

Atta aitzen zittun.

Ink.: *Eta zerekin?*

Pues, erran dizut ba, aienakin, biño aienandako itten tzun, ola, guardaso bat bezala, uri, **gaztañan** zepakin. Adarrak, gaztañan adarrak. Igual zain tzien un tamañokuk, ta oiri itten tzion brrriixta! Nola kentzen den naranjari puxka, azala? Biño, unaku uñaño itten tzun ebaki, ta ortik goitti utzitzen tzun mutur bat osoiken, *entera*. Eta eo artik urratu-urratu, ta gero artiken riki-riki-riki; bat bai, bertzia ez, bat bai, bertzia ez. (...) Gero igual geltzen bazaizkio makillak berexizko artakan sartu bertze ixkin bat. Eta yasta.

Ink.: *Biño eztia nola kentzen zenieten?*

Ekiakin. (...) Bai, **ekia**. **Lekutzeko erlik**, pertzenaz oi, ooooo! T(a) ero puxka atzuk kendu, barbarie. Bastante barbarie zen ura. *Pero* itten tzen.

Ink.: *Eta atxiki eman dizue noizbait ere, ola?*

Atxiki? Oi, oi! Bakotx aldiz! (...)



Aihenarekin egindako erlauntzak. Arantza.

GURE HITZAK

Gaztaña: Gaztainondoa. Malerrekan eta bertze eskualde batzuetan zuhaitzek eta fruituek izen bera dute.

Ekia: Kea.

Lekutzeko erlik: Urrutiratze-ko erleak.



Juan Andresena. Oieregi.

Ink.: *Eta orren kontra zer erabiltzen zenuten?*

Belarra. Iru belar diferente. Ta ekin arraxkatu ta *santo remedio*.

Ink.: *Edozein belar?*

Bai, belagikuk, belarrak. (...) Loiaikin ere bai. (...)

Ink.: *Eta ezta nola ateratzen zenuten kutxa oietatik?*

Zapaka, zapaka. Ta egosi ez daike iñ, e! Bear du egin natural. Pues, egin, pues, muttu aundiek pezala, biño zakukin. Zakuk bazien leenago ere arront zerratuk eta xuabeguk eta zakarrak onak. T(a) ura ola moztu ta in. Ta gero ura lotu nunaitiken ta bi makillekin riisst! riisst!, aspertu arte. (...) Ta gero ori kentzen giñun ta zaborrakin, egosi ta argizeria. (...)

Ink.: *Eta gero, etxe batean etxeko nagusia iltzen baldin bazen, edo etxean norbait iltzen balin bazen, erleei esan bear zitzaien, ez?*

Bai. (...) Pues ori, pues... nola il den etxeko nausia ta au... yotzen nion kax! kax! kax!, ta, itxeko nausia il da ta itteko argizeria arendako. Ori nik in zandu ut neonek, e! Bai, bai. (...) Bedetzi urte nitunin do ola il tzen atautxi ta oroitzen naiz amak igorri zitela. *En enero murió el atautxi*, enero zen illabetea (...): “zoaz, zoazi, erraziozu erliri, yoziozu kax! kax! kax!, errateko atautxi il dela. (...)

Ink.: *Eta gero, zuk aitu duzu yendea yoaten zela erle eske mendira? Erle billa.*

Bai. (...) Zuk arpatzen duzu lenda(b)iziko, zuk in gurutze, ta ura zuria. (...) Pues, *nabal batekin* igual, kendu... terrenoa... ezpala kenduz, pixkot guruze baten forma. Ura zuria.

Ink.: *Eta nola yakiten zen nun zen erlia?*

Pues, *del ruido*. Zaten te *beauren asotsa*, kusten tzu erlia atetzen, sartzen, milla gauza. (...) Ur(e) edatera yoaten dire, erlik ure aunitz eaten du. Edan ta eraman ankatan, zertaz eztiy’ori dena zerekin in dute? (...)

(Narbarte)

GURE HITZAK

Nabal batekin: Laban batekin.

Beauren asotsa: Beraien zarata.



Erlea.



Euxtakio Mutuberria. Sunbilla.

Gu zaten gin kostunbria atetzen tzieliken paatzen ginion **erlauntza** do ori, pixkot a... azukrikin do ezti pixkot baldi'mazen untatu barrun, eta arta biltzeko. Dena [indarrez] ibiltze bueltaka ta, gure amatxi[k] ere iten tzuen, aezu errate tzu berak kantua "Bertan, bertan ederra! Bertan gelditzen bazarete, bertan, bertan ederra bert yarri!" ta etortze tzien.

(Oitz)

Guk benpen afizione ikaragarriya [indarrez] bagenun ortara, ui! ui! ui! ui! ui! Mekauen! txikitan... gu allet zandu gara emendik iru [indarrez] ordun burun aritzin erliak ate, ta bi anaiok (...) bi orduko bidian bizkarrin ta **erlakumek** eta artu, ta ka... ariztikan eultzara ate, aizkorakin autsi aritza, onborrin sarzen baizien ba oik... (...) ta an itten tzuten erlik kabia, ta an sartzen tzien, ta yuan ta zeñek arraptu lemizko, gurutzi itten ion aritz areri ta geo yuan ta ate, ta kartzen ginttun. (...) Bai, tapatu ta leno ezkilli bezalko **eultz** tzar batzuk zaten tziren... yoari bezalko batzuk. Ta ek gero, o... ma... tel batekin, trapo batkin edo... zera, pañulu aundik zatn ie, aekin lotu ta karo... negun kartzen tzien ori, e!

(Sunbilla)

Erleen inguruko errateak eta usteak

Ink.: *Eta erraten da erliak eztirela saldu bar...*

Lenuo ori erraten tzuten, zerbatten alde trukatu, kanbiatu, saldu ez, diru aldera ez.

Ink.: *Eta trukatu bar baldin bazen, erran bar zitzaien, ez? Erliri... abixtu do...?*

Eztaki[t] nik, leno gure ama zenak erraten tzun ixin norbatt iltzen bazen, erliri yuan ta abisten omen tziotela, makillikin iru koa... kolpe koxkor man eultzin ta... etx... etxeko zera il da, argizariya ittko. (...)

Ink.: *Eta erlia arrautuz gero erran bar zitzaien "Bertan, bertan Maria"... ta...?*

Bai, ori bai, **ieultzan** sartzea... osea kumia ez, ez igesi yuatko... [irriak]

Ink.: *Ze esaten zen? Nola da ori?*

Bai, bai, bai, bai, "Bertan, berta, Maria ederra! Bertan, bertan Maria ederra!". Osea, kumia arratzen zen zintzillika zagolikan, ue... ez igesi yuatko, ieultza patu ta an sartzeko.

(Sunbilla)

8.4. Errotan ehotzearen alde zenbat kendu. Neurriak

Herriko errotak ere galdu zaizkigu. Zubietakoak dirau zutik eta zabalik behialako erroten lanak erakusteko prest, baina bertzeetan jada ez da arto edo garirik ehotzen. Haien oroimena, berriz, ez da oraindik galdu.



Zubietako errota.

GURE HITZAK

Erlauntza: Erlekumea hartze-ko prestatzen den babesa, erle ontzia. Lehen, aihenaz egiten ziren.

Eultz, ieultza: Erlauntza.

Erlakumea: Erlekumea, erle taldea, bereziki bere erreginarekin bertze erlauntza bat osatzera doana.



Laka.

Pues ordun guk eo aldera kendutzen tzazion zeren medidak: **errugu** at baten... bazen kentzen zizion **laka**... **almotia** satn tzazion. Almote kajon... kaja koxkor bat tzen, kilo bat biño geixio zatn tzen ura. Eta... erru'rdi baldi'mazen e... kendutzen tzazion aen erdia, **txopiña**.

Egon, laka, almotia... txopiña ttikia zatn tzen, kuartua zen txopiña, eta laka erdia bestori. Laka, almotia ta almote erdia, ta gero beste ttiki-ttikia zaten tzen **txilla** deitzen da, bez... kuartua, orren kuarto bat (...).

Erruguari kentzen zazion e... almote bat, ta errugu erdiri kentzen zazion laka erdia, eta, gutxigo baldi bazen, ttikiguari txin ori kentzen zizion.

(Zubieta)

8.5. Onddoak, zizak eta perretxikoak

Egia da onddo kontuetan gutxi ateratzen dela kanpora saltzeko, eta gehiena etxerako gelditzen dela. Hala ere, oso preziatuak dira onddoak gaur egun ere, eta haiekiko benetako zaletasuna antzematen da Malerrekan. Gainera, sinesmen arrunt bereziak bildu dira onddoen inguruan.

Bai, emen badie bastante klasiak, izautu in biaute, bai (...). Onddua... onddo ona izautzen da aisa, batek erran ziri... zaar batek. Emen, poejenplo, au da onddua, ez? emendiken artzen tzu, ixkiñ untiken, e! eta, zera... azalak bia... bar yu korrittu azalak; artu ta tirtt! ezpada korritzen txarra da ura (...). Ortiken izautzen da onddua, bai, ortiken izautzen da... nik prueba in dut eta onddo gaixtuak izautzen baittugu guk lenagotiken... artu ta kask! austen tzaio axala, ta onari berrizen txits! korritzen dio axala... bai, ortan dago sekretua.

(...)

Ink.: *Ta gero badira uste batzuk onttoen ingurrun ta ola... (...) ttikiak ikusten dituzula ta ez direla azitzen, o...?*

Bai, eta ori egia da, e! niaunei pasatu zaitt ori, bai. Beiñ an baserrin giñela, baserrin gañiko aldin ola, ta onddo ttiki batzuk kusi nittun, ta nee battan "ok aziko ttuk". Patu nittun arbaz batzuk gañin, ardiek ta ez yateko... ta ondduak etziren azi geigo, akabo! artan geldittu ziren.


(...) Edo golpin tortzen die, edo nik eztait ze pasazen en onddukin... pues, orixe pasaz zittten, batere etziren azi ek, bai... (...)

Ink.: *Eta gero ipurdia ere utzitzen da, ez?*

Bai, uztia obe, obe.

Ink.: *Ori zertako?*

Azia an geldizen zaio, berriz urrengo urterako do... bai, ori obe izaten da uztia beti, bai.



Onddoa.

(Doneztebe)

GURE HITZAK

Errugua: Erregua, ale edukiera neurria, anega erdiaren edo sei lakariren baliokidea (28,3 litro).

Laka: Errotazainak, eho lana-gatik, gehienetan gari edo artotan, hartzen zuen saria. Ale neurri zaharra, ia bi litro eta erdi dauzkana.

Almotia: Almutea, ale neurria. Ia bi litro eta erdiko edukierakoa.

Txopiña: Txopina, pinta laurdena, litro erdia.

Txilla: Txila, almutea. Testu honetan, berriz, bertze zerbait da.

Gaitzurua: Gaitzerua, ale edukiera neurria. Toki batzuetan lakariaren, eta bertzetan bi lakariren baliokidea.



Gazta egiteko zimitza eta prentsa.

Leno biltzen tziren ondduak izaten ziren... ta etzen uste... urte guzin izaten tzirela, eta biltzen tziren ondduak izaten ziren... orrirun... urrirua, otubren, **iratz itten** ai giñeliken. Eta oain man duu kontua aspaldin e... pues atetzen direla... asi maiatzan oeita zazpitik edo... biatik... iruatik edo asi, eta... beun... epoka dute... ia San Fermiñak alde arte. Eta gero... **Ama Berjiña**... aurretik asi, eta... ya berriz Amañña ondu artio, ogei bat egu... amabos bat egunez.

Lebizko atetzen dire betti, beitik, asten dire betik [g]ora, Frantzi aldetiken... e(k) gero segitzen dute gotti... e... **Norte** aldetik, eta gero atetzen dire ya mendira ondarreko. Eta... oa, gero zaten dute... gero asten dire San Migel... aurrin, o San Migel egunetan eta ya otubre guzia.

Ink.: *Ordun badire etapa... diferenteak.*

Bai, badire etapa at. Ta... xixa[k] perriz zaten dire... primaberako xixak ates...ten dire... ma... segun, batzutan asten dire apillin... martxun...

Ink.: *Ori sisak...*

Bai, xixak, xixa xuriak maiatza artio. Primaberako xixak.

Ink.: *Eta ondduek ordun zenbat... etapa dituzte?*

Onddue(k) battute... iru etapa, eta... gero tartin ere atetzen dire noisnai. Osea, eta... etapa bat'tik bertzera bat edo bertze beti atetzen da.

Ta gero zaten dute azia, xuria, arroza bezala xuria. Ta batzuk erraten dute etapan ondarrin ezaten dela... ta nik erraten dut etapan a... **aspentan** dela. Eta ya aiek asiz keroztiken ya m... egun pare bat o bezperetiken asten direla. Aldiro ezt... eztire sortzen, igual... eztu denborak maten, ta azia iltzen da. Miño gero, azia(k) yuan bar du egunin biño eunin e... xurigo, brillantego, politteko... eta... ya gero... yuaten da pasatuz.



Onddoa.

(...)

Ink.: *Ta gero onddoak atetzeko ere illargiak badu... eragiña, ez?*

Illargia(k) badu bere eragiña... badu... neretako, nik, e... nik itzautzen... osea, kalkulatu dutenaz, ilberrin atetzen dire ilber... berrian, illargi berrian atetzen dire... geigo. (...) Eta, ilberan berriz atetzen dire guttiago, ta zerbait baita re ederrago.

(...)

Goaiñ e... al baditke moztu... ipurdia an utzi. Erraten dute ipurdin dula azia. Biño onddua, txanpiñonak eta itten ttute, biño ondduak itteko... sortzeko gizonak oaiñ eztu inbenturik ateri. Onddua sekretua da.

(...)

Eta... atetzen dire, ondduak eta onddo gorringuk sortzen dire ttikiak badire ttikiak eta aundiak badire aundiak, kolpe batin. (...) Gaur bildutzen ttuzu toki batin igual bi kilo eta... da oso toki garbia, ta erraten tzu "bueno, dena(k) bilddu ttut". Bio biamune... goizin yuaten tzara ta sortu dere igual iru kilo. Segun tokia.

Ink.: *Ta ordun eztire azitzen gero? Eztire aunditzen?*

GURE HITZAK

Iratz itten: Iratzea egiten, eba-kitzen. Iraila izena hemendik dator, nahiz eta kasu honetan lekukoa urriaz ari den, Urrotzen iratzeak urrian egiten direlako.

Ama Berjiña: Andre dona Mariaren festa handia, abuztuaren 15ean ospatzen dena.

Aspentan: Hasmentan, hasieran.



Morkotsak biltzeko matxardea.

Ez. Batzuk erraunte baiez biño ni... nik in dut prueba ta eztire azitzen. Nik utzi ttut markatuta, ta erraten te ezterela kusi biar, da eztela ukittu biar ta eztakit zer. Biño... neretako onddua yaiotzen da kolpin eta den bezala, ttikia dena ttikia eta aundia dena aundia.

(...)

Emen dena funtziontzen duna da... personak bezalaxe ondduak ere gorputzandako ze denbora dagon; denboran tenplia biar du. Aunitzek erraten te “Bai, euria in du ta ateko da”, ezta ori. Bear du bere tenporada, bear du bere... e... bere tenplia denborana, eta... oiek: baldi'mada sargoi ta baldi'mada oe... txanpiñona, primaderako txanpiñona, kazkarrabarra igual ai baldi'madu eta... baldi'mado arkoiris edo galtxagorri erraten den ori... eta... **denbora bortxinga berua**, seguro ateko da xixa.

(Urrotz)

Oaiñ, onddua kusten tzu ttiki bat, gaur, ta aunitzek erraten te azizen dela ura. Ta... beñ ikusten bazu ezta azitzen, oaiñ, balitteke... kus gabe azitzia? Nik ori ezpaitakit... biño, bein ikuszkeroz... ez, ez. Aunitzek erra te “Bai, bai, azizen ttuk”, bai, puñetas! itten ttuk. Erratn iot “Utzi, ik arrap zak onddo ttiki bat, utzi zak eberki tapatuta, ta **guaie biamnin**, kusco [du]k”.

(Ituren)

8.6. Ehiza: azeri masa

Bai ase... aseria pagatzn tzuten lenuo, “azeri masa” do erraten tzioten emen. Azeri... gero **izturik** iltze tziuzten ta... e, “azeri masa” ori erratn zio, azeri... kuota bat pagazen zuten errin depositariuri, ta gero azeri iltzen tzunak eamtn tzun depositarioi, ta arek matn tzion eztakit zemat pezeta...

(Sunbilla)



Azeria.

GURE EHIZAK

Denbora bortxinga berua: Eguraldi oso beroa.

Guaie biamnin: Hoa bihar-munean.

Izturik: Ehiztariak.



Ferratu aurretik hanka leuntzeko puxanta.

8.7. Ikatza eta ikazkinak

Ikazkinarena da gaur egun galdu den lanbideetako bat. Noizean behin erakustaldiren bat ikus badaiteke ere, jada inork ez du ikatzik egiten Malerrekan.

Ink.: Zenbat lagun aritzen ziñeten txondorra egiten eta...?

Bueno, obra itte iñunean, amasei laun. Bai, bai. Batzuk eurre txikitzen, beste atzuk txondorra itten, beste atzuk txondorrai su man da kasu itten...

Ink.: Ordun txandaka, ez? Ibiltzen ziñeten?

Bai, klaro, klaro. Txondorrak eosten pare at, iru (b)at eo; ta, eske, txondorrak ee ezpaitte tta-tta-tta, ta ak zulatu igual itten die! Su atera; ta aik in bar dizo zulatzen asten denean eurrez bete eta b(e)rrez e orbela paatu eta lurrez tapatu bea'zu berrez.

Ink.: Kontatu igual asieratik nola in bar den. (...)

Plaza, bai, plaza... lenbezko zelai bat eerra in, zelai earra iñ; ta geo, an potz patzen tzien tronkillo atzuk, tronkillo atzuk ola pat'tzen tzien ta aiñ gañean zotzak. Ta tronkillo aitik, gero, asnasa sartzeko, andek zuloa itten tzenen, txondorrai zuloa itten tzenen, bueltan-bueltan zuloa itten tzenean asna sartzeko egurrai baztar guzian, asna sartzeko andik. *¿Me entiendes?*

Ink.: Bai, ulertzen da.

Konpaaziora, au itten den garaian, egur gogorrenak e patzen tzien, egurrek paatzen tzien buelta guzin, buelta guzin; ta on gañen zotza, oiñ gañean itten tzen eurre paatu, eurrek.

Ink.: Ola, ingurun.

Bai, juntoan. Lenbeziko itten tzen, ola, zea (at) bezala, tximiñie (b)ezala, tximiñi e(t) pezala, au bezala iñen baletz [zerbait seinalatuz]. Nola esplikatuko nuke nik? Bueno, tximiñi... ekatzazu... [objektoren bat eskatu digu]. Por ejemplo, itten tzen form ontaa, beetik asi ta txondorran bukaeren... bukaereño tximiñie. Eta bixtotzen zen...

Ink.: Zutik paratuta ingurun-ingurun.

Bai, bai. Denakin itten tzen, plantxekin zera, tximiñie. Eta, ore asten zen lenbeziko plantan, ta, lenbeziko plantatik biarrena itten tzenean ee, brez e tximiñiik koa ateatzen zen. Ta, iru planta txondo-

GURE HITZAK

Txondorra: Ikatza egiteko eratzen den egur meta.

Txondorra eosten: Txondorra egosten.

Asnasa artzeko: Arnasa hartzeko, airea txondorrean sartzeko.





Mandoarentzako "kollara".
Saldias.

rrak izate(n) zittun. Ta lenbeziko plantakin, eur aundiken; txondorra, txondorra aundie zen, bai! Iual... ezta(i)t pa zemat tonelada... eun tonelada iual, txondor aundi(e) in! Ta, [kon]paziora, lenbeziko planta. [Kon]paziora, dos zinkuentako eurrekin, eo.

Ink.: *Bai, metro bat biño geiago?*

Bai, dos zin... *o no! Uno zinkuenta*, estilo ortaa. Gero, orreaño itt(e)n ziñunean, berrez e tximiñi au gora, luzatu zu berrez e gora; ta or ee, bengal, an ee txikixagoakin, eur txikixoakin; da, berrez e berak(a) itten tziñun ore. Ta, berrez irugarrengoa emaitteko, berrez e gora tximiñi ore. Ta ya, or ya bukaera. Eta, azken-azkeneako meiakin, lenbeziko koxkorraikin ta gero, mei-meiaikin dena bueltez itten tzen. Ta, gero orbelakin da itten tzen earki, dena txondor oi tapatzen tzen orbelakin, ta. Aizea bazen txarra zen, aizea eamaitten asten tzen. Beño, mendin bizi zena bustiantza, ta... itten tzen, da gero, lurreke[n] tapatu ongi, lurrekin artu ta ra-ra-ra-ra!, **esportakin**. **E(a)rki ikaste(n) tzen!** Tar-tar-tar-tar!, lurre askokin. Ta, bixtotzen tzelik, goiti(k) pota sua, tximiñi ortatik beera. Ta, beian bixtotze zen su ure, bixtotzen zen da, eurre den... denan or baitzauden, ba, zeatik, tximiñitik, eurrege ortan, asnasa artzeko. Aizea aitze'maitzun ba; txondorra biztotzen tzen ta bixtotzen tzelaik e karraka ortxe amaost-oei bat eunen txondorra eoten tzen. (...) Ta, eosten tzelik, bueno, eosten tzelik, bengal, ikatza ateatzea. Biño gabez, gabez ikatza ateatzea, e!

Ink.: *Eta egon bear ziñuten pixka bat begiratzten, mugitzen...?*

Bai! Bai, bai, bai, bueno! Iual itten tzen bixto re su! Eurrek izate'maittu ola... eurre, ola, pasatuan-txa, geldoa esaten diou guk are. Ta geldo ori, itzaletaa re bixtu itten da. E, entenditze zo?

Ink.: *Bai.*

Zalle da itzaletan bixtutzen, e! Geldoa da, esanen nuke iur pasatue, eur zuri bat, pasatue; baño, us-tez itzaltzen duzu, baño berrez barrendik edo biztu itten da. **Patsoa** esan nai nu(k)e. Ta, artatik ikatza su artzen asten tzen. Errepaatu bar giñao, joer, azkar!

Ink.: *Eta nola jakiten tzen egosia zegoela?*

Bai, ya, zeatzen baitzen, ba! Ya, lurrek eta auts biurtzen tzien, lurrek eta. Geo, txondorra re ekez akitzen tzen, ekez, e!

Ink.: *Eta gero, sartzen ziñuten zakutan, edo...?*

Bai, zakutan.

Ink.: *Eta etziren erretzen zaku oiek?*

Ez, ez, ez. (...) Ez, baño oztota, konpaziora, ikatza atea ta andik bi eunea o sartu za(k)utan.

GUR-ITZAK

Esporta: Buruzarea, otarra. Nafarroan erabiltzen den hitza da.

Patsoa: Geldoa, motela.

E(a)rki ikaste(n) tzen: Ederki ikazten zen, ederki ikatz egiten zen.



Egurra oihanean.



Idien kopetakoak. Saldias.

Ink.: *Biño batzutan su traidore ori...*

Baita re, baitta re, bai, to(k)atze tzi[n] aiek, bai, tokatzen tzien oiek. Ta zakuk erre, re bai.

Ink.: *Eta ikatz ori nora eramaten tzen gero?*

Ordun fabrika zaon **Orbeozo**, Zumarragan.

Ink.: *Eta arañño nola eramaten tzuten?*

Kamionakin.

Ink.: *Baño etziñuten jetsi bear mandoarekin lenago?*

Bai, bai, bai. Mandoakin, **mandazaiek** zien. Iual batek zortzi mando igual, beste atek lau igual. Bi mandazai eo izaten zien.

Ink.: *Zu etziñen aritu?*

Ez. Mandazaiek, or ibilli zienak zien goizutarrak, goizutarrak, Goizuetan zen mandazaie bastante. Geo, Ezkurren bazen ee, Jaitano! Jaitano esaten geniona, bazena.

Ink.: *Eta txondorrari egin bear zitzaion ola, makil batekin pixkat aizatzeko do?*

Bai, bai, bai, bai. Txondorrare bete zuloak eta erdin e bai, zuloak, ola buelta guzi(e) inda.

Ink.: *Zerekin?*

Zeakin, koño, eurrekin, zirikin eo, ortaako iñeko zirik, ortako prestatuk. Ta ure eoten tzen ekea fin-fiñe: paf-paf-paf botaz ekea eoten tzen. Oaiñ, *a vezes* igual ras! zulatu ta ue koda patzen zunan bix-tutze zen, bañon urdun in bar tzen, iual gaba, goizeko iruetan igual!, txondorra asten zaienen gerra at, buelta itten tzun, ba, igual. Ta, igual yoaten tzen bakarrik bere linternaken eo, ta laune zuna: “bueno, benga, jaiki! Txondorra zulatu uk eta benga!” Yoaten tzien biek eta eur batzukin eo bete, zulo ori bete ta berrez e benga!, tapatu. (...)

Ink.: *Eta ikatza egiten zenutenean ze egur klase izaten tzen onena? Txondorra egiteko.*

Pagoa.

GURE HITZAK

Orbeozo: Orbegozo, Zumarragako lantegia. Funtzionamendurako ikatz anitz behar izan zuen.

Mandazai: Mandazain, herriz herri mandoak, garraiobide bezala, eramatea lanbidetzat zuena.



Txondorra.



Gaztain-mailua. Saldias.

Ink.: *Beti pogo. Eta zergatik? Aritzakin edo lizarraikin ta ola etziren egiten?*

Bai, bai, bai, gaztaiñekin e bai! Guk gaztaiñekin in dugu, ementxe bertan. (...)

Ink.: *Eta gaztañan ikatza esate ute arotzek naiago izaten dutela, edo...*

Bai, mantsogoa, xuabegoa, bai.

Ink.: *Eta berdin-berdin egosten da pagoana edo gaztañana?*

Bai, bai, bai.

Ink.: *Eta esan duzun orbel orrek idorra egon bear tzuen edo bustia egoten al tzen?*

Bai, busti... bustie igual da. Be! Bustie balen baa ue patzeko, obe.

Ink.: *Eta orbela, ze zuaitzena? Ze osto ziren?*

Bueno, pogo ta... gaztaiñekin, berrez, gaztañena.

Ink.: *Or zegoena, ez?*

Or tzaona. Bai, o pille badau uaiñ e! Da, andik artu ta, bengal

Ink.: *Eta illargiari begiratu bear zitzaion, txondorra egiteko? (...)*

Ori igual, e, eztakit nik ori. Oi eztakit seuro. Bai, zerbai(t), baño eztaki(t) nik ori. Zerbat(e) igual, e! Su... obe... ortan, su emattekoan. Ortan eongo zen diferentzia, su emattekoan, txondorrai su (e)maittekoan. Eske, eura, pagoak biñipin bear do su ittex keo ilberrii. Bai.

Ink.: *Eta botatzeko re bai, ez?*

Baita re. (...) Zea, pogo... eurrek su ungi ittex keo bear du ilberrie, kreziente; eta aritzek, berriz, nik uste menguante bear dula, aritzek. Guk pogo usatzen duu beti emen, pogo, miño guk... ori itten do, e! Krezienten, krezientean bota.

(Ezkurra)

GUR-ITZAK

Ikaztogitxarreta: Sunbillako leku izena, ikatza egiteko txondorrak egiten zen lekua gogoratzen duena.

Ikazpe: Iturengo leku izena.



Oihana.



Estufa zaharra.

Egurra bai, ikatz eitten enaiz aittu, all... alletu naiz laguntzen gabaz... igual sutuko txondorra... eta laguntzen... elkarreki(n) giñen, gu eurra itten ta bertzik zera... ta, **abixtu ziuten** ya launduko genion, ola... artu zun sua txondorrak eta yuan giñen. Berrizen el... arbel busko bota ta... lurra bota tapatzeko zolu ura ta, berri lotara. (...)

Ink.: *Ta ordun nola egiten zen? Egurra pillatu...?*

Egurra pillatu e... zutik, zutik, zutik, zutik.

Ink.: *Biño patu bar tzen ola, ez? Kuadruan do...?*

Zutik, zutik, zutik. Zutik pazen zen da gisa ontara egurra (...) ta erdian geldize zen xolo bat, da geo gaitik ematen tzen sua, bai, yuaten tzen sua bajo... ikatz puska batekin do... zera, botatze zuten bettira ta... andik olaxe, bai...

A, bettin patzen zuten **enbor golak** [indarrez], e! Terrible... lodiak pazen tziren... er... ertisun, asi berri artan. Ta gero ez, gero egur mia gaintik, egur mia. Biño, dena zutik, gainbera, olaxe...

Ink.: *Ta zer egiten zen? Gero, ola... egur pilla bat eta lurra, ez?*

Bai, lurra, lurra... bai, ostua... lenik, lurra biño lenago pazen zen... ostua bilddu, da... orbela erraten geniola, da... zera... denin patzen zuten ostua, ta gero lurra bota polliki, polliki, polliki de... denin, gañin.

Ink.: *Ta zenbat denbora kostazen tzitzaion erretzea?*

Bueno... miño... in biar zen ta...

(...)

Itten zen plaza bat, itten tzen... dena zelai-zelaia patu... eta gero pazn zuen onbor batzuk... zutikan elkarreri... ta gero, gero... gero... denin bueltan-bueltan-bueltan-bueltan-buelta-buelta... ezuten patzen... torria bezala gotti, belar meta klase... ittera... kasik eateko modun.

(Doneztebe)

GURE HITZAK

Ikazteko plaza: Ikatza egiteko plaza edo zelaia. Leku zelai bat beharrezkoa zen txondorra ongi egiteko.

Abixtu ziuten: Abisatu ziguten.

Enbor golak: Enbor handiak.

Ink.: *Ikatza... non egitten tzen? Eta zenbaten artean? Ta zenbat denbora biar tzen ori itteko?*

Bueno, ori... zemat denbora segun tamaño txondorrana. Txondorra itten tzen pues... lenbizko iten zen **ikazteko plaza** erraten giñion. Ni alletu naiz txondor kargatzen ta onengatik badakitt. Eta, aren



Segan.



Lurra iraultzeko arazabala. Sunbilla.

gañin padatzen zen, saria erraten zen, ola... bueno... erdi-erdian paatzen tzin lau zitte sartuta, ola distantzi pixko batekin. Ta, saria erraten zen... lurrin botazen zen arraill batzuk, lodi-lodiak. Ta gero, aren gañian arbatza. Ta gero asten zen egurra, paaten tzen aren (buel)tan pari... xutik-xutik, lodiña beti, lodina betti, ta *mina gotti*, ordun berak artzen zun ola konporta bat. Ta, lemizko pisu ola itten tzelik puska at, gero biarren pisua. Ta gero... biar bazun irugarrena igual, ta b... bikin igual, ta batekin ere bai. Pues, gero ya... igual, ondar-ondarreko berzen patzen ziren, *berdinga* erraten zien, ori... bare... ori... arrail ttikiak, miak, ordun itten zen berdindu arekin. Ta karo, aren gañin botatzen zen orbela, ta aren gañin paatzen zen ori... lurra. Eta, erdian lau zittitikan gotti, eaumten zen zuti-txia erraten zioten, zuti-txiak ori... egurrakin kruzin-kruzin-kruzin egiña xolu ura, brasa bota bar baizen bettiñokun...

Ink.: *Tximene moduko bat...*

Bai, ximene bat bai erdin. Ta ura, ta batzuk erraten zioten zutik-txia, bertzik bertze izen ba[t] pazun miño benpin...

Eta, ori... andiken ok kargatzen zelik orbel ori ta, bueno erran nai lurrakin ta ya ongi paatzen tzeliken, botatzen zen gottik betti sua. Ta eurra prestatu iukitzen giñun... egur txikittua ta, baldi'mazen berze xondorran irrinxaka ere bai, ni alletu nitzen aitik ere... pilla at botatzen, goiti[k] petti bota, ta sua. Ta ya sua kuszen zelik indartua asi zela itto, ya tapatu dena, ure... burnikin zerratu, su bizi ura, ta gero ya kuszen zelik pixko[t] pajatze aldera, eitten zen kendu... *ikazkilli* ibiko zen e... ori... bueltan-bueltan seguruna nun zagon, ankik sartu gabe. Ta ya modua arraptzen tzioliken, kendo zion gaintikan orbela... ta bueno orbela erdi eoten zen, lurra, eta... ure egurra eaman ta egurraz bete, lemizko ttikia, aundia... estutu dena, ongi. Eta, berriz orbela bota, eta lurra bota gañera ta uzten tzen. Ta ya betti asten tzeliken, egal-pasan erraten zioten, ya akabillan betti zeliken, ziri batekin eiten zen azpitiken xoluk in tarte-tarteka... a, ori ya... itteko da despeida ongi. Ta, ya... kus-ten zelik ya... geldittu zela, polliki-polliki yuaten ze ordun ikazkillia, ta gaintiken arraztelukin kendoaz, ta asten zen pikakin ikatza atetzen. Ta kusun tzun ya... egosi zela.

(...)

Ink.: *Eta, ze egur zen obena?*

Nik (sic), bagukin aittu zan naiz... iño aritzakin itten da. Emen aritzakin aitzin zien, ta gaztañakin ere bai. Gaztañakin bertzen... orik itten zuten... arotzak, *galarra* erraten zioten. Ori itten za lurrin zolo bat egin, sua egin, ta pota egurra puska da dena, ta lurrakin tapatu (...). Ta itzaltzen zeliken, pues... galar ori ateizn zuten orindako... sutegirako. Artarako gaztaña obena. Ta gaztañak du sua berua ta gero bela itzaltzen baita...

(Urrotz)

8.8. Morroi lana

Bizitza aitzinera ateratzea ez zen kontu erraza, eta batzuek gazte-gaztetatik utzi behar izan zituzten herria eta etxea, bertze nonbaitera joateko. Mutilek morroi lana egiten zuten gehienetan.

Ink.: *Zu oso gazte ziñela morroi joan tziñen...*



Bittoriano Arzuaga. Ardi ilearekin haria egiten.

GURE HITZAK

Berdinga: Egur handia, Azkueren hiztegiaren arabera.

Galarra: Gaztainondoaren egur-
rrekin egindako ikatza.

Mina gotti: Meheena goiti.

Ikazkilli: Ikazgilea.



Joareak.

Ni sei urtean atea nitzen. Eta errotatik errira uñutsik yoan nitzen.

Ink.: *Bai, e! Etziñun zapatikan?*

Bani... banittun zapatillek, ola, attek iñik, attek josi, e! Goma zeatu eta attek lizekin (d)a espartzi-ñek iñik. E, ore politte da, e!

Ink.: *Bai. Eta nora joan ziñen morroi?*

Nere lengusua ta nere parientea ta, bertan, da.

Ink.: *Eta gero beste nunbaitera?*

Gero ementxe, auzok[o] untan, baserri untxetan.

Ink.: *Eta amar bat urte ola, ez, esan ziñun?*

Gero, yoan nitzen beatzi urtean Saldisera eta etorri nitzen emezortzi urtean. Beño, ez, emezortzi urtean baño len, amiru urtean, amiru urte nittulik, emen **deseatu zeaten** basoako **arrantxero**. (...)

Ink.: *Emen egon ziñenean, zer egiten zenuen? Zein zen morroi lana?*

Emen? Emen, konpaaziora, beien aurrean ibilli; orduan artoa ta **banaarraken** ta bizitze'maitzen jendea. Eta, bakizo beien aurrea (b)akizo zer den, beiek uztarrin lotzen tzien, uztarrie baot gañea nik emen. Uztarrikin lotzen tzien beiek, ta ain aurrean, gañekoan uker yoate'maitzien, igual. Da, erre-katik xuxen eaman ta, nik ola eutsi, ain aurrean da. Gero artzai, ardik bazien baserrin, da.

Ink.: *Ordun lagundu bear ziñun etxeko lanetan, ez?*

Bai, itxeko lanetan.

Ink.: *Eta, familiarekin ongi konponduko ziñen...*

Bai, bai, bai. Ongi.

Ink.: *Saldisan ere bai?*

O(b)ekina Saldisen. Emen eondu nitzen goseak, emen goseak.

GURE HITZAK

Arrantxeroa: "Rantxoaz", janariaz oihaneke lanetan arduratzen zena.

Deseatu zeaten: "Designatu" zidaten, izendatu ninduten.

Banaarraken: Banabarrekin, babarrunekin.



Doneztebeko ferietan.



Kaiku pareia.

Ink.: *Etzizuten ematen jatekorik?*

Gazure, bakizu zer den **gazure**?

Ink.: *Gazure, bai.*

Ardi esneakin indako ondoreko gazura, guk (g)azura esaten di(g)u. Lenbezo gazta iñ ta geo, gazura, saten diu. Ure naiko gabe eendu nitzen emen ni! Gose...

Ink.: *Gazura naiko gabe?*

Gabe, goseak. Baserri ontan, e, Baskoiko baserri ontan. Ta, or ibilli nitzen, ba, oiñutsikin.

Ink.: *Eta ordun, zure jornala zein tzen?*

Jornala bat ez! Jornala? Jornalik ez! Jornala!

Ink.: *Eta zeren truke itten ziñun lana?*

Mantenu, mantenu! Ta, jauntzia re eztakit eitten zun, eztut uste. Saldisen bai, Saldisen bai.

Ink.: *Gutti ematen balin bazizuten emen, beinpin...*

A! Baño, ze in bar tzun? Ama... bi urteko... bueno, bi urteko umeakin do geldittu(e) zon, da, ze in bar tzun? Amak etzun dius e.

Ink.: *Eta denbora librerik eta izaten ziñun?*

Ez, ez, ez, ez. Morroi ez.

Ink.: *Eta igandetan ta ola?*

Morroie da itxe batean, morroie da, bueno, oaiñ jendea oekio bizi da; baño morroie da, demoa atean, zakurre nola itten da jendetatik, ola, bazterren kieto, *por stilo, por estilo* [euskal ahoskera] ola. ¿*Me entiendes?* [Kon]pazioa, txakur bat nola itten da errespetoaken, attek edo gizonak: “eon or!”, ta kieto an. *Por estilo*.

Ink.: *Bai?*

Bai, bai, bai. Oaiñ, oaiñ ez, oaiñ diferenteo da. Leno, bakizu, ezpaizen izaten dius e!



Harrobian lanean.

GURE HITZAK

Gazure: Gazura, esnea gatzatzean edo mamitzean egiten den ur gazia. Jendeak, eta baita aziendek ere, hartzen zuten.

Mantenu: Jatekoa.



Lixiba egosteko konporta.

Ink.: *Baño egunen bat libre izango ziñun, urtean igual, bestetan...*

Bueno, bestatan... bai, biño beti gabero ta itxea [b]iñipin da... Bai, ortxe, ortxe. Ze in bar giñun? Amak etzun dius e. Ze in bar tzun? Eske, bakizu urdun legeak difeenteak baitzien, **Francon demoa** o ni zer takit zer tzen! Ta bagiñun guk eotzeko zea, abildadea [errotan bizi baitziren], nere anai zarrak -Ernanin bizi da-. Eta, nee anai zarrak amar urte o ameika bakarrik zein zittun. Sarto zen errotari, baño geio zakin. Eta urte(b)ete baño geio pasatu zun are... arekin are eakusten. Baño, guk... ar(k) paño eio zakin, e! Martxa e(a)matte'maitzun nere anai zarrak. Baño, bakizo, legeak ez emen tzun... legez amititzen, e! *Cuentos, ¿me entiendes?* Ez eme(n) tzule... koño, ala, edadeik etzulako ez ametitzen o eztaki(t) zer, ta gu kanpora atea giñen, bearko!

Ink.: *Eta ze diferentzia zagon emen morroi izatea edo Saldisan? Esan duzu an arropa baietz... Ze diferentzia?*

Bai, arropa ta... beatzi urtean asi nitzen soldata artzen. Gutxi-asko, igual, pues, eztaki(t) zemat, bi sos igual!

Ink.: *Ordun baziñun diru pixko bat...*

Bai, bai. Bai, bai. (...)

Ink.: *Eta ze diferentzi geigo izaten tzen Saldias ta emengo etxeen artean?*

Bueno! Ze diferentzi... jateko naikua! Bi itxekoandre zien; bueno, bi itxekoandre, lenbeziko(a) zarraren baño gero ezkondu zen beste bat. Beño neetzako onak zien. Onak, bai. Ta, an bazen sosa re. Lana e azkar itten nun, e!

Ink.: *Zein lan, an?*

Lana, bakizu, mandoakin **iurketan** da; mandoa, mandoa, e! Da, mandoakin iurketan; ongarri... ongarrik ateatzen igual. Da, guaiñ, nik laneako enun prezioik. Baño, mantene gustatzen tzien; triperoa, tripero xamarra nitzen, triperoa izandu naiz beti. Atzo re guk emen aizkoan eurre mozto ta txokolate earra iñ andre(a)k eta denak txokolatea artu giñun! (...)

Ink.: *Saldisan ze geigo izaten ziñun emen etziñuna?*

Bueno! Saldisan yateko naikoa. Konpaazioa, gosaldur, gosaldur da igual etorko nitzen berrez amarrak aldean eo goizean; zortzitan o gosaldur ta amarrak aldean ual etorko nitzen, mandoakin eurre itten o... iatzea (...), iatzeakin igual, da, bakizu. Oaiñ iatzea igual, urruna arbi igual... ta ola ibiltze zen, da ni etortzen banitzen berrez amarrak aldean, taka! Mandoa deskargatzea tokira ta ekartzetun tortille, denak, ogi ta... e! Onenak zien netzat. Nola bat eta nola bestea, biak onak, biek onak zien.

Ink.: *Eta emen, berriz, gosea pasatu ziñun.*

Bueno! Emen goseak eta oiñutsiketan ibilli nitzen, ba!

Ink.: *Eta oso aurra, ez? (...)*

Ez, bueno, ona etortze(a)ko banittun zazpi urte do. Mño lenbeziko errin eondu nitzen, e! Bai, errin oekixeo, emen ukerrago. Baño parienteak diri [b]iek, errikoa ta au parienteak die.



Latsarria.

GURE HITZAK

Francon demoa: Francoren denbora. Francisco Franco, Espainiako agintari gorena 1939 eta 1975. urteen bitartean.

Bi sos: Bi txanpon. Iribarren arabera, txanpon zaharra. Frantsesezko *sou* "suel-do" hitzetik omen dator, sei marabediren balio zuen kobrezko txanpona.

Iurketan: Egurketan, egurra ekartzeko lana.



Xurruta, lixiba egosteko konportaren azpian paratzen zen harria ura kanpora botatzeko.

Ink.: *Eta Saldistik igual Eguberritan edo etziñen etortzen? O noiz etortzen ziñen?*

Bueno, Eguarritan eo, bai, eune'matean eo ola, baño brez e ara audo!

Ink.: *Ordun denbora libre pixka bat baziñun, gutxi bazen ere.*

Gutxi, gutxi, bai, bai, bai. Buelta artiño, bai.

Ink.: *Igande arratsalden ola, edo nola zen?*

Bai, i(g)ande goizean atea ta gabean igual yoan, da.

(Ezkurra)

8.9. Neskato lana

Beharrak bultzatuta, neska anitzek ere utzi behar izan zituzten beren etxe eta herriak, bertze batzuetan zerbitzatzeko. Batzuetan herrian bertan, bertzeetan ondoko hiriburu batean, eta baita Madrilen,artzelanon eta Frantzian ere.

Amea urtetan yuan nitzen neskato, Gazteleko Enekenara. Amaika urtetan, e! Aur bat. Pasatu nittun bi urte, an. Gero andik ate, eta, nere attak eta amak igor niñuten pixkot Doneztebera, eskolara, porke enakin bat(e)re eskolik.

Ni(k) tuten eskola bortz illabetez ikasia. Miño eskribitzen ttut kartak, e! Eta, gero... b... neskato, gero unara, emen bi urte pasatu nittun.

Ink.: *Oieregira...*

Oieregin, bai, matrimonio... matrimo... biño matrimonio bat... andri ura gaixtua... u! Zaten ginttun olluak, olluak eta ollua kara-kara-kara-karaka! Atetzen tzen denboran:

–¡Ai! ¡Tenía que haber puesto el huevo pero no ha puesto! Porque ha comido la Carmen...

–¡Yo qué iba a comer huevo duro...! Arroltze gordiña! Olaxku zen, terriblia [indarrez] zen atsu ura. Gaixtua... (...).

Zakur txar ttar zar bat zaten genun, ta orko itxe batea tortzen ntzen egunero esni eske ni. Zakur txar ura igortzen tzun nerekin batin, eta Perlitas zun izena, tx... txar bat, pollo... pollita zen...

–Mírale bien –erraten zitten– begiziozu ongi ya itten duen ongi kaka zakur orrek.

Ta nere battan, “Orren kakari begira niaun... ezi(t) bertze pe... buruko miñiken!” nere battan. Eta:

–Begiziozu ongi!

Eta tor ziren:

–Nola portatu zera, Perlitas?

Nik erratten:

–Beti bezala, arrunt ongi –erraten nion–.

Ink.: *Eta zei tzen neskato lana? Ze in bar tziñun, ta... ?*



Burutea.

GURE HITZAK

Gazteleko Enekenara: Gazteluko Enekenea etxea. *Enecorena*, 1700. urtean.

Burutea: Buruan, pitxer bat, zama bat... eramateko azpian jartzen den ehunezko edo espartzuzko biribilkia.



Lixiba egosteko ontzia.

Dena. Txia garbittu ta, ba, ez nittun itten erdiak... begira egon lautik irutan (...).

Ink.: *Biño ze in bar zuten neskatuk?*

Neskatuk in bar tzun pues itxia garbittu itten nun, mandatuk egin, eta ola. Ta gero bazuten neskatiko bat ameka urtekua, areri ere pixkot batzutan ak... lagundu. Da gero dora... Oieregin bazen tienda bai ordun, miño Narbartera tortzen nitzen... garrafon bat bizkarra maten zitten, ta:

—Kartzu dekalitro bat ardo —erraten zitten—.

Ta ni esoka [indarrez] txia... txia... txar bat, dekalitro ardua eziñ [indarrez] eramanez itxera. Emen barna pasatzen nitzen.

Ink.: *Eta gero aurrak kontu... eta bazkaria prestatu, ta neskatur lana da?*

Ez, bazkaria prestatu berak itten tzun, dena yana bera(k) prestatzen tzun. Aurra kontua neskatikoa iña zen ura.

Pues baratze txar bat ere bagiñun, baratzin ere pixkot aitzen nitzen, ta gero ekin batin ibiltze nitzen, Elizondora, do Doneztebera, do ola, ekin batin ibiltze nitzen. Etzen oso gaixtua, franko polliki yaten gunun, biño gero... bazen ya urte bat enitzela yuan nere itxera batere ta ziren bestak. Ta, arek erran tziten ez nula yuan biar itxera zengati(k) eze... espero zittula Zaragozko famili bat. Ta nik erran nion ni(k) nai nula itxera yuan, ia ia urte bat baterez... ta... ta ordun ate bar nula.

—Oraintxe ate bani, sei itxe untik! —erran zitten—. (...)

—Ni erdi negarrez ate nitzen, bai, porke ya yarria nagon emen. Bai.

Amasei urte. Andiken, denbora pixkot itxin pasatu, ta yuan zaitten neska bat, ya Doneztun bazela tokia ta nai nun yuan. Ta antxe zazpi urte.

(...)

Ink.: *Ta gero Madrillen do...?*

Bai, ekin berekin, ekin berekin Madrillera (...). Bedetzi illabete pasatu ginttun au. Ta, karo...

Ink.: *Ze yuaten zien negun, do udan, do...? Madrillera...?*

Ez, negun yuaten tziren ta udan torri Doneztebera, ta negun yuan arara. Gizonak an itten tzun lana, eta iru... ume bazittuten, biño... ta... uf! elegante a todo leche bizi ziren... fuf! Uniformik negukuk, udakuk...

Ink.: *Ori zurea?*

Neria. Ona cofia, quantes blancos, karta bat tortze'mazen bandejan, eta dena ola. Irakusi ziaten gañea ola edukazio batekin artzeko telefonua, ta...



Erdi Aroko azokak. Lanbide zaharrak gogoratzeko aukera.

GURE HITZAK

Txia garbittu: Etxea garbitu.

Ekin batin: Haiekin batean.



Sua egiteko, berotzeko tresna.

Ink.: *Eta dena zillarrezkua izanen tzen...*

Ba... dena-dena, elegante [indarrez] zuten.

(...)

Ink.: *Eta Madrillen tziñelik, pasatu zitzaizun gauza polit bat, istorio polit bat...*

Bai, ikaragarriak [indarrez] porke ez nakin erdaraz ongi. Arrun [indarrez] gutti! Eta badakizu, ori... oietan zuten da *paso de piones*, nik ez nakin... eta yuan ta ondoko egunin itxeko andrik erran tzitten:

—Yuan bar duzu unelako karrikara, eta karri bar ttuzu pakete batzuk eldu direl Lisboatiken.

Ta, man ziten dirua, ta:

—Unelako tokitara zoazi, zoazi tranbian, unelako tokitan ate zitte, andiken unela kruzazu... ta... - erran zattiten—.

Biño, txoriburu... **akittu zaitte** nii ori... erdia bederen... eta, yuaten asi nitzen, eta, klaro, an baza-gon kola... *paso de peatones* kola zagon, eta, ni nere battan ni “zeñe to... tontu[k] tire! Emen oinber-ze bide zaki garbi-garbia yuateko, ta, or ze daude oiek?” Ni raka! raka! raka! Asi nizen pasatzen. Ttu-rrittittittittit! Kazkazuri bat. Ta erran tzien:

—¡Oiga señora!

—¿Qué es, a mí? —erran nion—.

Ta:

—A usted sí, a usted. ¿No sabe usted que hay paso...?

—A, yo no sabía.

—¿De dónde es usted?

—Yo de Navarra.

—¡Salvoconducto!

En aquellos tiempos, kaur... *carne identidad*. Zen li-bro bat.

—No tengo.

—¡Venga, dos pesetas de multa y a la cola!

Ta ni *como un perro azotau* antxe, e! Disgustatu ka-ragarria! [indarrez]. Ta karo, ezpainakin... eta yuan giñelik ere, egun artan, txeko andrik erran tzitten:

—Or, bada or ori... karrizko fruteri bat: *frutería de Cristo* —erran tzitten—.

Ta ala zen, e! elegantia [indarrez] zen ta yende aunitz [indarrez], itxetara ta eramaten tzuten.

Eta, karo, etxeko andrik erran tzitten pues “kartzizu melokotonak, kartzizu brebak, kartzizu” ta... niri “**brebak**” in zaitten atzendu. Eta, artu nittun bertzik ta:

—¿Qué más? ¿A usted?

—Pues yo un kilo de bragas.

Una frutería nok eskatzen du ori? Denak [indarrez] asi ziren irriz... eta:



Sagararak.

GURE HITZAK

Brebak: Uztapikuak. Piku mota bat.

Akittu zaitte: Ahaztu zitzai-dan.



Artoa ereiteko marka.

—No tenemos.

—¿Cómo que no? Allí están, mira... —erran nion—. Karo, zen olako xabal bat tzen fruta bat ori... *brebas*... bño nik *bragas* eskatu nittun...

Eta:

—¡Ui! ¡La vasquina ya viene! —gero beti—.

Ink.: *Motia*...

Motia pat tzidaten... miño etzait ere inportzen batere.

(...)

Itxi ortan egon nitzen ni bi urte kozinin, bertze bi urte aurrendako, ta bertze iru urte dontzella. Oseake de... lan guzitako egon nitzen or, itxi ortan (...). Iru ume bazittuten ta bagiñen iru neskato. Eta gañera plantxadora, bagiñun, bai, interina.

(Donamaria)

Hilabeteko jornala, zapata parea erosteko

Urte guzin zaten ginttun pues zorzi bat egun librik, e! bakaziuk, fiestatan torzen giñen. Ta akabo! egun bat ez geigo libre, e! Eta... amabostetik ateri, ta batzutan, ni eendu nitzen amabostik ateriz, iandero ateriz ere bai. Biño uda bazen ta negu bazen bedezitako etxian, eguzkiya udan askotan miño itxera, bearko! yuan bar zaten giñun. Bi baldi bagiñen bat lenogo ta besti gero, e... serbitzeko afaria berriz airi (...).

Ni oroitzen naiz, *zortzi duro irauzten nittun* nik illabetin, ta fiestatan onara torri nai, eta... zapata pare bat erosi nun, fiestan torzeko unara, ta zorzi duro pagatu nittun. Ta zorzi durok *illautin irauzi*.

(Zubieta)

GURE HITZAK

Zorzi durok: Zortzi duroak. Duroa, bortz pezetako txanpona zen. Mendialdeko ohi-tura zen prezioak pezetatan eman beharrean, durotan ematea.

Irautzen: Irabazten.

Illautin irauzi: Hilabeteen irabazi.



Florentino Ibarra. Beintza-Labaien.
"Kubiartekin" egindako abarkak.



Behi nabarra edo frisiarra.

8.10. Kontrabandoa

Gosea eta miseria nagusi ziren garaietan diru-iturri handienetako bat bilakatu zen kontrabandoa. Arriskuz beteriko lana izan arren, diruz oso ongi hornitua zegoen, eta ondorioz oso erakargarria zen Malerreka jendearentzat. Ondorengo solasaldietan ikusiko denez, denetarik pasatzen zen kontrabandoan.

Ink.: Eta gero, inguru ontan kontrabando aunitz egin izandu da, ta ola, ez?

Emen... emen asi Ezkurratik, erraen nuke, Leitzatik asi ta Urepel, Aldude, Esnazu... dena, inguru guzin balio zun guzia yoaten zen kontrabandura. On zen guzia. Aferantza balen bazen do kaleko umi etik etzien mugitzen, biño baserriko yendia, dena!

Ink.: Ta ze garraiatzen zen?

Ekartzen tzen... nik eztut zautu **kubiertak**. Ezautu... ez naiz alletu kubiarta kartzen. Miño, yuxtu-yuxtua enaiz alletu, e!, gañekuk denak. Kubiarta kartze omen tzuten... emen ezpaitzen kubiertik, Españin etzen kubiertik. Ta ekartze(n) zen Franzitik kontrabandun. Ni biño amar urte zarraguk aittu dire kubiarta kartzen. Lan oso gogorra men tzen. Geo asi zen ori, bei zarrak. Gerra onduan andik kartze zen, ezpaizen aragirik emen. Emengo gerran deus (g)abe gelditu zen au. Tortze(n) zien Frantzitik beiak. Ta tortzen tziren aunitz, geien-geienak tortzen tziren emendik, Bertiztik. Saratik Monunborda baserrira(t) ta ortik Bertizera. Eta, **Saban** deskargatzen tzien beiak ta beiy'itten tzen nekatu. Ta igual Bertizeko sasi artan eroi itten ziren, nekatuta. Ta, oloko botell bat ardo eanazi, kla-kla-kla, ta beia yoaten tzen Ultzamaño, geldittu gabe.

Ink.: Bai, e!

Bai! Eamaten tzien azindak Ultzamara. Kontrabandua Ultzamatikan, zuek egon zate, Ultzamaño zen problema. Ultzamatik artzen kontrabandua ya bertze kontrabandukin ere, Ultzamatik arat. Nola etzen frontera, ya, libre zen. Ta beiak... zen afera alletzia zerara, Ultzamara; beia ta gañeko kontrabandu guzia, e! Kontrabandu (g)uzia Ultzamara(t) yoaten tzen. Ultzama ta arat, ya etzen frontera, ura. Zenbat aldiz, biño ni oioitzen naiz, bai, beiena, beiena ongi oitzen naiz, bai; ardua ematen tziotela beiar ta, beia ua probatu ta aik itten tzutela, bide izugarrik itten gero! Igual iru-lau ordu, taka-taka-ta...!

Ink.: Ta zaldia eta beste aziendak?

Zaldia gero, zaldia zen gerogo. Da ori ya zen **irutan ogeyin** ola, iruta ta batin ola, zain tzen zaldi golpe gorra. Nabarrako Erriberan, ittn tzen lana dena biñetan zaldiekin, dena. Geo asi zen sartzen makinaria. (...) Ta, ainbertze zaldi sobratzen tzen! Ta emen nola etzen zalditik yaten, zaldia y(o)aten zen Parisea, ta gero, **Tulusea**. Tortzen tzien frantsesak ta yaten tzuten. Beiko yendia, e! Paris alderdiko yendia ta, e! Torri ta animaleko zaldi pillat at erosi or, bertzea erran


GUR-ITZAK

Kubiertak: Gorpil azalak.

Saba: Sara, Lapurdiko herria.

Tulusea: Toulousera. Toulouse, Frantziako hiria.

Irutan ogeyin: Hiruretan hogeian, hirurogeian.



Mallerrekako paisaia. Lurralde menditsua, kontrabandorako egokia.



Bittoriano Arzuaga, golde zahar batekin.

tena Ultzamaño kamionan karri, ta Ultzamatik mendiz. **Emajin bat pasatua nau** ni or, e! Emajin bat pasatu(a) nau or zaldia! Bua! Mansua zaldia, klao, lanin ibilliak, domatuak. Iru zaldi, bakotxak artze intun iru zaldi. Lotu isasatik, tak!, lotu bat bertziri. Ta, obena artu ta aren gañin yarri! Taka-taka-taka, Ultzaman asi ta **Aiskolegiño**. Guk artze intun Aiskolegin entreatzeko Bertizera, da andik atea fransesak, fransesak eo, mugakuk. Emajina pasatu(a) nao! Zea, zaldiak... trankillak, beti lanin aittuak biñetan, pues... Solasin etzakiten, añeku dena bazakiten. Gaizuak! Onak zaldiak! Etzin... etzuten... bazutela aji bat, sobera gizenak. Eta zuten asma aunitz. Lanin aittu fuerte, oztu, lanin aittu, izerdittu, ta oztu ta euria... Ta menditan ta malda gotti ya, asma. Nabaitzen zaioten, ola, Xaotiken mendia atetzeko pojenplo, Xaotiken yoaten zen malda gotti... Da, Ultzamati(k) gotti malda beti Xaotziño dena goitti zen. Ta nabaritzen tzen earki, atsa. Eziñ artuz atsa, ziren gizenak eta asmatikuk aunitz. (...)

Ink.: *Eta gero, ruedak, azindak, eta gero...?*

Gero zandu zen... astuak.

Ink.: *Astuak ere bai?*

Asto flaku guzik, emengo asto zar guzik, iñork nai etzitunak txorizuk itteko Frantzira eraaten zutzen. Ako... ordun zen... gerra ondoan izain tzen? Bazen gerra bat, enaiz ongi oitzen non zen gerra bat or. Eta, emingo asto zar guzik gerrak artu ta aaman zutzen... garbittu zten emengo e raso, e! Asto zarrak txorizuk itteko. Ta mando zarrak e bai. Emengo mando zarrak eta yoizkoa zutenak Frantzira, *pa chorizos, pa chorizos* [euskal ahoskera], denak Frantzira. (...) Ta, gero asi zen, pues, gero, ardia. Ardi aunitz eamten tzten frantsesak. Mengo artzaiak... ek salbatu zuten urte aunitzez, oañ ya... ezta artzayik! Ardi artzayik kebra in te ya; tortze zen urtero. Men kusten zintun ordun, neguan, men kotxe gutti zen, lau kotxe egunak(o) agertuko ziren. Ta, batzuk mendiko mutilla(k) billa, basura yateko, mendi mutill eamateko; ta bertze batzuk, trantik, ardi eostera. (...)

Ink.: *Biño ori kontrabandun, edo...?*

Bai, bai, dena kontrabandun. Dena! Iru mugak ortxe dire, ori, Otsokotik arat'xio, eskuintiken, or Lezotoko aldera, "mugako Lepua" deitzen tzaio, **Ezpeleta** ta arat...arata entregatzen ziren, mendiz.

Ink.: *Eta ardik eramateko zalla, ez?*

A! Arraxa. Bialtzen zen ori... artzai batek, por ejemplo, nik nere parajia artu... artu ogei ardi ta nerik zien bezala erauten nittun Arraiozeño. Ta Arraiozko artzaia ateatzen zenin, berik zien be-

GURE HITZAK

Aizkolegi: Bertizko jaurerriko mendi nagusia.

Ezpeleta: Lapurdiko herria.

Emajin bat pasatua nau: Makina bat pasatua nago, anitz pasatua nago.



Ardiak Aurtitzen.



Goldearen muturrekoa.

zala, ya, ola, Olabideko errekaa. Ta ango artzai batek berik zien bezala... aat igual ola izaten tzi-
ren. Karo, guardia zibillek: “¿Dónde vas?”; “pues, de casa, ovejas de casa”. [euskal ahoskera] (...)

Ink.: *Ta gero, ruedak... ta ze, paketetan gero zer?*

A, paketia! Bai, bai, oi zandu zen puntilla, yendia lan gorra itn tzutzen. Ta, bazien aberastu
zirenak. Au da pixkot ola, Baztanen bazien abeatsak, klao, abeatsa zena puntillakin! Puntilla,
pues klao, zen nailon, Españin etzen. Ta, tortze zen Suizatik ori. Bobinak, bobina kokkor ba-
tzuk ola, ta izate zitun paketiak eztakit... amabi-amalau bobina do. Rollun iñak, puntilla ro-
llun, ola, bo... zutik. Ta gero, pakete aundia ola, e! Punt... pakete aundia, lasto paketia (be)zala.
Aundia, pisantzen tzittun ogeita zazpi kilo, *veintisiete-veintiocho kilos*, ola, ala izaten tzen pa-
ketia. Ta, ura ekartzen tzuten paketik iñak, andik; ta plastiku tapatuk ungi, forratuk ungi. Ta,
gero, bai, uri itten bazun, uria ez busti..., ez bustitzeko barrena(k). Kategoria, e! Ta oi zen Sui-
zatik kartzen tzen ta Frantzian tzen kontrabandua, Frantzian libre zen. Tortzen tzen Kozkorzi-
llu du izena or, Esnasuko mendi bat, Esnasuko muga-mugan ta tortzen zen kamion bat, krix-
ton kamiona kargatu lepoaño, muga-mugaño! Ta yoaten tzen emendik mutillak, mendik,
mendiken gu año ezka alletu yoaten, guk artzen ginttun jenealment **Ziaurren**. Biño, Gar-
tzaingo mutillak, iruitarrak eta denak [indarrez] ardi eske. Guk artzen ginttun Ziaurren, Ais-
ko Ziaurren, Zigan. Ta, ortikan guk... Ultzamako lepora, urata, Labiaga ta leku (u)ieta, ta or-
tik Ultzamarrek eta ola.

Biño ordun... paket eta gorra etortzen tzen exkin guzitik! Markarlostik, emendik, Etxalartik...
kamiona, kamiona, kamiona gañen!

Ink.: *Eta rodamentuk ta ola?*

Bai, rodamentuk dire ya... Oiek nik... ezyut zautu. Kobria bai, karri zuten, karri omen tzuten;
miño nik beitzat eztu(t) lanik egin. (...)

Ink.: *Eta paketik nola eramaten tziren?*

Bizkarrin. **Paketik** itten tziren lenbizko (...) lizta espartzugin ixto bezala estutu, ittoko... gorpu-
zi itteko. Ta (g)ero itten tzen, bueno, ibiltzen giñun gerriko parxa bat b(e)zala kopetan lotu, bi
puntetan bi ku(e)rdakin. Ta gero, ekei nola zeon ola lotua paketi ura, kuerda aiek... ei(ek) lotu.
Ta, artu bizkarrin, ta sartu burua, ta ola, prueb iñ ia estu-estu dagon. Lenbizkun estu-estu eo-
ten da, biño geo nola itten duen tokia, bear ziñun beala estutu. Al duzun estu-estuna yarri ura,
sartu ttak! al duzun estuna eta eztuzu... lenbizin bai pixkot, biño gero, igual illaute ten burun
eztuzu eskukin ukittu barrik. (...)

Ink.: *Eta asko ordaintzen zen beste lanekin konparatuta?*

Bai, aixa, e, aixa! Lenbizin gogorra zen, oso gogorra; lenbizin. Biño gero, artzen zen bizio bat!
Igual da elurra ai bau, ta orma ai bau, ta igual da saka ai badu, ta illuna, ta illargi... illargiik
gabe berdin yoaten zara. Artzuzu bizio bat... eztuzu uzten ura! Ta guk iraazte giñun oeita amar
duro, zera, Mugai(r)etik Ultzamako mugera, oeita amar duro. Biño, eun guzia lanin pasatu ta
cuarenta pesetas iraazten zen, zorzi duro. Ta, nun gaña o, Bertizen, etziñun lanik, Iratira yoan
bar z(i)ñun mendira, Iratin bakarrik zeon lana, etzen Lesakik, etzen Leizik, etzen Berako fabri-
kik, etzen fabrikik emen; ezpaitzen iñun e yeus ere! Ezpaitzen yaus ee iñon ere! Iratira, edo
Frantzira, ...o kontrabandura.

(Oieregi)

GUR-ETAK

Ziaurren: Zigaurren. Zigaurre, Baztango Zigako auzoa, lehen Zuraurre zena.

Paketea: Kontrabando gaie-
tan anitzetan aditutako hitza.
Aziendak, jendea, kubiartak...
izan ezik, kontrabandoan pa-
satutako gai gehienak pakete-
tan garraiatzen ziren.

Emen, paketitan kontrabandoan ebiltzen tzena zen geiena puntilla. Ta, oroitzen naiz bein batin,
iande eun bat zen... ori gerra ondun, e! Oaiñ dela, pues, iruoeta amar bat urte (e)do ola. Ta, guk
baduu emen beitti yoanta borda bat; ta baratzia eamten du(g)u beti. Ta, baratzeko ongarrria, yaki-



Maindirea. Belarra ebaki, bildu eta garraiatzeko erabilia.

ñen duzue zer den. Ta, ongarri eske yun nitzen, mandukin, mando (b)atekin. Ta iaman in ñun bi pakete iñ ta ekarri. Ta, ongarria an tzaun, eamitten tzun artzai batek borda ori. Eta, an tza(g)on montondua. Ta, **burnikakua** erraten diou, ongarria arrotz(e)ko katxarru bat; ta, arrek in asi nitzen ongarrik **maindire-ra** botatzen, paketia itteko. Ta, kax! sartu nun ta, tira ta... krix-ton paketia! Ta ni: “zer da au?” Zuek bakizue zer tzen?! Urratzen ai nitzela, punpa! Kontrabandista berara. Ta, orduko nik pixkot urratu nun, baztarratik pixkot autsi! Gañea, burnikaku orrek in autsi nun! Ta zen puntilla. Ta, oiek ziren... bat aertu zen, geo aertu zien bertze bi, iru bazien. An zauden, illunabartu arte, gabin eamateko paketik. Ta bat zen Donamarikua, mutilzar bat zen, solterua.



Labaian eta Beintza.

(Beintza-Labaian)

Ink.: *Emen ingurun yende aunitz aritzen zen kontrabandun ta ola, ez?*

Bai, men... (...). Puntilla bai, ta gero bertze... nola zen? karre... karretil batzuk, **kagarri pollit** tzaten tziren... eztait zer tzien ek. Puntillak ere bai majo.

Ink.: *Rodamientuk... ez?*

Bait(e)re, bai.

Ink.: *Ta ruedak ere bai, kubiartak...*

Bait(e)re.

(Donamaria)

GURE HITZAK

Burnikakua: Burdinakakoa. Kakoa, metalezko atal okertua eta anitzetan punta-zorrotza, zerbait zintzilikatzeko, zerbaiti eusteko edo heltzeko erabiltzen dena.

Maindirea: Belarra eta lastoa etxeratzeko erabiltzen den maindire modukoa.

Kagarri pollit: Ikaragarri polit.

Portugesakin bai, aunitz gañera, portugueses oi! oi!

Ink.: *Eta, ola ixtorion bat kontatzeko?*

Ni yuan nitzen, andiken erran tziaten bazila sei lagun, portugesa, ta kartzeko ek. Ta ni esk... eske yuan nizen arata, mendira. Ta mendira yuan nizeliken zortzi bior arraptu nittun, sei yende ziela ta zortzi bior man... karri. (...) Gero, ondoko eunin berrizen karri nittun amabi yend... lagun.



“Burni sardea”.

Ori... ek eske yuan, ta bertze sei bior ekin batin karri nittun, dena batin. Ta, biorrak... eldu nizeliken biorrak ze in nittun? galdu bidin.

Ink.: *Biorra galdu do portugesa galdu?*

Portugesa galdu, bidin.

Ink.: *Miño nola yuaten ziñeten, filan?*

Bai... oloko filin

Ink.: *Zu lenengua.*

Nik seguro... ek eztakite... etzakiten biderikan. Ta biorrak...

Ink.: *Ta biorrak?*

Biorrak eztute kasten biderik.

Ink.: *Ta ze, lotu zenittun do ola?*

Lotuta... bior lotu, ba[t] pertzi-ba[t] pertziri, puztanti(k) lotu sokkin lerrun karri, ta eken bielesko aldin, atz(e)ko aldin portuguesak. Ta ni alletu nittulik eun batin portugesa dena(k) falta, biorrak alletu ta (...), biorrak lotu ta portugesa eske **zakurren** [indarrez] **purdira** berrizen. Ta uria ler [indarrez] ai zun. Ta gantxe kunkurtuk arraptu nittun denak. Ta gero in ginttun (...) ez... ez galtzeko geigo, ni aintzin yarri, ta nee gerritike oloko edozein lo... itxeki ta unara lotu. Dena lotu elkarrerri ola. Ta ordun ezpait(r)e galtzen...

Ink.: *Ora... portuguesak lotuak eta biorrak ere bai.*

E, biorrak karrik ta emen utziak, ta gero yua nize portuguesak eske. Ta geo ordun portuguesak[k] perrizen biorra den tokiño karri. Ta ordun etziren galtzen, dena(k) lotu[k] paitziren... **nee bieltik** dena(k), ni aitziniñ, ta olxe. (...) Bior... bior... azken-azkeneko biorrik lotu portugesa nik, buztan-

GUR-ITZAK

Portugesa: Urte batzuetan jendea ere pasatzen zen mugatik bertze aldera. Portugaldarrak ziren, batez ere, kontrabando mota honen biktimak.

Zakurren purdire: Txakurren ipurdira, oso urrutira.

Nee bieltik: Nire gibeletik, nire atzetik.



Behorrek Doneztebeko ferietan. Kontrabandoan behor anitz pasatu zen.



Alperra. Lurra zanpatzeko tresna.

tik, biarko! Galtzen baitziren... ta, andik eaman nittun Legasañokun, an mendiz, dena, arratsin, e! Ta Legasa alletu iñeliken, an utzi bar nittun, ta ala in nittun, an utzi...

A gero bertzia eran... eran nizun..., **urin nola bota zen**, an pasat'ta, ura... kontatu nizun dena...

Ink.: *Ori nola pasatu zen?*

(...) Pordun portugesak utsik nittun, (...) ta zen, ba, bidia ola, miar-miar pasatu biarra...

Ink.: *Ori nun? Legasan?*

Legasan. Ta bidia pasatu biarra... berroei bat metro bai, pasat biarra zen. Ta unata zen belagia ta bertzaldera ura, ugaldia. Ta, in tzaitten bat erori ugaldia neri. Ta ni neurri sartu naiyik urin, ta ate nun, kanpora. Ongi gañera! Etzen itto!

Ink.: *Eta, ez zen iñoiz gertatu portugesan bat iltzea emen ingurun do...?*

Illa? Ba... zan dire ba[t] piño geigo.

Ink.: *Bai?*

Nik beñere ez, e! Nik ongi... ongi **konte itten nittun** (...).

Ori zen ba... lemizko zaut tuna, or... gotti ortan bada... borda bat, gottian ta itn z... in zuten arat karri. Nbo [denbora] txarrak [indarrez], negu baitzen... nbo txarrak [indarrez], ta arat karri zittun (...), ta ein zttun arek, bat ya... otzak arron... ya ezin... ezin zen torri, ta in zun bordan utzi arek, ta bertzikin yuan, ta ura bakarrik. Ta bertzik eram zittulik ura eske torri zen ta orduko illa arraptu zun.

(...)

Ink.: *Eta normalean zenbat portuges eramaten ziren? Ta zenbaten artin, ta...?*



Bidasoa Legasan.

GURE HITZAK

Urin nola bota zen: Uretan nola erori zen.

Konte itten nittun: Kontu egiten nituen, zaindu egiten nituen.



Sega eta segapotoa.

Gu... portuguesak... segun, battin amar, bertzin ogei, bertzin yaun, bertzin berraun... alletu gera iru launak berraun lagun eramten (...). Ta, bat aitzin-aitziñin, bertzia erdin ta bertzia bigelin. (...)

Ink.: *Eta nondik nora eramaten zenituzten? Emendik...?*

Ta emendiken...

Ink.: *Non artu ta noraño?*

Gero Frantzira pasatzen ginttun...

Ink.: *Emendikan Frantziño? Edo... Legasan do utzi?*

Ek aratio-aratio in ta gero Frantzin sartu, Legastiken antzinego yuanta.

Ink.: *Ori zuek? Edo... beste norbatteri pasatu?*

Bai, geiena berzik... guk ere itten ginttun, eaman ta Frantzira pasatu (...). Ta Ultzamtik kartzen tzi-tuzten orko mendi oitara... ta or artzen ginttun guk. Ultzamara beñ o bertze alletzen giñen, bai, kartzen giñun andik beri artik ere.

(...)

Ink.: *Eta guardia zibillekin pasatu zaizu zerbatt ere? Portugesak eramatten?*

Erran nizu... [irriz] guardia zi... ordun tzen ba, berraun gizain ginttun... (...). Ta ordun tzen... ni nizen bigelin. Egarrrik zauden denak, ta an aska batin ura bazen... o eldu zen. Ta banaka ura edanazi ta martxa, martxa, marxa, marxa, marxa denari. Ta aintziñeko... bajada zeliken, **bi kaxkotan** bazauden bi... bi guardi, olako kaxko batin... tubua azpiti(k) zen bidia, bide be ttiki bat. Andik aintziña, ta ni ya pasatzen nizelik bertzik segittu... ta goiti[k] peitti bi lagun, olko bixkar batin tzaon, **altxatuk zauden** ek... guardik... ta, mekauen dion! Gero... erdiko arei re erran nion... an pasatzko, gel-tzeko toki batin, dena(k) pasatzeko. Ta pasa tzila bii(k) yuntatu iñen, ura ta ni (...). Ta, an, ola bixkarrin artu goitti:

–Ui! ui! Oiek guardik ttuk! –nik segittu erran- oiek guardik...

Izautu in nun... gua... goiti asi:

–¡Compañeros! ¡Compañeros!

A... ala erraten ai ziozten portuguesai (...).

–Guar... guardi, guardi ttuk –ni lagunari–.

–Bai, bai [apal].

Ta oi! oi! Ta ni emen bezala, ta ura bertze... ola aintziñego zen yuana. Ta ni da! besotik artu arek...

Ink.: *Guardia zibillak?*

Guar zibilla [irriz]. Nik... ta pixtola batin eskun ta bertzikin artu... ta... yotzen [indarrez] dut ezkerakin ola ta olixen, guarda zibilla ta airin bota.

Ink.: *Bai?*



Donamaria.

GURE HITZAK

Bi kaxkotan: Bi mendi ton-torretan.

Altxatuak zauden ek: Ezkutatatuak zeuden haiek.



Goldea.

Bai! *Achando putas!* Ura bota... bota ta itterako gu martxa, lekutu andiken... dena [indarrez] ezpela ta baitzagon...

(...)

Ruedakin bai... bein galdu ginttun... guardik arraptu baitziuten... mendin tzaten tzien guardik... seguro. Ta, ordun zen, bi lagun giñion... bat or ta bertzia men ta erdin... rueda (...). Bi lagun rueda batekin, seguro... andik asi ta unañiko... oloko...

Ink.: *Ze, tratorina, o...?*

E... egur bat, egur bat aun... ez, ez, egurra artu ta rueda erdin lotu. Ta andik ta emendik bi launek artu bizkarrin ta rueda arata. Bertzela aundiya baitzen... nola eam bar giñun bakarrik ura?

Bai, ta, ura gero... nola in tzen ba? A! Autsi. Autsi in tziun ori... makilla, ruedan makilla. Rueda ongi. Ta, andiken malda ikaragarria [indarrez] zen goiti betti... tu oloko bidaxka ttiki bat, andi pasatu bar giñun... andik [g]iñazilik tzilipurdika [indarrez] guk biyek ta rueda [irriak]. Ta rueda goiti[k] petti... kilometro at ta geigo bai, goiti[k] petti... errekañokun. Aren saltuk! Rueda arek itten zittun, ori... arbolan gañeko puntiño atetn tzen andikan salto. Oi! oi! oi! oi! oi! Ta errekaño yuan zen ta antxe gelditt zen nonbatt ere. Ezkiñen yoan berrize...

(...)

Ekeri ere arpegi tapatu ibiltze giñen... ek etzakiten ni... an zandu nizeniken, etziten zautzen.

Ink.: *A! Zuek tapatuta aurpegia?*

Baro...

Ink.: *Ze, portuguesak ez identifikatzeko...*

Portugesak ez e... ez zautzeko... orduan nik... or... a... biyi banizen izautuko ziaten andi(k) torrita...

(Donamaria)

Ink.: *Zu preso izandu ziñen?*

Ni preso? Bai...

Ink.: *Kontrabandoagatik?*

E, bai. Kontrabandua... guk uste genun kontrabandun zela, biño ziren ie... **abriak** ebatsiak. Ok tzien Baztango... (...) ebatsiak, ta in tziguten abistu, bueno, ya biorrak eldu zirela kontrabandun ta... atetzeko unelako lekura. Yuan giñen, ta... alletu ziren, artu ginttun biorrak, ta eraman ginttun Eltzaburura. E... ni enitzen oroitzen ere, urte bat eta geigo'murun, dantzan (...) torzen zen zibiy... da, (joño), deittu niun ta, "joño, zertaz ote dauk au?" ta, artu ta... ale, preso. Atta, Elizondora yuan ta... antxe, amabortz egun in ginttun ta... nik pentsatu nun, "mekauen, orrenbertze denbora? Emen ni enauk ba emen egonen... enauk ba geigo egonen". Niri... erran ziuten "ba... noski **abudo** ateko zaizte". (...)

Ink.: *Ta pagatu ziñun multaon bat ola, o...?*

Ez, ez, pagatu ez, biño ez... ezta bialia kobratu re!...

(Doneztebe)

GURE HITZAK

Giñazilik: Gindoazelarik.


Abriak: Abereak.

Abudo: Azkar.



Irina garbitzeko zetabeak (txikiak), eta babarrunak garbitzeko galbahea (handia).

Eta biaje batin eldu giñela, ya andik parras bi-lla torri **Itxerlako mugatikan**, bajatu beitti karretera, gero Bidasu pasatu barra giñun, Bidasu pasatu (ta) trenabidia, eta gero ya berrize betik [g]oitti aranaztarrei mateko. Araztarrek artut tzuten andikan. Ta goiti[k] petti eldu giñala, ya Be... Bidasora sartzen, sumatu giñun pau! tirua. “Ai ba! Ara! **Aranztarrak** arrap ttuzte seguro!” . Yakinki guk aranztarrek nora tor bar tzuten... eta aranztarrak. Ta bueno, gu ya bagoazi, pasatu giñun Bidasua ta betik [g]oitti yua... pixkot yuan, laixterka [indarrez] torri zen bat, aranztar bat. Erran tziun: “Gorde tzue men, al tzu zue tokiyin. Tiroz pasatu te bat”. En laguna, Manuel zun izena. (...) Bueno, gorde ginttun (...), bertze egun batin artu ta ae... aek eramnen. Ta... bueno, no... nor ote zen? ori Manuel. Eta nork tiratu ote zuen? Sunbilarrak. (...)




Bidasoako trenbidea. Txartelak.

Orrek in tzuen, aranztar orrek bixkar bat, karo *normalmente* or bizkarra-bizkarra-bizkarra-bizkarra mendiyak, ta andik bakizu, bidia. Ta baziren borda-borda- borda ta bordak portzikasoe rebisatu, gero trankill yuateko. Bettirakun eldu zela gue ure... paketik eske, bordan sartu zen, ta guar tzibillak kanpokaldin geldittuak, borda sartu zen denborin, ra! atia etxi. Atia... “E! Emen gara! Alto!”. Berzik laixterka yo [indarrez] ta bota guar tzibillak, ta laixterka bertatik, bieltikan tirua tiatu.

(...)

Bertze batin eldu giñen... biño *normalmente* tortzen gera... artu paketiak ta aldeyin bida, pareja bat, paketi... paketikin bida. Gero bieluotikan distantzin bertze bida, gero distantzin burun bertze bida, orrela. Ez ken... dena batin torriz kero, denari kentzerako peligrua baita. Ta ordun, igual bata kendu, do bi kendu do... orrela.

Bono, eldu ziren nere anaia (...) eta bertze bat, biek Bidasun kruzatzeko zittuen botak, arrantzako botak gomazkuk erosiak, eun artan estreña in bearra, oañik estreintzekuk. Eta zittuen gottiokun eramen eskin batera ta an utzi, t'ero bettirakun artzeko ta, bazakarrakin paketin azpiyin bota aiek, ur undun gero paratzeko, bertzenaz busti bar tzu dena ta... bustiyikin gero berela e[z]xoa... e[z]xoan ez, on aren botak. Beno, eldu zen o... oiek, ek aitziniñ, gero bertze anai zena, bertzia neria, ber... ta bertze bat, bida. Eta, ziren iru guar tzibil torriak, miño ongi txibatuta yuak. In tziren guar tzibil bat ben geldittu, pixkot go txio bertzia, ta gero gottio bertzia. Ta ordun, iru parejari kentzeko estudittu zuten. Eta, eldu zirela, toki ya **pein baten tartera** alletu zielikan, lemizikuk, eta biarrenak, nee anai zena, or eldu dielikan, paketi oaiñ onela patua, eta eskua ola omen tzakarren ta illargiya b... argitzen. Ta ola, kusten omen du brillua, besun azpitik. Ola beldi-beldi buelta man ta, geo oik e ebilla zaten baitute... guar tzibillek gerrikun... ebil tza... zabal-zabal bat, ta arek brillua in, illargin argiyikin iñetzke bezala, t'ikusi. “E... a... fuera emedikan! **Eltetzua!**”. Guriak paketik arrika



Ugaldea Donezteben.

GURE HITZAK

Itxerlako mugatikan: Etxalarko mugatik.

Aranztarrak: Arantzarrak. Arantza da gaur Bortzirietako herri honen izen ofiziala, baina lehenago Aranaz edo Arantatz zen. Azken hau jatorrizkoa da eta eskualdeko euskaldunek oraindik erabiltzen dute.

Eltetzua: Guardia Zibila. Bortziria eta Sunbillako kontrabandistek erabilitako izena. Lehen, guardia zibilak mendian bazkaria egiteko eltzeekin ibiltzen zirelako.

Pein baten tartera: Peña baten tartera, haitz baten tartera.



Matxetea. Kider luze batekin laharrek mozteko.

bota, iraulka. Ta laguna[k] perrizen bertan utzi. Eta ordun ze in tzun arek? Tiruk tiratu, airera. Gu-riak kus zun denborin irauka ta paketin ondotik lasterka... tiruk tiratu ta ordun, aintziñekua, ber-tze anaia botakin bizkarrin, da arek ere bertze tirua tiratu. Paketik lurrera bota ta ba... bo... botak ere bai, eta, al tzun bazala pues... eskapatu. Karo, eskapatu, artuz kero, arraptuz kero, pues gero de-klarazioniak ta nuna den ta galdetu bar baitire... Eta, oixen in tzuten, pues galdu ek bi pakete, ta gero bertze anai... anai zenan lagunak bertze pakete bat. Ta urrenekuk, tiruk sumatu zien denbo-rin, ni re an nitzen, bielago, atzerago, ta, pues, gu yuan giñen bueltan. Karo.

Ink.: *Eta ze pasten tzen galtzen zenituzten pakete oiekin?*

Lana akitu, sosik ez (...). Guk yo... pionak yornalin ari giñenak ez. Oaiñ, kontratan artzen tzunak, karo, aek artzen tzun igua pasatzeko nik orrenbertzetan, igual artzen te arriku geigukin, ez? Eta... bueno, arek baz... pasatzen ttu denak ta ordun, ordun pagatu bar du paketa, paketen baloria. (...) Ongi [indarrez] pasatzen baldin battu denak-denak-denak, diru pixkot eitten du geigo irabzi... ta galtzen baldin badu, ordun pagatu bar du arek . Guk ezkiñun pagatu barrik yaus ere.

Ink.: *Eta zenbat yende biltzen ziñeten? Esan duzu parejaka miño...?*

Or... ze, zortzi, amar, amabortz s... segun zemat eldu ziren.

Ink.: *Ori pionak?*

Bai.

Ink.: *Gero egonen tzen baten bat... zuetako baten bat bijiltzen, o nola zen?*

Bijiltzen, karretera bijiltu ta trenabidia. **Trenbidia** len ordun, oanik martxan baizen trenabidia; eta Irundikan Elizondo torzn den ori... zen. Eta... pues, oiek biyek bijiltu bar ziren fuerte, eta ordun ixpiak, **ixpia** erraten tzaio ekeri... ek paratu, ekeri diru gutixigo, biñon... ekeri pagatu.

(Sunbilla)

GURE HITZAK

Trenbidea: Malerrekan Bi-dasoa izeneko trenbidea ba-zebilen Elizondo eta Irun bi-tartean.

Ixpia: Espioia, guardiak zela-tatzeaz arduratzen zen kon-trabandista.



Lehengo Malerrekako irudia.



Arazabala.

Guardia zibil erosiak

...biño guar tzibillak zaten tziren auniz tokitan erosiak errate giñun. “Bono, zuk orrenbertze diru a... artzu, guttiz koitti betti pasatuko ttugu... berrogei pakete”, ta berrogei pakete...ndako, areri diru pixkot eman ta arek erraten du “Gaur serbiziua ezta men, or, onako tokitik onako tokira” ta ordun gu an pasatu. Edo arek errate du or ez pasatu gaur, gaur serbizi u or da. Ordu gu[k] pertze eskinti pasatu, karo, in bar giñun igual buelta aundigua [indarrez]... (...)

Oain, gertatu dire... zera... guar tzibillari diru pagatua, eta tokiy’artan bertan arrapatzia. Biño, ek zateunte lix-ta bat, segun guardia zibillak, gaur emen guardia in bar da, or in biar da, ta... or zaten baitire guar tzibillak ere pixkot... guttixio kobratzeuntenak, edo ba-trez kobratzen ez zutenak, ta ordun itten die sospestu, ta igual itten dire puntuz kanbiatu. Ta pun-tuz kanbiatzen baldi’mada, ordun kask! arrapatu.(...)

Ink.: Ta guadia zibillekin trato... oiek, ola ez agertzeko ta nork egite zittuen zuek edo nausiak?

Guk geounek, zergan gomeni zaigun geouneri egittia, zergik... yornala ez galtzeko. Guk erraten gi-ñon “Bueno, unel ta unela pasatu bar ttugu, orrenbertze pakete, manen zattugu onenbertze diru”, bat... bat artuta, guar tzibil bat. Zerik guar tzibil denak ezin gindun artu, zetik ezi... etzen diruri-kan. Eta ordun, areri gaba bakotxin berroei duro, do irutanoi duro man, eta, ura kontent. Eta, arek erran “Bueno, gaur or ez pasatu, pasatu an”, ta orti pasatzen giñen.

(Sunbilla)



Sunbilla.

HISTORIA

Historia hitz handia da, eta hitz handiekin lotu ohi da. Horietako bat da gerra hitza.

9.1. 1936ko gerra: gerra garaia

Badira oraindik ere gerra karlisten oroitzapenak gordetzen dituztenak, baina dudarik gabe gerra zibila da gure azken urteetako historia gehien markatu duen gertaera lazgarria.

Ink.: Eta, familia beretik eramaten al zittuzten iru... o lau... o bos gizon?

Bai.

Ink.: Edo... bazen tope bat?

Emaztea: Bazen, bazen, orain errain dizu.

Ta iru... iru... anai tokatu ziren, ta irutik batek libratu bar tzela, eta lautik ere bida egin bar tzirela. Eta, in tze... in tzuten, ta gero aunitz etortzen, ta fuertzak bajatzen, eta berriz tiratu ziren, irugarren kintuari tiratu zen berriz... **berriz biela**, bi kintatu(k) geldittu ziren a... bi anai. Goizuten in men tzen pues a... Goizutako apeza torri zen Donamarira. Eta apezak kontatu zun ana... bat, boluntariua, torri men tzen, illa karri omen tzioten, eta aren funtzionik. Ta funtziontik ate eta berriz yuateko.

Emaztea: **Kanposantotik** eldu zirelik.

Agudo, itxetik... itxetik abisua ume koxkorak tor... yuateko atta ta ama agudo yuateko etxera. Ta bertze anaia berrize karriya illa...

Emaztea: Illa bertze anaia. Baten entierua, apezan...

Ink.: Eta bertzia illa ekarri.

Bertzia illa ekarri.

Emaztea: Bertzia illa ekarri, bertze anaia. Ori re penagarria zen... apezak errate zu "Ori niri pasatu zatt".

(Donamaria)



Jose Telletxea, soldadua.

GURE HITZAK

Kanposanto: Kanposantua, hilerria. Kanposantua da gure herrietan adiera honetan gehien erabiltzen den hitza.

Berriz biela: Berriz gibelera.

Ai yaiz itxia itten: Ari haiz etxea egiten.

Aurtizko fusilatuak

Bat medikua, bertzia maisua, bertko semia, ta bertzia errin depositario zagona... nazionalistak zaki il tziuzten... (...) Jaingoinkun legi defeintzeko il tziuzten.

(...) Medikua itxia itten ai baizen ordun, beko itxe ori... eta, mengo gaztiak (...) betik [g]lotti elduki, eta ori biudak konta zun (...). Erran omen tzun mutil batek: "**Ai yaiz itxia itten**, miño eztuk



Baioneta.

auniz probextu bar” erran omen tzion. Eta orrek, errat zun biudak: “Erran, ta egin gañera, e! Erran, ta egin gañera!”.

(Ituren)

Gerra ordun zanen zen, e... erraten tzen... *rojos* erraten tzen, *lo[s] rojos*, bueno. Ta oitikan ibilzen ziren banaka-banaka, beren biziya salbatzeagatik duiken gabe, nik eztakit nola... eztugun [g]uk enteinttu ori beñ ere...

Biño, e... emen bordan edo baserri batera yuan tzen bat, eta, arek e... deteinttu do ordun oiek zuten aña fama txarra... *roju oiek*... Eta arek engainttuz, eman... gaittu eman tzion yatera ta erran tzion “bai, or itten al tzu lo trankill”. Ta tarti ortan in zittion este... em... guardik abistu. Ta guardik yuan tziren, deteinttu zuten eta zagon bero bat biño izugarriya, eta ura zakarraten guardik, eta... e... gure itxin ondun baserrin bertze itxe bat eta eskatu zuten ura, guardik eskatu zuten ura ia manen zioten ze(r)tik zagon bero aundiya. Ta, ate zioten ura, eta orrek zakarran ola makil aundi bat eta an paketi bat, an baserri artan emana yana zerbatt ere. Eta, este... ema... guardi(g) ura edaten asi zelikan, ura... makilla bota ta asi zen lasterka. Eta lasterka asi zen ugalde aldera... tzeben artuk aundittuk, artua... maiza, eta sartutzen al tzen maiza tartera, miño yoan tzen ugaldi aldera eta bere burua bota zun ugaldira. Ta an guardik segittu zioten, eta... au... a... burua ate zulikan in tzioten tiru bota ta... azertu. Bertan il tzuten.

Eta gero an, gure... etxe odun bazen txo... txopera bat, txopuk zirena, ta an zolua in ta an... enker... entertu zuten. Ta... gure attak a... dena a... *agua zun urria*, eta gure attak kendu zion dentadura... [irriak] ta ba, gorde zun pareta zolo batin. Eta semia gerratik tor tzenin eman... erran tzion nee anaia gerrati(k) tor tzenin, bi... bida baziren yuanak... eta tor tzenian erran tzion “Kon ziok. E... ok saldu zik eta zerbatt ere manen tek”. Eta ala in zun, e! Arek saldu egin zun eta pezeta... eztakit ze pezeta artu zittun ...

(Sunbilla)

GURE HITZAK

Raju oiek: 1936ko gerran gorriak “rojos” ziren alderdi ezkertiarren zaleak eta, oro har, Francoren “nacionalekin” ez zeuden guztiak: errepublikazaleak, abertzaleak...

Baioneta: Fusilaren kanoia-
ren buruan ezar daitekeen
ganibet moduko arma zo-
rrotza.

Agua zun urria: Ahoa zuen
urrea, urrezko hortzak zitue-
la.



Aurtitz.



Espainiako errepublikaren bandera.

9.2. Gerra ondoko ogi gosea

Gerra krudela da, baina ez da samurragoa izaten ondotik jarraitzen dion gosea eta miseria.

Eske gerra ondoko... zandu zen goseti artan, ordun umia... [ogia] ez zagon iñun arraptzik.

Gu... Donostin, ni Donostin tokatu nitzen ordun ta... ordun Aietera do... tortzen tzen, zeren... agoztun bakaziutan Franco, Donostira. Ta ura tortzen zenin ogia bollu aundigua matten tziguten. Ginttun... tertzerakuntzat ola bollo koskor batzuk, egun guziko bollo bat.

Ink.: Ze, racionamiento...

Bai. Ta, segundukuk ziren ttikixiuk, ta primerakuk ttiki-ttikiak, *pa los... pa los señoritos* ttikinak, eta *pa los menos señoritos* aundixiguk, ta *gu bezalako ondarrantzat* aundixigua bollua. Biyo ura tortze zenin, Franco or zagonin itn tziuten aundixigua ta obia, bollua (...).

Dirua irauzten giñun ta zate giñun, ta aparte nai baldi bazinttun pasta batzuk erosi, nunai bazinttun, miño bollo bat iñun ere ez. Iñun ere, iñun ere bollo bat. Eta komedorin denak yaten tzuten ba bollo ttikia, ttiki ori... pa serbitzen zen, miño andik... an erdi yanta re gelditn tziren baziren, bestela ungi yanez kero, *vaya*, etzuten yaten. Pues nere *compañera* bajatzn tzen beitti ta ni pisun eotte nitzen, pi-sun yabe. Eta... ementxe, kolkuan sartuta eramatz zittun sobratzen tziren ogi puxka aiek gotti. Orduan? Jesus! Ze... ze ogi gosia zen ordun. Gaizki, yaten giñun, arrun gaizki. Irauzi ongi eta gaizki yan, ta lan asko in. Ogi puxka aiek, edozein eskutan ibillik, ta ala re gustura yaten ginttun.

(Zubieta)



Narbarte.

GURE HITZAK

Gu bezalako ondarrantzat: Gu bezalako pertsona xeheentzat.



Behorrari ahoan paratzekoa.

9.3. Soldado garaia. Euskaldun izateagatik gertatuak

Gure eskualdean, jada ez dira mutilak soldadu joaten. Baina gure zahar guztiek pairatu behar izan dute egoera hori, eta, batzuetan, gorde dituzten oroitzapenak ez dira batere goxoak.

Ni soldado yuanta re... lau solas nazkin erdaraz. Afrikara yuan ta antxen goitti begira gizajoin... ameka burla in tziuten guri an! “¡Analfabetos! ¡No sabéis ni hablar!” Gu ixi-xillik, onbre! Eta, zipli! zapla! bi... pentsazu, oei urte ta oeita bat urtetan dapla! bi matalazurka man ere bai bein biño geitan... sarjento txar txuskero batzuk.

(...)

Onbre! Auniztan an! Auniztan ez... biño bein bi geitan ta: “¡Fuera! ¡Los vascos a la calle!” Ta gu antxe xi-xillik kanpora... (...) miño gero utzi ziuten, gu... (...) baigiñen aunitz ya... yuntatu baigiñen aunitz, uskaldunak. Ta an bear baitzuten... pezeta, enteintzen tzu?

(Ituren)



Zumalakarregi. Karlisten jenerala.

KULTURA

Kultura hitzaren erranahia oso zabala da. Orrialde hauetan, eliza, eskola, besta egunak, apustuak eta bertso eta kantekin lotutako gaiak aukeratu ditugu.

10.1. Eliza

Elizak eragin handia izan du gure gizartean, eta Malerreka ez da salbuespen bat izan.

Ofrendak

Bakarrik... neri ofrenda elizen... yeusten nitzen ni mezan ordun ofertorioko denboran ofrenda egitera. Oblata eskintzen tzuten; ogia lenik, ogia zaten tzen, da, len-len beti ogia. Beño, nere denboran, pues, ogia gai aunditan batzuk ekartzen ten beuk itxin indako opilla. Ni ari naiz nere demora onetan, e! Eta arekin eta kartz zuten gauz orikin, pues, bearbada... uaiñ, aste guziko ogia te[n] zenin, ematen zitzaion. Emn gari asko egiten tzen ordun, itxitan ogia eitten tzen; eta orrela, ofrenda. Ta igandero ofrend ori egitte giñun; ta beste batzuk, pues, ofrenda egitera urbiltzen tzerenin ta ogiri(k) etzutenak, zerbait dirua ematen tzuten. Ta ori, modu orretan egitten tzen. Ta, meza aldiro, ofrenda meza aldiro eitte giñun, aldiro. Ori re galdua da. (...) Eta, ortan, min ez da gauza bere-xirik izan, baño leku batzutan adittu

zandu dut nik, ori, zikirua eramaten tzutela illetan, illetan, ori. Min [Saldiasen] da Labainin t(a) ola sumatu izandu (ni)ttun iru meza eitten tzin illetan, ematen tzen lenbiziko klaseko... oietan zaten tzeren, ori, lenbiziko klaseko illetak, bigarren klasekuk eta irugarrenekuk. Baño irugarrenak oso... ni enaiz oroitzen iñik irugarrenekorik. Lendibiziko klasekuk pai, oitan bederetzi apez zaten tzeren; eta, bigarrenko klasekutan sei. Eta lendibiziko klaseko ortan bi-iru meza zaten tzeren ta meza bakotxin izaten tzen ofrenda. Ta beti ogia zaten tzen. Ta, nik eztakit, bakarren bat edo beste nunbatt ere edo kusirik, aragia ere... (...) ixterren bat, bai, itten tzuten...



Doneztebeko eliza.

GURE HITZAK

Premezik: Hasikinak, primi-ziak. Zerbaiten lehen emaitzak edo fruituak. Elizari eskaintzen zitzaizkion.

Amarna: Hamarrena, hamarrenak. Lurraren emaitzetatik Elizari eman behar zitzaion zatia. Hamarretik bat, hain zuzen ere.

Doikabe: Dudarik gabe.

Apezei nola ordaindu

Ori itten tzuten e... plazara bilddu... apezari mate tzion... oain miño religio geigo yun ordun **doikabe**, amarren arte **premezik**, amarreti[k] pat apezandako. Oei errugu... biltzen batt(u)zu, bi errugu ogi apezandako. Ta errugu't mallarra biltzen bazun, errugu bat, errugu bat bakizu **veintitres kilos** (...). Ta... ola erratn tzuten, ori, a... ape... apezandako, apeza arekin pagatzen zen, etzun eztu... Estaduk, iñok pagatzen. **Amarna** ta premizikin pagatzen tzun, beik ta zatten zittun... man tzioten belarra re... amarti[k] pat edo... batek... batek amar zama belar, bertzik bos, bertzik lau... ta... beikin ta bizitzen tziren ordun.

(Beintza-Labaien)

(Ituren)



Lurrarentzako tornua.

Elizara baraurik joan behar

A, nere ama yoan tzen... nere amatxi yuan men tzen **kofestera**... ta, ya baru in tzun apezak, ta:

–Ez jauna.

Ta:

–Nola eztuzu in baru?

–Ez jauna, eztzut egin...

–Pues zer yan duzu?

Ta:

–Zardin zar baten buztana.

–Ordun aski baru in tzu –erran men... [irriz] kontestu in tzion apezak–.

(Sunbilla)

Trinitate eguneko ohitura bat

Trinitate eguneko guk zortzi egunez antzintik erran bar giñun mutillari bear ginttula makillak. Ta ek iñen zkiuten antziñeko igandin prestatu ta guri emain zkiuten erki makillak, ya Mendaurrea yuateko, bai. Oi urtero, gu... ni Mendurra yuan nitzen bittartiño, soltera zandu nitzen bittartiño.



Prozesioa Malerrekan.

(Ituren)

Ortziral Saindu eguneko ohitura bat

Ori aittu zandu dut nik, da pasatu dela eztut siñesten, eta pasatu zann tzela ere ez beñ ere, ta Zubitan... zanttu dela ere eztakitt, biño... ala zaten men zela, ta ez zela... Ortizil Santo eunin lixibik egosten patzen (...).

Pues patu men zun **lixiba egosten** Ortizil Santo eunin (...), bueno, lixiba egosten patu omen zun, ta gañetik o... ura bota, ura epela botze zakkion lemeziko, gero berua, ta gero arrun berua. Aparra zuria gañera atetzen zenin iru edo lau azkenekuk. Eta, ala, ark ura gañetik bota ta odola ate men tza-ziola betik, saten tzuten (...). Ta gero ya... iñork etzula patu nai zaten lixiba eosten Ortizegun Santu... Ortizil Santu eunin.

(Zubieta)

GURE HITZAK

Trinitate eguna: Corpus Christi edo Gorputz Saindua, Bestaberri edo Gorpuzti izeneko festaren aurreko igandea. Maiatzean edo ekainean izaten da.

Lixiba egosten: Arropak garbitzen, arropa zuria batez ere. Ur beroa botatzen zen, maindire bat gainean paratzen zen eta hautsa botatzen zen.

Kofestera: Konfesatzera.



Argia egiteko petrolio ontziak.

10.2. Eskola

Eskola ez da beti irekia egon haur guztientzat. Oso urruti ez dagoen garaian, bakar batzuek bakarrik zuten eskolara joateko aukera.

Arratsaldean joan ikastera

Ink.: *Baserrikuk yuaten zieten “a la vela”, do zer da “a la vela”?*

Bai, “a la vela” pues da... ori, maestruk... estra m... estra maten zun maestruk. Miño yuate giñen ta egunaz ere gurekin intesa gutti patzn tzun maestruk, e! aitz intesa gutti. Zetiken, pf! *las cuatro reglas*... ori bai, ori *iautsi ziuten* ta akabo. Biño bertze punttuko oiek... amabi urtetan “Voy a ir a Le-cároz”... oiekin patn tzun maestruk intesa geixio ta guri batere, guk lau... *las cuatro reglas* (...).

Gero, ya amalau urtetan pues... kauen la mar, fuera. Itxin lanin, i... eskol pixko geixio, ta bakarren batek erran tzion:

—Oye, Antselmo (...), *ese da leziores particulares.*

Gue atta enteatu zen, a... laguna, laguna zun gañera, laguna ura. (...)

—Oye, Antselmo, *una cosa te voy a dezir.*

—¿Qué quieres Perico?

—Pues los hijos han salido ahora de la escuela y... *un poco más.*

—Sí hombre, sí. *De ocho... de seis a ocho que vengan todos los días.*

GURE HITZAK

Las cuatros reglas: Batuketa, kenketa, biderketa eta zatiketa.

Iautsi ziuten: Erakutsi ziguten.



Zubieta. Eskolako neskak.



Kafea xehatzeko errota.

Ta, joe! gu asi giñen bi anaiak... ta berzik, auzokuk *pelo... sia... a...* artu ziuten *como envidia* (...). Egun batin arrika eman tziuten... bi anaiari arat... ara(t) yuate inelakoz. E... Elgorrin yuaten tzien bida, Donamaritik bertze bide... eztait sei-zazpi laun yuntatze iñen. (...) Biño jolin... an ikasi giñun guk on... nik benpin (...) ikasi nun ikaragarria.

(Doneztebe)

10.3. Besta egunak

Besta franko dago gure eskualdean, eta ezin denak bildu orrialde hauetara. Hala ere batzuk, aukeratu dira: Ezkurrako antzara jokoa, Zubietako eta Ituren-go inauteriak, Beintza-Labaiengo danbak, Urte Berria, San Joan...

Antzara jokoa

Geo, antzara jokoa izaten tzan. Zaldien gañean pato zea at... antzara saten tziena(k) ta are lepoa kentzen da.

Ink.: Antzarrari?

Antzarari, bai. Zea, trotean zaldiek izaten tzien da zaldi gañetik zoazela, kendu bar zeñion, eskua-kin lepoa.

Ink.: Ta ze in bear zitzaion? Lepoa autsi?

Lepoa autsi, bai, lepoa moztu! Lepoa kendu, zaldik martxan tziela. Josita ustez zeatzen zittun iur batek, joseta; ta arrek biltzen tzenakin min(d)a pixken bat eo matten tzazion. (...) Antzara yokoa, antzara yokoa izaten tzen, bai.

(Ezkurra)

GURE HITZAK

Antzara jokoa: Ezkurran, joko honetan, zaldi baten gainean zihoazela zintzilik zeuden antzarek lepoa moztu behar zieten.

Pelosia: Inbidia. Gaztelaniazko *pelusa* hitzetik.



Inaute zaharrak. Zubietan.



Artoa eta baba xehatzeko errota.

Lehen, Zubietan ezberdin jo joareak

Zubitan gero etzen oain bezala yoari yotzen ordun, lasterka. A, bai, bai, bai, Zubitan ibiltzen tzi-ren denak lasterka blin! bin! lasterka, bueltaka, filan.

Eta, emindi(k) yoan tzen familli bat Zubitara, iz... Ameztitik bizitzera, eta, aiekin asi ziren gero pausun yotzen.

(Ituren)

Inauteak

Ink.: Ta yoariak patzeko bazegon adin bat ola, o...? Jartzen al zitun edozeñek?

Ai, ai, amara... an bai, gaztetan sarzeko bear zen. Ordun oain miño diziplina aundigu zen, etzen aurrik ta plazan zaten gaenik ere. Aonin konbersazionia aitzen eo... igual neska mutillak solasin (...), ordun arratsin **ilunezkila(k)** yotzen zun illun-illun-illunin, aurrak denak etxin. Eta ba, an arrapa-tzen bazten gerriko ualakin dipi! dapla! aire! [indarrez] denak. Ala da, ordun oiun ta munduk dizi-plina zen... iñautitan sartzen ziñen, iñautitan emezorzi urte do... amazazpi, emezortzi. Eta, mai ga-ñin in bar tzuten jota bat. Jotaik ezpaitzuten yakitten miño antxen dantzan ibiyi bar zuten. Ta orduntxe: “Bueno, oain gaztik tzate”, ta gaztetara. An artiño mendiño oanak, goiti asko, **mozorruk**, jui! aztik: “mozorro zinco, veintizinco! Mozorro seis, veintiseis!”. Mozorruri... ittn tzion burla: “mo-zorro zinco... mozorro seis...”. Ta, gero mozorruk lasterka... ta oi, arbola goitti [indarrez] asko, ni geriztik goitti yoanak. Ta onat, Amezti aldera bai, ua ya unaño torrik, mutik kuadriya, neska(k) ta... neska koskorak.

(Ituren)

GURE HITZAK

Ilunezkila: Iluntzeko orduan jotzen zen ezkila, etxera etortzeko garaia zela adieraziz.

Mozorro: Mozorroa janzten duen pertsona, haurrak ikaratzten dituen.



Joaldunak.



Zetabea.

Mozorroak

Ink.: *Eta leen nola zen mozorro... bo, ze, trapo zarrakin ta nola zen?*

Oan miño obekio. (...) Guk itn gintun, **nik neurrek** banun, Doneztun... yost... yostunak bazi-ren, ta trajia naiz, "Izu mozorro traje bat neri". Ta itte z(t)en bi-iru tela klasekin, an zatn tzin retalak, pusko bat nabarra, bertze pusko bat gorria, anka, eta beti gotti sartuta buzua. Ta gero, txapela, emen kuerdakin. Geo kareta, eza... iñok ez ezauzko. Ta bakan baten ezautzen bazten, ttak! bi itxeri... itxe batera yuan bik altura bertsukuk edo... ta ttak! aldatu, arropak, maskarak eta. Ta, "Bai, i yaiz!" ta, gero ez ura, gezu... bertzia... aldazen giñen agudo!

(Ituren)

Danbak

Ibiltzen tzirin, ola, beztittuta, txuriz beztittuta.

Ink.: *Damak?*

"Danbak" errate giñion, "danba beztittuk" errate iñion. Zitzin... arrop(a) xurikin beztittuk, zaten tzin.

Ink.: *Dena xuriz.*

Txuriz dena. (...) **Ttuntturrua** ta yoarik patuz, bai, gerrian. Miño, azpiko ek txurik zatn tzirin leno, gerrin lotzen tzirinak. Ta, goitik lepotik lotu atzuk, ta bertzik, berriz, gerritik; ta denak xuriz beztittuk.

Ink.: *Eta ze, ola, gonakin, azpiko gona...?*

Azpiko gona(k) puntillikin ta zatn (b)aitzirin lenoo. Guk ez gintun ibiltzen alkurik, bño, lengo yendik biltze(n) baitziuzten alkuk!

Ink.: *Eta atorra?*

Atorrik ez! Aiek, lepotik ba! Azpiko [g]ona aitekua ta gero, berriz e bertzia patu, bai, itten tzi(t)uzten.

Ink.: *Eta yoarik gerritikan.*

Yoarik edo gerrien, larrukin. Ta alxe ibiltz(e)n tzirin.

Ink.: *Eta oiek zer tziren, gerran aintzintik? Gerra aintzintik?*

Bai, bai, gerra aintzintik, bai.

Ink.: *Gero bukatu ziren oiek?*

GURE HITZAK

Ttuntturrua: Mozorroek daramaten kapelu berezia, luzea eta itxura konikoa duena.

Nik neurrek: Nik nihaurek.



Musikariak Doneztebeko frontoian.



Larrua gisuan edo karean ilea kentzeko.

Bai, gero zer in tzirin urik, gerra pasatu ezkeotik gero mozorruk pai, biño ola, zer(a) urik etzirin ibiltzen.

(Beintza-Labaien)

Urte Berri eguna

Gero, Urte Berritan tzen usariua, erri ta... erriko itxe guzitan zerbatt botatzeko, ord... iltxaurra do... gaztaña ta, sagarra ta, dentik biltzen zen (...). Ura, leiotik bota arrika, ataira.

Alaba: Ya nola eskatzen ziñuten botatzeko?

A, bai, bazen:

“Urte berri, berri,
nik atorra berri.
Nik maukaikan,
nik axolik ez.
Xiripitton! Xiripitton!

¡Compañero!
Nausi ona,
itxeko andria [irriz] obia.
Atik ta leiuk ideki
ta bota! bota **urtatsak!**”

(Elgorriaga)

San Joan

Arrosak, ortentsiak, **millua**...

Ink.: *A edozein... zaten da San Juanetan bedeinkatua?*

Klaro, San Juan loria...

Ink.: *Biño noiz bedeinkatu bar da?*

GURE HITZAK

Urtatsak: Eskean etxez etxe eskatzen den saria.

Millua: Milua, ginbaildunen familiako landarea (*Foeniculum vulgare*), anisaren antzeko dasta duena, eltzekari gisa ego gozagarritzat erabiltzen dena.



Inauteak Donezteben.



Zartagiondokoa. Zartagina tresna honen gainean paratzen zen.

San Juan bezperan; eta aurreko urtekuk itten ttuzu erre, eta itten tz... itten tzu salto, eta erraten da:

“Sa... sa... sarna fuera!
ona barrenera!
gaixtua kanp(o)ra!
viva San Juan bezpera!”.

Eta... oiek zaten dire. Gero berriz bedektzen tzu belarrak eta urrengu urterako gordetzen izu aiek. Edo, ortotsa ai zun denboran, edo... tormenta aundia ai zun denboran, do ximista aundia ziren denboran, pues erretzen tziren igual suan. Ta zaten tzen, **errezten zen** Santa Barbarari (...):

“Santa Barbara...”–nere amak erraten tzun–
“Santa Barbara glorosua
libra gaitzazu erauntsi eta
ekaitz txar guzitatik”.

(Urrotz)



GURE HITZAK

Errezten zen: Errezatzen zen.



Igitaia.

10.4. Apustuak

Euskal Herriko bertze eskualde batzuetan bezala, era guztietako apustuak egin izan dira Malerrekan. Batzuk herri kirolekin lotuak zeuden, baina bertze batzuk edozein aitzakiarekin egiten ziren.

Nork zerrikeria handiagoa egin

Arek in tzun, Ilario, zeñek in ez... zerrikeri aundigua in apostua elkarrekin biek, ta, apo bat arrapatu ta atxikin artu, ta puska apua (...). Eta, onek in tzun berriz, uliak eo... egoteko, itxektzko zaten baizien zinta batzuk, etko bat dena uliz betia, ta ure artu ta in tzun ietsi. Ta, zerrikeria aundigua.

Ta gero, karo, orri Ilario orreri, en... ate zion sarna ta arpegin ola pixkot... miño ba, sendat tzion ore abudo. Biño ori ez sendatzen (...), zinta ori ez botatzen, eta an, estomakan, ta oaiñ erran dutena, mediku ori, Labaien... Alfontso Labaien ori anaia baizun onek, eta, arek iñalak [indarrez] iñ, ta erremediuk man, ta bat ta bertze, ta nada. Ta gero bazen men Zubitakua gizo'mat Pentako ola... **Pentako Pello**... Pello zun izena. Belarrak eta bilddu eta aitzen zen ori, erremedio belarrak. Eta, arek man zkion belarra... ura artzeko, ta belar batzun ura artu, ta arekin.

(Ituren)

Zerri-apustua

Bai, zerrikin apustua gustoa artu ñun, bai. Ordun aittun apustue, ba, "zorea obe zela nerea biño", eta elkarrekin in tzion apustu. Ta, bota **zioan** artoa, arto puxke bota zioan. Da, bi zerrik burruka asi zien ta debatia iza'mer!

(Eratsun)



Apustua arpanekin.

GURE HITZAK

Pentako Pello: Zubietako Pentea izeneko etxea, Penta jada 1702. urtean.

Bota zioan: Bota zioten.



Esku-zerra.

Odolki-apustua

Bizi dun oañik ori, odolgia... odolki yan tzun ori... gañe iru kilo odolki yain zittula, ta:

–Ez! Ez!

Ta:

–Baiez!

Ta... bueno, itt uzte... iru kiloko odolke pat ttuzte ta... bakizu, xigortu, erre in barrin guti erreta, bakizu ikatzeko [indarrez] ba. Eta, patu yozte ta orrek tribi-dapa, dapa, dran... linpio! yan ttun denak!

Eta mu... punt ura ta kuerdak... bakizu, ta an uzten, da:

–Ei! Ez ttuk yan denak, e! men tzaudek ok, puntak men tzaudek eta!

–A, bai!

Denak, kuerdak eta puntak... odolki puntak denak artu ta denak iretsi. Oañik bizi da...

(Ituren)

Ahoarekin karga altxatu

Baita re aitzen tziren o... ozkan artu ta altxatzen unenberze karga... (...) maiak ere bai, aitzen zen ozkan artu ta...

(...) Mutil ttikia zen, miño ortzatan... ta, egun batin Zubitara yuan d(i)re... emendik a... iñautitan ta Zubitako ostatu batin zakurra... **iziko zakurra** arra [indarrez], aundia, eta, ori bakizu arro-arro iñak iñautitan ta, yuan ta zakur uk! uk! uk! **saingaka**... yuan ta taka! artu zakurra lepotik, ta artu du ozkaka burutik, kaskutik ola, ta zakurra airin, zu!

(Ituren)

Hortzekin azukre zakua jaso. Gero, buru joka...

Orrek apustu iñ omen tzun ortxe, beko taberna izaten tzen, ta. Iruroei kilo pisatze zittuen azukre... len men tzen saldu kiloka, tortzen zen zaku aundia, ola, irurei kilo, ta. Ta, apustu in tzun: “baietz artu ortzakin! Artu, ta emen artu, ta area eramman ortzakin”. Ta eramman in



Pilotan.

GURE HITZAK

Iziko zakurra: Ehizako txakurra.

Saingaka: Zaunkaka.



Atearen xanga.

tzun orrek, e! Eta orrek berak in... (a)pusto at in tzun Tolosan. Iñ omen tzun buru yoka, zu, aari(k) bezala.

Ink. *Burua autsi arte, edo nola?*

Ta, in men tzuen beste gipuzkoano atekin, ue re goorra ze[n], au re... onek e buru goorra izaki, ta, man men tzion, ola, bi golpe ttiki xamarrak eta iruarrenean, ola artu men ta [keinuka ari da] zapatil ikearri eman men tzion! Ta, au miña artuu re __ biño, onek berriz aurre ein da gipuzkoanoa eskapo in ta martxa in tzun. Etzion besterik eman!

Ink. *A ze fitxajea, ez?*

Bai, bai, bai, bai. bizkorra zein zen dui(k)gabe. (...)



Laxoa. Oizko plaza.

(Eratsun)

10.5. Bertso eta kantak

Zalantzarik gabe, gure kulturaren adierazgarri ederrak dira gure herrietan bildu ditugun bertso eta kantak. Gai anitzetakoak bildu ditugu, eta gehienak gure gizartearen ispilutzat har ditzakegu.

Maizterrenak

Orain artian aitona
Ni izan naiz zure nagusi,
Errenta xintxo pagatu dezu
Zere kapoia eta guzi.
Zu baño gizon omillagurik
Oraiñik eztet ikusi,
Orain etxia saltzera nua
Nai balin badezu erosi

Lauogei duro zuen errenta
Etxiak oraiñ artian,
Zerorrek ala pagatu dezu
Berrogeita amar urti(y)an.
Lenguak bertan gelditutziya
Ezta neretzat kaltian,
Bos milla duro balio ditu
Eta ya konpondu gaitian.

Zer familiya izandu degun
Jauna, nai al du aditu,
Amabi aurren aita naiz eta
Semiak amar baditu.
Lana egiteko, iñor gutxi ta
Mayian ezin kabitu,
Banauke nun enpleatu
Bosmilla duro banitu.

Eskerrik asko nagusi jauna
Pakian beau dogo bizi,
Baña izketan bukatu arte
Ez bedi juan igesi.
Klaro dabillan gizonak eztu
Arrazoi txarrik merezi,
Nai duenari saldu bezaio
Nik ez dezaket erosi.



Zuhaitzak zuritzeko pala eta zerrotea.

[tonoa aldatu]
Azindaz eta lana erremintaz
Bagiñuzke ba indarra,
Oiekin ere eztegu orain
Oso alderdi ederra.
Zazpi balio luteken gauzak
Bostian eman bearra,
Au pentsatzin etorritzen tzait
Bi begita negarra.

[tonoa aldatu]
Prezisamente joan bearko degu (...)
Baserri edo kalera,
Norbatteri egitera
Bizilekuan galdera (...).
Esplikatuaz nola izan den
Familiaren galera,
Gure Jainkuak nai duen artin
Nunbai mantenduko al gera?

(Doneztebe)

Baratzeko pikuak

Baratzeko pikuak
Iru txirton dittu.
Neska-mutil t'eruak

Ankak arin dittu.
Ankak arin dittu,
Ankak ariñ eta

Burua ariñago,
Dantzan obeki daki
Artua jorran baño.

(Zubieta)

Arduaren bentaja nua esatera

Arduaren bentaja
Nua esatera
Gizon aundiagorik
Munduan ote da?
Asko edan baño len
Asko edan baño len
Nua y'esaitera
Zenbat gomeni zaigun
Kontuak atera.

Ez da ilon sokorik
Ain gutxi dionik
Arduari neurria
Artuko dionik.
Gizon aundiak ere
Ikusten ditunik
Berek mozkorra ezin
Disimulaturik.



Urrozko Danbolineko bordako familia. Gurasoak eta hamabortz seme-alabak.

GURE HITZAK

Txirton: txerto.



Kaikuak eta zurezko tresnak egiteko errakiak. Markesea, Zubieta.

Batian arrastaka
Bestean erori
Nolabait etxera ba(i)
Gizon mozkor ori
Gero maldizioka
Gero maldizioka
Andre gaixoari
Txapela kendutzeko
Tabernariari.

Gizona etzin zaitez
Pakean oiera
Eguna zabaltzean
Konponduko gera
Txapela prenda utzita
Txapela prenda utzita
Etorri al tzera?
Kreditu ederren bat
Badegu sartzera.

Arduak etzuela
Zenion indarrik
Txapela batengatik
Ez egin negarrik
Nik ez det ikusi nai
Nik ez det ikusi nai
Orrela senarrik
Burugabeak ez du
Txapela bearrik.

(Eratsun)

Sei baso atera ta

Sei baso atera ta
Sei tragotan ustu
Beste sei edaiteko
Laun bearrik eztu.
Edan korriente bañan
Pagatziak aztu
Ola tabernariya
Eziñ aberastu.

(Ezkurra)

GURE HITZAK

Errakiak: Zurginaren lanabesak, burdinazko aho batez eta zurezko eskuleku luze batez osatuak, bi eskuez eragirik zuloak handitzeko erabiltzen direnak.



Ostatuan.



Egurra lantzeko makina.

10.6. Euskara eta erdara

Duela berrogeita hamar urte, erdara ez zegoen gaur bezain errotua gure herrietan, baina, hala ere, nabarmena zen haren presentzia han eta hemen. Bi hizkuntzen arteko harremana, jakina denez, ez da orekatua izan, eta hainbat eta hainbat pasadizo sortu ditu horrek.

Antepáticas

Emen lemeziko itxi ortan (...), Romanen borda, lemeziko itxia. Ta or karretera... ta paeta ta karretera, ura etzen ainberze kotxik ibitzen ordun! Or aitze iñen pillotan. Ta patu iñun raia bat, paetan, ta gu... aitze iñen pillotan.

Ta atsaldeko labak, bortzak aldin... ola bortza(k) aldin, tortzn tzien Narbartetiken, Oieregitiken, Legasatiken neskatzak Doneztebera, *a la capital*, onu kapitala omen tzen au [irriak] oikindako... Ta, eldu zien ta, iru anai an dire a... yuan zien *Ameiketaa*, ta ni... gaztenatiken ta:

–I, mia se... eldu ittuk alakuk! Ze neska ura!

–I, ze errango ziu? Ze erra... ze errango ziu? (...)

–Joño! Ze erran biar... ¡ayos guapas!

–Oi... ori gutti duk! ¡Simpáticas! –benpen berzi... bertzik–.

–Sinpática... oi miño aundixigua...

Ze, ze... ze atrasamientua! Ta, bat Inaxio, arrunt trastia zen (ta Inax...):

–Nik erranen tziot ¡Adiós antepáticas! Oi erran bar tziogu!

Eldu zien neskatzak eta:

–Ai zate pillotan?

Da:

–Jo, ze neskaxa majuk...

–Ta, bueno... aios! aios!

–¡Adiós! ¡Adiós! ¡Antepáticas!

–Mekaguen... la letxe puta! Ze erran ote ziuk?

Ze, nola biziya giñen, e! ordun, e!

Ink.: Pentsatuz geiago zela, ez?

Geigo zela... antepática...



(Doneztebe)

GURE HITZAK

Ameiketaa: Ameriketara.



Malerrekako herri izenak euskaraz idazten dira gaur egun.

Soldaduak harategian

Ori... ori men tzen, Doneztuben, Doneztubeko ka... karnizeia yuan tzien. Eta, nai zun kilo bat gibela, ta, ori... karo, e... galdetu zion karnizeruk:

—¿Qué quiere usted?

Ta:

—Pues yo un kilo de... de atrás.

(Ituren)

Sunbillan gertatuak

Torri zen medikungena, miña artuta, bizikletetikan erori ta miña artuta etorria zen, eta... medikuk erran tzion:

—¿Qué te pasa, Tiburzio?

Ta:

—(...) Se bajó de varillas, (...) se quedó la rueda en el quieto, y yo dado la vuelta.

Eta gero orren familikua zen bertze bat, etorri zen tiendara, erran tzion a...

—Aizu Bittori, nai dut sagundoko medezina.


Ta Bittori arrek erran tzion:



Doneztebeko udaletxea. Bandera- dantza udaletxean egin zen azken aldia.

GURE HITZAK

Sagundoko medizina: Saguentzako medizina.



Iruña. Mende anitzetan euskalduna, baina baita erdararen hedatzailea ere bai.

–Zer ttuzue, saguk eri...?

(...) Sagun benenua nai zun, saguk iltzeko benenua nai zun... [irriz] ta erran tzion medezina [irriz].

(Sunbilla)

Ta ge... gero familia orretan zen ere... ama, erittua, zizaion gaizki, ta medikua yuaten tzen eta erran tzion alabak, este... gaizki zagolikan medikuri “¿En cuántos días matarás?” (...). Zenbat egun... eno... zenbat irauten al zun galdetu zio... nai zion ta “¿En cuántos días matarás?”.

(Sunbilla)

Maisua Berroetan

Berruetara bein tor tzen maiso bat... ta... artu zuten itxe batin e... apopilo erraten tzen ordun. Ta, egun batzu(k) pasatzen an ta asi zen pentsatzen “nik emen komunera yoan bar badut... non... non ote ute komuna?”. Ez iñon ikusten... egunaz eskolan tzagon, ta an bazen, miño itxeko nausiri asi zen galdetzen:

–*Oiga, e...* –maisua erdalduna, etzen euskaraz...– *oiga, ¿aquí dónde... re... retrete?*

Ta:

–A! *Retrato!* Elizondo, Elizondo.

–No, Elizondo *no*.



Gaur egungo udalek euskararen alde lan egiten dute.

GURE HITZAK

Berrueta: Berroeta, Baztango herri baten izena.



Pinua zuritzeko tresnak.

—Re... erretrato...

—Pa hazer cuerpo... de cuerpo.

Ta:

—Cuerpo entero y medio cuerpo, Elizondo, Elizondo. Todo Elizondo.

—Ez... no puede ser, no puede ser, ¿cómo Elizondo?

Azkenin erran tzion p... quiero... yo le digo para ir a... a... (...) al final no sé le... qué palabra dijo, igual le dijo pa ir a cagar... no sé.

—Al! Ya, ¿eso? abajo, detrás de las vacas, allí, allí vamos todos.

(Sunbilla)

Amatxi erdaraz

Nere amatxi e... kus men tzun apeza eldu zela ola goiti[k] petti... ta nire izebari (...) amatzik erra-ten omen dio, Gregori zun izena:

—Gregori, *ate ztte* leiora, ta... erra ziozu apeza eldu da ta ya... zer gisa dagon... ama. (...)

—Ni enaiz atrebitzen. Nik eztiot galdetuko, nik...

—Nola eztiozula galdetuko? E... zere denboran eskolan ta etakit tze...

Ta, izeba etzela ateko leiora... apeza zen erdalduna. Atetzen emen da nere... amatxi, ta:



Joaldunak.

GURE HITZAK

Ate ztte: Atera zaitez.



Tiraburnia. Enborrei sartu eta garriatzeko.

—Oiga, suste, Don Plázido, ¿a cómo tiene la Evarixta? [irriak]

Ta, arek, klaro, enteinttu zion... ta:

—A... *mejor, mejor, mejor.*

Barrena sartzen men da ta erraten men dio ner... nere izebari:

—Orra! kustn dun! Ni eskola(ra) yuan gabe biño apezak enteinttu dit! Ergelak zuek, eztakizue solasin!

(Sunbilla)

Medikutan

Gure attak zittun barizak, eta geo barizetiken beiak ukittu zion zangua ta in tzion erittu. Ta yuan tzen medikungana, ta medikuk erran tzion, bue, gure attak zun... yorikin ibize zen iñautetan aunitz, eta gure amak erraten tzion, bai gue amak etzun barizerik ta attak auniz. Ta erraten tzion “Bai, beti yorikin ibiltzen zera ta orik ematen dizute... ortako zu barizak”.

Bueno, yaga ura zandu zunin yuan zen medikungana, ta, medikua erdalduna... Ittunan, ta erran tzion (...):

—¿*Qué te pasa?*

Ta:

—*Po... esto, no se cura. Estoy curando con zotal* [euskal ahoskera](...).

Ta erran zion medikuk:

—*Sí, pues ya vamos a ver cómo...*

Nola iñen den, ta erran zion:

—*Ba, muje...* —gurik etzakin erdaraz, gue attak eta erran tzion— *mujer dezir andar zenzerros...*

Etor ziola ori... ta:

—*No, las mujeres también tienen...*

Ta:

—*Bño, sí pero las mujeres parto...*

Eta erran tzion:

—*Pero las chicas también.*

Ta:

—*Sí, pero las chicas hazer y dejar en zarzas.*

(Ituren)

MITOLOGIA ETA SINESMENAK

Euskal mitologia zaharra galtzen eta ahazten ari den altxorra da. Gure grabazioetan bildutako gaiak, agian, azken aldiz jasoko dira jaso diren moduan: **sorginak, lamiak, jentilak, Sanson eta Errolan, animak, animismoa...**

11.1. Sorginak

Gaia ateraz gero, konturatuko gara sorginak oraintxe arte izan direla gure artean. Edo agian hemen ditugu, eta, Iturengo hiztun batek dioen bezala, lehen sorginak ateratzen ziren, eta orain ez omen, orain jendea kotxean dabilelako beti, eta horrela “nola aterako da sorgina?”.

Behi sorgina

Ori **Zarañen**, Ato... Atoneko itxin. Itxe ederra [indarrez] da, bu! lau kuadruko itxe bat, ortxe... bidin onatko aldin.

Ta senar-emaztik orikenak... zuazi noiz ori... kontu orrek... ori da... dena Ittunan egondu ziren ek edo... zubitarrak, zubitar dena emen ibiltzen baiziren... au dena kenduko zen... ek etzuten mugarririk, ta, arratsin klua! kan! kan! kan! kan! kan! kan! kan! kan! Batarin beia...

—Eerra uk! Orra, beitu orrei!

Da, ura be... ator utsik gizajuk, **eskrapoñak** artuta beittira, ta andria guatzin. Ta:

—Touz! touz!

Ta beia bezal-bezalkua antzinkaldin, ta:

—Touz! touz!

Ta, orti[k] parna bide... karrete-rara, karret'tik elizara, elizatik Sa Joakiña da **goitxio**, Sa Joakin... ermita. Ermita arti miño lentxio, aspertu zenin titu [indarrez] arri bat ta da! yo [indarrez].


—Tizak! tizak bertze bat!

Ta, ia! [indarrez] itxera. Ta:

—In dut ua eerra... [indarrez] ori biaji in dut! San Anton... izandu naiz ermitiño ia, Sa Joakiñiño. Ta, tiatzeko erran dit bertze arri bat, eztiot tiatu.

—Itz emakion ta... —andrik— yo ta kusi nor zen?

Da, bai, biamonin aanaztar atso bat ortxe illa.



Sorgina, Iturengo inauteetan.

GURE HITZAK

Zarañen: Zaraindia, etxe baten izena.

Eskrapoñak: Eskalapoiak.

Goitxio: Goitixeago.

(Ituren)



Laratza.

Giltza-zulotik

Ink.: *Eta sorgiñak, itxetara sartzen tzirenean, gero nondik eskapatzen ziren?*

U! nunaitik! Al bia... giltza zolotik.

Or... Sunbillan... bazen... baserri auniztan leno-leno-leno, gizonakin guatzera yuan ta arratsin andria uixt! giltza zolotik.

Ta lemiziko atia ideki uzten ta gizonak ondoko eunin “E[z] xi[z] xonan ez, falta ot etsi”.

–Nun duk atsu ori?

Eta, yuana zela pix itteko aitzakia **enpen** goizin, ta:

–A, bai!

Atia (g)iltzatu. Biño, ate zolotik.

Orik begiz... espiritu biurzen ziren itteko. Orik etzin yende biurtzen, espiritu biurtzen tziren ta aizia bezala, ta uixt! zulotik atetzn tziela.

Sunbillan men mai, ma... makumi aunitz, gizasemik gutti noski, mak(u)mia...

(Ituren)

Sorgina eta mandoa

Ink.: *Eta gero, sorgiña... agonin zagolik, ezin tzen il norbaiteri... sorginkeria pasa-tu arte? O nola zen ori?*

Ori nik eztakit, oi esaten tzuten... iltzen tzela... **mando'materi** iten ziotela... nola esaten zaio? konjuria do eitten ziotela... eta manduan epurditik sartzen tzela ura, eta ordun iltzen tzela, ta mandua saltoka [indarrez] ibiltze men tze-la...

(Zubieta)

Oilarrak gauez jotzen badu, sorginak hurbil

Ola... amabik aldin edo ola... benpiñen zet zen, (o)llarrak yotzen baldi'mazun “Oi! oi! sorgiñek ondun dabilta... **txin** **ondun** dabilta” ta sure gatza bota.

(Zubieta)



Harrizko gurutzea Zubietan.

GURE HITZAK

Enpen: Behinik behin.

Mando'materi: Mandoren bati.

Txin ondun: Etxearen ondoan.



Haria egiteko marathilak.

Haria egiten ari zela sorgina agertu zitzaion emakumearena

Pues, bat aitzen tzela ari itten, sun ondun beti. Ta tortzen tzela tximiniti(k) beitti egunero sorgiña edo. Ta eskatzen omen tzion emateko, bazuela bizioa, zartagiñen erre ta gantza atera, pues, **gantxigorra**. Ta: “Mari, karran gantx!”, ta, “Maria, ekartzan gantxa!”, eten omen tzion, ta: “Gabon Maria. Oi! Au ari fiña!”. Ola, arek zerrin gantxa, pues, egunero ori erraten tzion pixkot, eta in tzion egun batin akittu. Ta: “gaur tortzkin ze mein diot?” Eta, “pues, zerbait ere plantatu biarko zu biarko, bertzenaz zerbait makurra pasatuko zaizu”. Egunero etortzen omen tzen tximeni beitti. Ta, azkenin gizonak ezautu zun andriak bazula zerbait ere makurra. Ta erran tzion: “ze pasatzen tzu?”. Ta, “bai, egunero **arrastan** zue(k) guatzera yoatekin etortzen tzait eta ematen diot egunero pixko at, biño oaiñ akittu ta gaur ze (e)main diot?”. Eta, “A, bai! Ori duzu makurra? Ez preokupatu, ni geldittuko naiz gaur zukin”. Ta geldittu omen tzen, patu buruko pañulua ta ari itten, ari itten. Eta arek ez yakinki ari itten andrik bezala. Maria zun izena arek, Mariak itten omen zun... “Oi, ze ari fiña, andriak fibirin-fibirin!”. Ta, asi omen tzen, ta: “Gabon, Maria! Oi! Gaur ze... aria pordoka-pordoka!”. Pordoka da dena koropillua, etzula ongi itten. Eta bertzik zaten tzun zartagiña sutan oliyukin: “pordoka-pordoka?”. Artu zartagia ta beitti-beitti bota men tzion, eta erre. Eta etzela geigo agertu.

(Legasa)

Sorginek neska eraman

Sorgiñak... bai, sorgiñak bazirela, biño, klaro... ek fedi ura bazuten, kusten zittuztela. Gure amatxik erraten tzun ura egun batin yuan tzela errotara, ilundu zaiola, errotara yuan d'illundu. Eta, etzakila sorgiña zen... **Epelun barna** yuan tzela bueltan, ta astun antziñin yarri zela gizaseme baten forman bat. Eta astuk ura ondora tortzekin ezpen tzun pausorik maten. Eta, arre! ta arre! aa ezpen tzun pausurik maten. Eta gero, ordun erraten men tzen ta sorgiña zain tzela, ta sorgiña zela... Eta, amatxi asto gañin, eta erran men tzion... ori:

—Mundu untara baldi... mundu untako baldin bazara mintza zitte! Ezpazara mundu untakua onda zitte! —erran men tzion—.

Eta ordun ya Aitaren in men tzun amatxik eta desaparezzitu omen tzen, sorgiña...

Do... ori, Donamarin zaten tzen *más bien* sorgiñen ori. Errot zarrin zaten tzirela sorgiñak, Donamari(n). Eta ordun erraten zuten, ori... Mengotxia, an itxe bat ederra, etzutela urik erraten tzun (...) ta etzutela urik. Ta neska bat, ango etxeko alabari erran tziotela:

—Neska yuan bark'un ferrat ori artu ta ur eske.

Ferrata zaten tzen zurezko zera bat. Ur eske, ta yuan men tzen ta erran men tzion:

—Bai, biño sorgiñak gargero ateri dire...

—Bai, biño utziko yaute, etzala kas(i)k in.



Ura ekartzeko ferretak.

GURE HITZAK

Gantxigorra: Zerriaren gantza urtutakoan egiten zen jaki gozoa.

Epelun barna: Epeloa, Donamariako etxe baten izena.

Arrastan: Arratsetan.



Erroka. Elgorriagako Ximonean.

Yuan men tzen, ta sorgiñak artu men zuten, kendu men tzioten ferrata, eta erran men zioten yuain zirala Mengotxera eta errain zutela: “Gaba gabazkundako, eguna egunazkundako, eta zuen Maria ezta geigo Mengotxerako”. Ta banba! Bota zutela ferrata, sorgiñak.

(Donamaria)

“Onezko bahaiz, mintza hadi...”

Lenogo... gendiak aitzen ziren...sorgin aterik, oaiñ ezta zetzen, miño oaiñ e nola ateko da? dena kotxin dabil yendia... miño lenogo... ez beiñ, frankotan, ta: “Onazku baiaiz mintzadi! Ta gaixtozko baiaiz ondadi!” erraten tziotela... sorgiñari. (...)

Ink.: Gizon bateri ori erran “Onazku baiaiz mintzadi...”

Ta, subik salto in lepora, kopetara... salto iñ. Eta a... artu ta kopeta antxe marka geldittu bere denborako iñ omen tzion, zikatriza kopetan... benenua... subi arek.

(Ituren)

Sorginkeria pasatzea

Ink.: Esaten dute sorgiñak ezin direla il, agonin gelditzen direla ta sorginkeria pasatu bear diotela norbaiti... (...)

Ori esaten du(e). Gañeakoan ezin ill izaten diela iltzeko demoan, da esaten duela: “Artu, artu nere sorginkeri uri, nere parte gaizto ore artu! Gañeakoan ezin illez mntxe eon bearko nuke ta!”. Da, erreguka parteun (?) bat ere do illeun (?) bat ere do... ta pasa(n) batzuk konbertitzen tzioala, pasatutzen tzuela.

(Ezkurra)



Zugarramurdiko leizeak, sorginen bilgunea.

GURUTZAK

Mengotxerako: Bengoetxea, Donamariako etxe baten ize-na.

Subik: Sugeak.



Egurra zulatzeko taratuluak.

Sorginak nola lekutu ziren

Ta gero bota zuten, ori iltzeko... sorgin oyi iltzeko, bota zuten errugu bat **liñazi**. Aittu zain tzue gergero, ez? (...). Lengo zarrak denek ori erraten zuten, le... gu yaio biño lenago...kuk erraten zuten, ori... errugu bat, badakizue, errugua zaten tzen oe... oeita bi kilo do ola itten tzen, eta... ura bete badakizu aziy'ori ttikiya zaten da, e! Ttikia [indarrez], eta ura... urti oiek dena[k] pete artio ez atetzeko, inz... in tzutela..

Ink.: *Nork egin tzuen konjuro ori, do?*

Ori lenogo in tzutela bertziak, sorgiñik eztirenak... ta antxen sartu denak.

(Donamaria)

11.2. Lamiak

Lamiak ospe handikoak izan dira gure eskualdean. Bertizaranako armarrarian, errate baterako, lamiak ikus ditzakegu.

Lamiak Bertizaranan

Etortzen zirela Bertiziño ta or gelditzen tzirela, bere ispillukin ta orrazten... Nola zen lekua ain pollita, ba... orrengatik erraten diote “*el valle de las lamias*”, Bertizaranari (..) Eta gañera, gizona(k) yoaten bazien urera, lamiek eramaten tzuten. Etzuten nai zaten illunabartan andrik gizonak yoatea ualde bazterrera, lamiek engaintuta eramaten z(i)uztelakoz berekin. Ta bakarron bat yoan ta etzela geigo bueltatu. (...)

Ink.: *Eta lami oiek bazuten urrezko orraxia, ta ola?*

Bai, bai. Ispillua ta urrezko orraxia. Ta aitzten tzirela... Etzuten irakusten... bakarriken gerritik goitti zuten emakumea, eta ordun etzuten erakusten puztana. Ta gero konturatzen tziren arraian buz-tana zutela.

(Legasa)



Bertz: “nola zen lekua ain pollita, orrengatik erraten diote *el valle de las lamias*”.

GURE HITZAK

Liñazi: Linazi, lino-hazia. Berez oso txikia, eta horregatik erregu batean kantitate kontaezina sartzen da.



Xarrantxa. Lihoa kardatzeko tresna.

Lamiak nolakoak ziren. Iturengo lamiak.

Ink.: *Eta lamik nolakoak ziren? Dena urrezkoa zuten ta ola, ez?*

Urrezku zuten dena, bazakiten ta gañea nun tzen urria... (...) bai... dena-dena-dena(k), orraxik eta, burrunzalik eta, platerak eta, kazuk eta, denak, denak ola...

Ink.: *Eta nolakoak ziren adittu duzu nozbatt ere? Amatziri do...?*

Ama... arek erratn tzun: "Bueno, nai zuna artu oaiñ! aurra yaio zenin, aurra de... de... deit tzuten aurra... zateko. Eta nik uste den, or, Yoanin zun aizpa, eta...

Ink.: *Nork?*

Andri orrek o amagiñ orrek. Ta aizpa... aizpa zelakoz, ori... man tzion aizpakeri zerbatt, ora... ori itteko. **Yoanen** ere baita ori iña.

Ink.: *Yoaneko andria etzuten deitu lamiek, emagin lanak egiteko?*

Ez, ez, ez, ez. **Barbenekua**. Bertan, ondo-ondun (...).

Ink.: *Eta, Barbeneko andria zer? Emagin lanak itteko deitu zuten, ez?*

Emagin lanak itteko erriz erri, itxeus itxe ibilzen zen, Ittunan itxes itxe, ta ek ikas zuten, e... dui(k) gabe omo... ba, yakinn zuten... do lamik... orik, aise yakitten baide dena... Ta, deit(u) tzuten ta, aurri yao zanin:

–Bueno, nai zuna artu oain, oti[k] pat zureta. In zu mesede ederra ta...

Arek aria itten aitzen aunitz ta xarrantxa ederra kusi.

Ink.: *Urrezku gañera, ez?*

Urrezku...

–Auxe eram bar dit.

Ta, oaxe.

–Bueno, atze... atzera beitu eram bar tzu, e! Dena musikikin yuain gera.

Ui! Ui... ura musika atztik...

Ink.: *Itxeño, laguntzen zioten?*

Itxeño, itxe ataiño.

Ta:

–Atzera begitzen bali'mazu, kenduko zugu.

Ta atzera ez begitu biño, anka sartu zunin bat ya! musikeru nai zun kusi...

–Bueno, erdia.

Ta musik... aen erdikin ingo izun ainbertze etxe ta... or-dun ok... baliko zuen igual, urre puska arek, e... oainko millon bat. Eta ordun oainko millon batekin itten zain zi-ren amar itxe. Bos milla duro, lau...

Ink.: *Eta orduan etxe aunitz erosi zittun, ez?*



Lamia, urrezko ispilu eta orraziarekin, Bertizaranako etxe baten armarrarian.

GURE HITZAK

Yoanen: Joanenea, Iturengo etxea. *Joanarena* deitzen zen 1655. urtean

Barbenekua: Barberenekoa, Iturengo etxea. *Barberena* deitzen zen 1660. urtean.



Ereiteko marka.

Erosi ta in, itxe ondun. Denak... [indarrez] ta...

Ink.: *Ta ze itxe dire oiek?*

Ta landan ere la... lurrik obenak, eta...

Ink.: *Ze etxe dire Barbenekuk erosi zittuztenak? Xarrantxan dirukin...?*

Oi! Onena... denak, e... Barbenekuk erraten diou guk, Barbenuku[k] tire, ondu artan, denak ondun.

(Ituren)

Oizko lamiak

Ori zen Oizkua, zen **Oizko ugaldia**... ugaldia... esate ze... ori, ugaldiara zela, ugaldia zera yo ta, pakillekin yo ta partitzn tzela...

(...) An omen zien lamiak azpian, an omen zien (...). Ur azpi.... Ur azpian biarko zuten... ta aat yuateko ur ori eba... moztu itten men tzuten, maki yo, ta moztu, ta an pasu in.

Ta an zila ta basoa atei ziola e... apuruan egoki... itteko, eta, emagiña bear zula, ta emagiñ eske yuan men zen Oizera, ta, arratu men zun emagiña, ta in tzion ura partittu, yuan men ziren, earki man men zion eatez ta eerki, naikua, ogi ta naikua ze gauza omen zaukaten... lenak egin, lan in tzen denborin... biño oain eztakit yornala nola... bueno, yuan bar tzula ta ogi goxua ta sakelin sartua... (eta meta...) yuaten men da lamia ta ___ yotzen du ura... ez partitzen! Berzi yoa ta erran men zion:

–Zu[k] pauzu zerbait e sakelian, zu...

–Bai, ogi pixkot...

–Bueno, bota, ogia.

Ogia kendu, ura yua... ta ordun partittu, ta yuan men zien.

(Oitz)

Lamiak haurra izan zubietar batekin

Lamiken... ori, neska bat tzela or, elizko **armalan** esatn tzuten. Ori gore amak esatn tzun. Ta esatn tzun ark mutill batekin espostu zela, eta seme bat zan...du zutela. Eta... mutillak nai zun mutiku ura bataitu, miño andriak ez. Ta, nunbait ere ibilliko ziren gerran alaxe, ta egun bat in tzion, artu mutiku bi ankatik eta ra! bi aldetara puskatu eta “To! Au batai zak, au neri(a) duk” san omen tzion.

(Zubieta)

Lamiak nola lekutu ziren

Karrerik eziñ egin lamikin, exkin guzitara sartzen, eta gero, asi zirela pues lekutu bar zittutela. Eta, liño azia oloku zatn da xe-xe-xe-xia, azi



Trikuharria.

GURE HITZAK

Oizko ugaldia: Ezpelura izeneko ugaldea. Oitzen biltzen zaio Amezti izeneko erreka.

Armala: Harmaila. Harrizko maila edo jarleku modukoa. Baita mendietan ere ematen zaie antzeko harri edo haitzei.



Gurutzea.

bat, eta errugu erdi bat liño azi, zenbat pikor zun, ainbertze urtetako konjuratu zittutela. Ya, lekut tziela, milagro bat, eztirela geigo agertu.

(Donamaria)

11.3. Jentilak

Jentilak Ezkurrarekin lotzen dira Malerrekan. Basaburu Txikiko herri honetan gertatuak dira jentilei buruz erraten diren istorio guztiak.

Jentilak herriko batekin umea izan

Lenaokoan esan nun bezala, beiak pazkatzera yoaten tzela Amarrendi(d)eko mutille. Ta ure ara yo-aten tzen(e)an, jentille o(i)tako emakume at etortzen tzitziola ta gero aurra izandu zula.

Ink.: *Bai, kontatu mantso-mantso, bai. Aurra izan zuten ta ze pasatu zen?*

Aurra izandu zuen da gero, apezak esan tziola ure jentille zela, gure zea etzela; lejio kontrakoa edo ola, jentillek ordun arte gaiztokoa(k) pezala eo kontatzen tzin. Da, dena jentillek, sorgiñek, klase orta(n). Da, ure arei kendu ta bataiatu bear tzula, eamatteko ta bataiatzeko. Ta, neskak o lo artu zu- nean, ba, aman tzula Amar(r)endikoa. Ta, Amar(r)endidea aman tzula, da, beste neskato... neska do, ama esnatu eta seittu ziola atzetiken, puñala batekin, da. Orduako atea itxi(e) zula ta atearen... dak!, sartu ziola puñala. Ta ordun, alde in tzula ta umea etzun ongi artu (i)zanen, yakiñe, umea ka- toliko iñen tzen da katoliko bearrik etzuen (i)zanen arrek.

Ink.: *Orduan jentillari artu zion aurra, Amarrendiko orrek. Eta lengo egunean kontatu zenigun... Amarrendigia orrek zertaz du izen ori?*

Orrek... amarrenak eta primizik Elizare ordintzea; da, Amarrendiden bil- tzen tzin.

Ink.: *Artuan amarretik bat, ez?*

Artoan amarretik pat. Ta gero, primizi re bazen zerbatt, oraiñ, gutxigo, baño orrek zerbait e ematen tzen.

Ink.: *Eta ortaz du Amarrendidia izena?*

Amarrendidia, bai.



Errolanen omenez egindako monumentua Ibañetan.

(Ezkurra)

Martin Ttiki eta jentilak

Ink.: *Martin Ttiki ze egoten zen, jentillakin?*

Ez, etzen jentillekin egoten izaanen baño amistadea izanen tzun. Da, jentillek ez ematten nonbatt e garii do iritteko ta atz... da garie nai zun. Da, abarka aundi atzugin yoan da salto in tzun, gari pi- llen erdira. Ta, abarkatan geldittu tzaitzion gari pille aundik. Baño, ura re in tzun, iin, da garie (e)torre zen. Baño, gero iotzen etzekin, iriñ itten etzekin gero. Arrota in tzun, baño, lengoan esan nun bezala, ardatza pagua edo lizarra do eurre goorrakiñ itten tzun, eurre beroaken. Da, jentillei galdetzen tzion baña jentillek ez esaten, sorgiñek ez esaten. Da, eun batean, Ezkurreko plazan, ori:

GURUTZAK

Amarrendidia: Amarrende- gia, Ezkurreko etxe baten izena. Bertan biltzen omen ziren elizari ordaintzen zi- tzaizkion hamarrenak.



Idiekin belarretan.

“Altzakiñ eo saatsakiñ itten balen baok ardatza, eztok erreko ez, ezta suk artuko”. Ta orduntxe sumatu omen tzun ze ardatza klase bear tzun.

Ink.: Orduan, Martin Ttikiri esker badago emen... badakite nola egiten den ogia, ez?... [irriak]

(Ezkurra)

11.4. Sanson eta Errolan

Batek Bibliatik hartua du izena, bertzeak Nafarroako gertaera historiko bate-tik, baina bi pertsonaien izaera, antza denez, franko lehenagotik heldu da.

Sanson eta Errolan, biak, bizkorrak biak (...), indar aundikuk... (...)

–Bueno ba, apostu in bar za... pillotan, guantez. Bueno, in bar diu apostua.

–Bueno, ni yarriko nauk –Sansonek erran men tzion- ni yarriko nauk Iruñeko Paza Kastillun.

Paza ederra [indarrez] oañiken... ta:

–Ni... nun yarri bar dut ba?

Ta:

–I, i Elizondoko plazan.

Plaza ederra ori ere.

–Bueno, bueno –enbora ederra- nik men sakatuko it –Sansonek- nik sakatk’it pillota... i yau erne nonbatti ttaz...(?) sakatzen men io __ , yo [indarrez] ta botazen men du Plaza Kastillora, arek artu ta, artu ta yoa [indarrez] ta berzeraka (?) Elizondora, ta arek matte, xo, xo. Ta Sansonek arraptze u.

–Ara! Ik ere... irauzi bar tzut ba ni(k) partida bat... irauzi bar tziola, tiatzen [indarrez] men du goitisko [indarrez] altun... ta eldu me tze... eldu men tzen... eldu men tze ta, eldu men tze, ta mentxe atzeka ta atzeka, atzeka, azka... azka... ta an bei kak... bei kaka mukuru zaki an... eta __ tiatu [indarrez] bar zula indar [indarrez] guzikin ta irixtu ta pelota eskap... Frantzira eskapatu pillota ta bera lurrera...

(Oitz)



Etxea babesteko elorritz egindako gurutzeta eta elorri adarra.

GURE HITZAK

Altzakiñ: Haltza (*Alnus glutinosa*), erreka eta ugalde bazterretan hazten den zuhaitza.

Saatsakiñ: Saratsa (*Salix spp*), haltza bezala, ugalde bazterretan hazten den zuhaitz mota.

11.5. Animak

Oso zabaldua egon da hil ondoren pertsona batzuen arima gure artean gelditzen zelako sinesmena. Horrek arazoak sortzen zituen bizirik zeuden ahaide eta lagunaren artean, eta, horregatik, nola edo hala lagundu behar izaten zitzaion arima galduari bere bidea aurkitzen.



Dantzariak.

Gaiztotako zuten neskaren anima agertu

Ori kontatzen tzun amak. (...) Neska bat men tzen... men tzen e... pues... eztakit, ordun denbor aietan tzen ainbertzeñeko pekatua gizonak eta emakumik ibiltzia... ta... pues... gizonakin ta ibiltzen tzen emakumi ure, eta zaukaten arrun gaixtotako, e! oso, oso gaixtotako. Eta il tzen eta... ta etzion iñork erreztu, ta etzion iñork... etzion iñork deus ere... ori. Eta agertu zen eta erran tzion... ya nor tzen, nor... erran tzion... agertutzen tzaion areri erran tzion, apezari erran men tzion ba nola ager-tzen tztzaion, ta galdezizu zu aber onezkua den do gaixtozkua den. Eta galdetu zion. Argiekin agertzen omen tzen, beti atetzen omen tzen. Eta... erran omen tzion e... “Ni onezku naiz, ni naiz errin tzen neska gax... gaixtu ura, gaixtotako zin... na... nagon ura. Il nitzen eta Jangoikok barkatu di(t) dena, biño meza baten faltan nago”. Ta meza bat ate zioten, eta... ori geigo etzen agertu.

(Urrotz)

Atautxi zerra-lekuan

Bai, bai, nik askotan a... entzun izando nion, gore atautxik berak esaten zun gure itxean onduan bazen zerra lekua, zerran aritzko leku preparatu zen, oaiñ ezta an miño kendu zten aspaldi. Ta an atetzen men tzen argia, (...) ark esaten tzun, pixtu... zatn men tzela argia.

(Zubieta)

Animak ateratzean zer esan

Satn tzuten esan bar tzela... ori, olako bat atera-tzen tzenin... esateko (...) “Ona bazera mintza zatte! gaxto bazera onda zatte!”, ori zuten esaera. Ordun, esaten zuten ona baldi’mazen meza eska-tzen tzula, klaro bazterrak zikiñ... illunak tzeren ta etzen deus kusten, gaai aietan ezaizen argirik iñun ere... eta, edozeñek igual in tzezaken ori, ez?

(Zubieta)



Goroldioa. Hizketan ez zekien izaki bakarra.

11.6. Animismoa

Garai batean, animaliek eta landareek hitz egiten zutela kontatu digute ani-tzetan. Hainbat ipuin labur bildu dugu Malerrekan.

Goroldioak

Animali guzik itz egiten omen tzun denbora batean, baño kooldioak ez. Da, kooldio orek kos-tun(br)atu men tzin (?) denak eta geldittu omen tziin denak mutu.

(Ezkurra)

Pagoa solasean

Pagoana bai, arbolana, pagoana bai, aittu izan dut ori.

GURU-HITZAK

Kooldioa: Goroldioa, landare txikia, gehienetan berdea, lu-r-raren, harrien edo enborren gainean belusaren itxurako multzoetan hazten dena.



Oholak egiteko zerra.

Ink.: *Nola da?*

Pagoana, o arbolana. Ta, pagoak botatzen asi, ta: “Ez, ez, ni ez, ni ez! Or, aureago ta obea! Aureago ta obea!” [irriz], esaten tziola. Pagoa: “Ni ez pota, ni ez bota! Aurrerago ta obea! Aureago ta obea!”.

(Ezkurra)

Ardia eta xagoxa

Ardiak e... xagoxak erran tzion: “Emen miño an goxogo”, **xagoxa** yaten asi zen ta “Emen miño an goxo, emen miño an goxogo”, ta yuan zen ardia, bidiak in zittun. Biño ori belar onak igual engaintzen du, xagoxa izan do belar ona izan, ardiri gustatzen baldi'mazaio badoaie ardia, martxa gogorin.

(Urrotz)



Ardiak eta xagoxa.

Txingurria eta txoria

Ori zen txingurria, beti aitzen da oaiñ ere bai, oaiñ aizen die xingurrik, itten te mukurua. Korrika [indarrez] denak bautxin (?) ta, montona, montona an... an, ta txori orrek neguan elurra itten bai-zun ordun, emen elurra ittn tzun asko, eta:

–Pi! pi! pi!

Ta:

–Udan ze aittu itzen?

–Udan kantari.

–Oain dantza adi! –xingurrik-.

(Zubieta)

Ogia eta gizona

